



# KOOPERATIBEN ZUZENBIDEA

Oinarriak

Adrian Zelaia

# KOOPERATIBEN ZUZENBIDEA Oinarriak

Adrian Zelaia

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA  
BILBO, 1996

© Adrian Zelaia

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-86967-74-0

Lege-gordailua: BI-1921-96

Inprimategia: BOAN, S.A. Padre Larramendi 2. BILBO

Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Banatzaileak: UEU. General Concha 25, 6. BILBO telf. 4217145

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Ane, Adrian eta Jon Anderri

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	7
<b>1. Kapitulua. Kooperatibak lan eta kapitalaren arteko gatazkan .....</b>	<b>9</b>
1.1. Lan eta kapitalaren arteko gatazka eta Sozietateen Zuzenbidea.....	9
1.2. Kapital eta lanaren araubenaren oinarritzko baldintzak Sozietateen Zuzenbidean .....	10
1.3. Kapital-ekarlearen kokapena sozietate-egitura bakoitzean .....	11
1.3.1. Kapital-Sozietate txikia .....	11
1.3.2. Kapital-Sozietate handia .....	13
1.4. Lana sozietate-egituretan. Oinarritzko irizpideak .....	13
<b>2. Kapitulua. Lan-ekarpena eta kooperatiba-elkartea .....</b>	<b>15</b>
2.1. “Menpeko” lan-ekarpena .....	15
2.1.1. Menpeko lanaren ohiko kokapena .....	15
2.1.2. Menpeko lana eta kudeaketan parte hartzea .....	16
2.1.3. Menpeko lana, Kooperatiba-Elkarteen bazkidea .....	17
2.1.4. Menpeko lana, Merkatal Sozietate pertsonalisten bazkide gisa ..	22
2.1.5. Menpeko lana, Kapital-Sozietateen bazkidea .....	23
2.2. Gainontzeko lan-ekarleak .....	31
2.2.1. Kontsumitzailea eta hornitzailea .....	31
2.2.2. Zuzendariak lan-ekarle gisa .....	32
2.2.3. Enpresen sustatzailea lan-ekarle gisa.....	34
2.2.4. Akziodun eragilea lan-ekarle gisa .....	35
2.3. Sozietate Pertsonalistak eta Kooperatiba-Elkarteen porrot eta berpiztea .....	36
<b>3. Kapitulua. Kooperatiba-Elkartea. Oinarritzko egitura .....</b>	<b>41</b>
3.1. Kooperatiba-Elkartearen ideologi oinarriak .....	41
3.2. Kooperatiba-Elkartek duen betekizun ekonomikoa .....	45
3.3. Kooperatiba-Elkartearen kontzeptua .....	46
3.4. Elkarte hutsa ala Sozietatea .....	53

3.5. <i>Sozietate Zibila ala Merkatal Sozietatea</i> .....	54
3.6. <i>Zibilak diren Kooperatiba-Elkarteak</i> .....	56
3.7. <i>Kooperatiba-Elkarteak Sozietate Pertsonalistak bezala</i> .....	58
3.8. <i>Irizpide mutualista</i> .....	59
3.9. <i>Kooperatiben burujabetza eta kooperatiben taldeak</i> .....	61
3.10. <i>Kooperatiba-Elkarteen motak</i> .....	68
4. <b>Kapitulua. <i>Kooperatiba-Elkartea. Organo-egitura</i></b> .....	75
4.1. <i>Irizpide orokorrak</i> .....	75
4.2. <i>Kooperatiba txiki eta handien organo-egitura</i> .....	77
4.3. <i>Batzar orokorra</i> .....	78
4.3.1. <i>Irizpide orokorrak</i> .....	78
4.3.2. <i>Aginpideen esparrua</i> .....	80
4.3.3. <i>Botu-eskubidea</i> .....	83
4.4. <i>Administrazioaren antolakuntza</i> .....	86
4.4.1. <i>Errektore-Batzordea (edo Artezkaritza Kontseilua)</i> .....	86
4.4.2. <i>Sistema Bakuna eta Sistema Bikoitza</i> .....	92
4.4.3. <i>Kooperatiben Legediaren gaurko jarrera</i> .....	95
4.4.4. <i>Erreformaren oinarriek Kooperatiben Zuzenbidean     duten baliogarrtasuna</i> .....	98
4.5. <i>Zaintza-organoak</i> .....	104
4.6. <i>Goi-mailako Zuzendaritza</i> .....	105
5. <b>Kapitulua. <i>Ekonomi jaurpidea</i></b> .....	107
5.1. <i>Ekonomi jaurpidea eta etekina</i> .....	107
5.2. <i>Etekinak zehaztu eta banatzea</i> .....	112
5.3. <i>Kapital-jaurpidea</i> .....	115

## SARRERA

Gure inguruko Kooperatiben Zuzenbidearen sustraiak eta oinarrizko ezaugarriei buruzko azterketa bat egitea izan da liburu honen helburua.

Egindako lan funtsezkoena ez da izan oinarrizko ezaugarri guztiak zehazki aztertzea. Alderantziz, Kooperatiben Zuzenbidean berebiziko interesa duten alderdietan berezko arreta jartzea izan da nire helburua.

Batzuetan, aukeratutako gaiak berez duten garrantzian eta, beste batzuetan, ohiko liburuetan ez agertzean datza berebiziko interes hori.

Azkenik, Kooperatibagintza eta Kooperatiben beharrak asetzeko Kooperatiben Zuzenbideak erantzun behar dituen erronkak agertarazteagatik edo Kooperatibak diren enpresentzat berebiziko interesa izateagatik ere aukeratu dira gai batzuk.

Liburu honetan, irakurleak ez du aurkituko lege araupenen azterketa zehatzik. Arauan agertzen dena errepikatzeak ez du irakurlea laguntzen eta, alderantziz, nahasketak sortu eta denbora eta ahaleginak galtzea baino ez du lortzen.

Beraz, gaurkotasuna, erakargarritasuna edo interes handiena duten kontzeptuen arloko oinarrizko gaiak zaindu dira bereziki.

Batez ere, Kooperatibagintzak dituen betekizun soziologiko eta ekonomikoak (1. Kapitulua) eta Sozietateen Zuzenbidean orokorki eta Kooperatiben Zuzenbidean bereziki lan edo laguntza ekarpenak duen interesa ere (2. Kapitulua) aztertu dira zehazki.

Geroxeago (3. Kapitulua) Kooperatiba-Elkartearen Oinarrizko Egitura aztertzen da. Horretarako, Sozietateen Zuzenbidearen arloan Kooperatiba-Elkartek duen kokapena eta Kooperatiba-Elkartearen oinarrizko ezaugarrien artean gaurkotasun handikoak edo gatazkatsuak suerta daitezkeen gaiak ere azaldu dira.

4. Kapituluan, Kooperatibaren Organo Egitura aztertzen da. Horretarako, gai gatazkatsuenak aukeratu dira hemen ere; hauen artean, botu-eskubidea edo organoen arteko aginpideen zehaztapena.

Azkenik, Kooperatiba-Elkartearen Ekonomi Jaurpidea aztertu da 5. Kapituluaren eta, batez ere, arlo honetan Kooperatiba-Elkartearen berezko ezaugarriak adierazten dituzten gaiak: Etekina, Erreserbak eta Kapitala.

Orokorki, Kooperatibak eta gainontzeko Sozietateen artean dauden ezberdintasunak sakontzen saiatu gara. Esan dugunez, gatazkatsu edo gaurkotasun handikoak diren gaiak ere landu ditugu eta, bestaldetik, Legearen arauak ez errepikatzen saiatu gara ere, beharrezkoa izan ez bada, errepikapen hauek ez diotelako inolako laguntzarik ematen irakurleari.

Liburuan erabili den euskarazko terminologia arazo batzuk sortu ditu ere. Ez dut nire burua hizkuntzalaritzat hartzen, legelaritzat baizik. Beraz, legezko terminologiari buruz hizkuntzalariek dituzten iritzi ezberdinei guztiz zabalik nago, inolako aurreritirik gabe.

Orokorki, legezko zehaztasunak eskatzen duenez, Euskadiko Kooperatiben 4/93 Legearen terminologia errespetatzen saiatu naiz. Hala ere, Kooperatiben errealitatean erabilitako terminologia eta Legearen artean zeuden ezberdintasunek azkeneko hau aukeratzea ezinezko edo nabarmenki kaltegarria egitekotan, albo batera utzi behar izan dut Legearen terminologia.

Hala ere, 4/93 Legearen hitzez hitzeko aipamenak egiterakoan, Lege horren terminologia errespetatu egin dut, bestelako jarrera zentzugabekoa eta arrazoi juridiko guztien aurkakoa izango bailitzateke.

*Adrian Zelaia*



## **1. KAPITULUA**

### **KOOPERATIBAK LAN ETA KAPITALAREN ARTEKO GATAZKAN**

#### ***1.1. LAN ETA KAPITALAREN ARTEKO GATAZKA ETA SOZietateen Zuzenbidea***

Gaur eguneko gertaeren ondorioz, Enpresak erabiltzen dituen produkzio-faktore oinarrikoek –eta, zehazki, lan eta kapitalak– Enpresan bertan mantendu behar dituzten kokapenei buruz eztabaidatzeko esparru egoki bihurtu zaigu Sozietateen Zuzenbidea.

Azpimarratu behar den lehenengo gertaera, lan eta kapitalaren arteko betiko auziaren iraupena da, gaurko problematika sozio-ekonomikoaren osagai funtsezkoa izanik. Hala ere, argi dago auzi hori konpontzeko oraintxe bertan aztertzen ari diren bideak eta orain dela urte gutxikoak guztiz ezberdinak direla eta, batzuetan, ekintza politikotik gizarte zibilaren arlora mugitzen hasi direla.

Kontutan hartu behar dugun bigarren jazoera hauxe bera da: auzi edo gatazka hori bideratzeko saiakerak egin direnean orain arte topatu diren mugak, batez ere eztabaida arlo politiko edo ihardularitzaren arlora mugatu den heinean.

Lan eta kapitalaren kokapenak zeharo aldatzeko asmoz ekintza politikoan oinarritutako irtenbideak baino erabili ez dituzten ideologia eta gizarte mugimenduek porrot egin dute; batzuetan, haien aurrean topatu duten gizartea ihardularitzak zuzenduriko aldaketak onartzeko gertu ez zegoelako; beste batzuetan, errealitate ekonomikoa indarrez behartzen saiatu direlako, aurrez zehazturiko kontzeptu teoriko edo ideologikoen arabera, eta gizarte-egituraren errealitatearen aldibereko garapenik gabe. Azkenik, gizartearen arbuiapenak edo ekonomi arazoek mugimendu politiko hauen porrota ekarri dute, esparru mugatu baten barruan ideologia politikoa gizarte zibilari eta ekonomi errealitateari aurreratzea posible dela ahaztu egin dutelako, baina ideologiak ezin dezakeela haiengandik gehiegi urrundu porrot egin nahi ez badu.

Azkenik, eta esandakoarekin lotuta, kontutan hartu behar da, merkatu-ekonomia planifikazio zentraleko ekonomia baino eraginkorrago izatea gaur egun guztiz onartuta dagoen iritzia dela. Zentzu honetan, ez dugu ahaztu behar Sozietateen Zuzenbide eta enpresaren oinarriko araupenaren artean dagoen lotura estua, merkatu-ekonomiaren osagai funtsezkoa enpresa bera izanik.

Honen ondorioz, gizarte zibilak berak enpresaren ihardueraren egiturak kapitala eta lana kokatzeko sortu dituen aukerak gero eta garrantzi handiagoa hartuz doaz azkeneko hamarkadetan, aukera horiek guztiak Sozietateen Zuzenbidearen legezko arloan agertzen direlarik.

## **1.2. KAPITAL ETA LANAREN ARAUPENAREN OINARRIZKO BALDINTZAK SOZIETATEEN ZUZENBIDEAN**

Sozietateen Zuzenbidean kapitalak eta lanak duten jaurpide eta egoera ezberdinen ondorioz, kontutan hartu behar dugu gai honetan guztiz zaila dela enpresa-egiturak oinarri teoriko hutsetan eratzea, aurrez hartutako jarreraren arabera. Epe luzera, eraginkorrak diren enpresa-sistemek baino ez dira. Beraz, kapitala eta lana –oinarrizko produkzio-faktoreak izanik– araupen egoki eta eraginkor baten bidez arautzen dituzten elkarte-motek baino ez dute arrakasta izateko aukerarik.

Beraz, zein dira Sozietateen Zuzenbidearen bidez kapitala eta lana modu eraginkor batez arautzeko egon daitezkeen oinarrizko baldintzak?

Laburbilduz, honako hauek dira:

1. Hasteko, kontutan hartu behar dugu, bai lana bai eta kapitala ere, enpresa-iharduerarako produkzio-faktore funtsezkoak direla, eta hori guztiz onartuta dago bai arlo juridiko bai eta arlo ekonomikoetan ere.
2. Honen ondorioz, enpresa-sistema orok ahalbideratu behar du, gutxienez, faktore produktibo hauen erabilpen eraginkorra.

Merkatu-ekonomia baten barruan egonik, merkatuan eskuratu behar ditu enpresak lana eta kapitala eta, beraz, hauen ekarleari irizpide lehiakorrez ordaindu behar dio.

3. Horrela, sozietate- edo enpresa-egitura bakoitzaren eraginkortasuna, kapitalari eta lanari ordaintzeko sistema horrek dituen tresnen eraginkortasunari egongo da loturik; hori bai, “ordainketa” hitza aipatzen dugunean ez dugu ahaztu behar ez dela bakarrik kontutan hartu behar ordainketa ekonomikoa.
4. Azkenik, elkarte-egitura bakoitzaren eraginkortasuna, kapitalak eta lanak bertan duten kokapen organikoa egokia izatearekin dago loturik, bai ekarlearen interesen ikuspegitik, bai eta enpresa-ihardueraren barruko egituraren eraginkortasunaren aldetik.

Baldintzok aztertu behar ditugu hemendik aurrera, aukera sozietario bakoitzean duten araupena arakatuz.

### **1.3. KAPITAL-EKARLEAREN KOKAPENA SOZIJETATE-EGITURA BAKOITZEAN**

Gauza jakina da antzekoa dela sozietate-egitura guztiek besteren kapitala hartzeko duten legezko gaitasuna eta, bestaldetik, hauen arteko ezberdintasun funtsezkoak, ekarle bakoitzak, bere ekarpenaren arabera, eskuratzen dituen eskubide eta betebeharrak zehazteko orduan agertzen direla.

Irizpide honek, izaera kapitalista –bertan elkarte-agintea kapital-ekarleei dagokielarik<sup>1</sup>– eta izaera pertsonalista edo kooperatiba-izaera –bertan aginte soziala lan-ekarleei egozte posible izanik– duten sozietateak ezberdintzera garamatza.

Gaur eguneko sozietate gehienak Kapital-Sozietateak izateak, gure enpresen izaera kapitalistaren nagusitasun garbia adierazten duela ematen du.

Hala ere, oraintxe bertan ikusi behar dugunez, legezko itxura hau ez dator bat errealitatean ikusten dugunarekin, bi arlo ezberdinotan: enpresa txikia alde batetik eta handia bestetik, eta –zehazki– enpresa-iharduera bideratzeko bakoitzak duen elkarte-egitura.

#### **1.3.1. Kapital-Sozietate txikia**

Kapital-Sozietateen garapenaren ondorioz –eta, gure inguruan, Sozietate Anonimoaren hedapenaren ondorioz batez ere– Sozietate Pertsonalistak desagertzen hasi zirenean, inguru sozio-ekonomikoaren kapitalismo garbierako gero eta gehiagoko garapentzat hartu zuten merkatal arloko legelariak. Kapitalismoaren lehenengo garaietan enpresa-iharduerak Sozietate Pertsonalistek bideratu bazuten, Kapitalismo helduan betebeharrak hori Kapital-Sozietateei zegokiela zirudien, kapitalak gero eta garrantzi handiagoa –eta elkarlaguntza pertsonalistak gero eta txikiagoa– zeukan gizarte honetan.

Hala eta guztiz, argudio hori onartzeko ondoko arazoak agertzen zaizkigu:

1. Hasteko, sozietate-mota baten arrakasta aztertzeke, ezin dugu ahaztu bazkideen ondarezko erantzukizunak daukan garrantzia.

Gaur egunean, denok dakigunez, erantzukizun mugatua da –ziurraski– enpresari indibidualak bere iharduerari Sozietate-egitura emateko orduan

---

1. Kontutan hartu behar da, Kapital-Sozietateen kasuan, jakina denez, aginte soziala ez dagokiola edozein motatako kapital-ekarleari, legean ezarritako baldintzetan arrisku-kapitala ekartzen duenari baino. Honen ondorioz, kapitalari dagokionez, esan dezakegu Kapital-Sozietateek ez dutela izaera “mutualista”, bertan ez baita derrigorrezkoa kapital-faktorearen ekarle guztiei bazkide-izaera ematea. Gehienetan, mailegu-kapitalaren ekarleek ez dute bazkide-izaera hartzen eta bazkideak ez diren arrisku-kapitalaren ekarleak egotea ere posible da, kapital-ekarle hauei eskubide sozialak emateko bultzatzen duen lege-araurik egon gabe.

dagoen faktore funtsezkoa. Beraz, momentu honetan –salbuespenak salbu–ondarezko erantzukizunaren mugapena sozietate-mota baten arrakastarako ia-ia baldintza “sine qua non” dela kontutan hartzea derrigorrezkoa zaigu. Horrek argitzen digu zergatik erabiltzen diren horrenbestetan Kapital-Sozietateak helburu pertsonalista duten enpresei legezko nortasuna emateko.

2. Bigarrenez, “Sozietate Pertsonalistak” eta “Kapital-Sozietateak” terminologia hori guztiz iluna da. Gehienetan, Sozietate Pertsonalistak –Kolektibo nahiz Komanditarioak– pertsonalistatzat hartzen dira bazkideen ezaugarri pertsonalek –eta, bereziki, hauen ondarezko-kaudimenak– berebiziko garrantzia hartzen dutelako, bazkide kolektiboek ez baitute erantzukizun mugaturik. Honek ez dauka harreman zuzenik aginte sozialaren banaketa, ezarritako kapitalaren arabera ala ekarritako lana edo laguntzaren arabera egitearekin, aukera biok baliozgarriak baitira sozietate-mota hauetan.<sup>2</sup>
3. Hirugarren faktorea, “Pertsona bateko Sozietatea” izenekoa da edo, hobeto esanik, “sozietate-itxura duen pertsona bateko enpresa”<sup>3</sup>, bertan sozietate-izaera erantzukizun mugatuaren abantaila lortzeko baliabide bat baino ez izanik.

Kontutan hartu behar da enpresa txikiak bideratzen dituzten Sozietate-mota guztien artean, Pertsona bateko Sozietate hauek oso kopuru garrantzitsua suposatzen dutela eta, beraz, ez dugu hori ahaztu behar enpresa txikia bideratzeko dauden Sozietate-egituren azterketa orokor bat egiteko momentuan.

Faktore guztiok kontutan hartuz, guztiz zalantzarria da Sozietate Pertsonalisten desagerpena eta Kapital-Sozietateen arrakasta horrek joera kapitalista nabariagoa duen enpresa-errealitatea adieraztea.

---

2. Horrela, GIRON TENAK (“Derecho de Sociedades”, I, Madrid, 1976, 392) harreman zuzena ikusten du izaera pertsonalista eta “bazkideen ezaugarri pertsonalak kontutan hartzearen” artean eta, zehazki, “bazkidearengandik ez dela bakarrik bere dirua interesatzen, baita bere laguntza pertsonala edo bere lana ere” eta, aldi berean, “kanpoko harremanak bazkideen erantzukizun pertsonalak, mugagabe eta solidarioak babestuta daude”; bestaldetik, “pertsonalista” izaeraren ezaugarria bezala zera hartzen du: “ez elkarte-bizitzan duten eragina, ez eta etekinetan duten partehartzea ere, ez dira derrigorrez neurtu behar ondasunen ekarpenen arabera: gai honen inguruko arauak Borondatezko Zuzenbidezkoak dira”.

3. Horrela “Pertsona bateko Sozietatea” kontzeptu hori onartu behar denentz -legezko kontzeptuen arabera sistematikoki eraturik dagoen zalantzetan ipintzen da- funtsgabeko eztabaidatik at gelditzen gara.

Argi dago bazkide bateko Sozietatea ez dela benetako Sozietatea Kontratu Zuzenbidearen ikuspegitik, baina bai erakunde ikuspuntutik (“unternehmen an sich”). Egitura honek duen erabilgarritasun praktikoa kontutan hartuz, egitura hau izendatzeko “Pertsona bateko Sozietatea” ala “erantzukizun mugatua duen enpresa indibiduala” aukeratu behar den egokitasunari buruz daukagun eztabaida, terminologia-arlokoa baino ez dela esan dezakegu. Lege-kontzeptu hutsen arabera “Enpresa” hitzak egokiagoa ematen badu ere, enpresak -honen sozietate-egituraren aldakuntzen aurrean- behar duen erakunde-egituraren jarraipena kontutan hartzen badugu, “sozietate” hitza erabiltzeko baimen horrek guztiz egokia ematen du.

### **1.3.2. Kapital-Sozietate handia**

Gauza jakina da Sozietate Anonimo handietan akziodun eragilea (aktiboa) eta akziodun geldia (pasiboa) ezberdintzeko dagoen joera, honako dinamika hau sortuz:

a) Akziodun geldiak gero eta gutxiago erabiltzen ditu beren eskubide sozialak eta, batez ere, garrantzitsuena dena: botua emateko eskubidea.

b) Errealitate honen aurrean, Kapital-Sozietateen legediak banaketa hau agertarazteko joera nabaria hartu du, ondoko baliabide hauen bidez:

– Zuzenki izendaturiko organo kolegiatuaren betekizunak gutxiagotuz eta gestio-arduradunak diren zeharbidez izendaturiko organoak indartzuz.

– “Aksziodun geldiarentzat” egokiak diren legezko eta finantza-baliabideak gero eta gehiago arautuz eta zabalduz: interes mugikorra, indexatua edo partehartzekoa duten maileguak eta zorragiriak, menperatutako zorra, beste legedietan agertzen diren partehartze-tituluak, botugabeko akzioak, etab.

Horrela, guztiz bitxia den prozesu historikoa agertzen zaigu; horren arabera, Sozietateak garatu eta hauen akziodunen kopurua zabalduz doan neurrian, kapitalaren titularrak enpresaren zuzendaritza eta kudeaketatik urruntzen hasten dira, Administrazio-Kontseiluaren bitartez –edo, kasuan kasu, Board of Directors eta, Sistema Bikoitzaren Zaintza-Batzordearen bidez ere– bideratzen den horien kontrol zuzenetik at gelditzen dira geroxeago eta, azkenik, botua emateko eskubidea ere galtzen dute. Azkenik, akzioduna botu gabeko finantz-ekarle hutsa bihurtzeko joera nabaria adierazten da, enpresa-errealitatea legezko errealitate bihurtuz.

### **1.4. LANA SOZIETATE-EGITURETAN. OINARRIZKO IRIZPIDEAK**

Sozietateen Zuzenbidean, lana edo industri ekarpenak Sozietatean egindako ekarpen “pertsonala” adierazten du. Mercedes VERGEZ-en iritziz, ekarpen horiek “elementu pertsonalak” dira, eta “horien bitartez sozietateak ezin du erosketak egiteko eta galerei aurre egiteko berarizko kapitala lortu”.<sup>4</sup>

Horrela, lan-ekarpenaren legezko kontzeptua eta ekarpen “pertsonalista”-rena nahastu egiten dira, biak kapital-ekarpenaren kontzeptutik aldentuz.

Lan-ekarpenaren legezko kontzeptu hau ez da “lanaren” ohiko kontzeptuaren esparruaren barruan gelditzen –“dependiente” edo menpekota den lan-ekarpenarekin

---

4. M. VERGEZ: “El socio industrial”, Madrid, 1972, 29.

lotuta dagoena–, kapital-ekarpena ez den edozein motatako laguntza ekonomikora zabaltzen delarik.

Horrela, bai kontsumoa, bai hornidura, bai eta beste enpresa bati ondasun edo eskubide batzuen erabilpena –merkatal sareak, know how, etab.– errazten dion enpresen arteko elkarlaguntza ere, lan-ekarpenak dira. Logikoki, hauxe da datozen kapituluetan erabili behar dugun lan-kontzeptua.

## 2. KAPITULUA

### LAN-EKARPENA ETA KOOPERATIBA-ELKARTEA

#### 2.1. “MENPEKO” LAN-<sup>5</sup>EKARPENA

##### 2.1.1. *Menpeko lanaren ohiko kokapena*

Argi dago, printzipioz, sozietate-mota oro menpeko lana eskuratu eta ordaintzeko gai dela, horretarako dagozkion lan-araupenek ezarritako esparruaren barruan.

Hala eta guztiz ere, Kapital-Sozietateetan eta Sozietate Pertsonalistetan menpeko lanak duen kokapena –elkartearen agintean duen partehartzeari dagokionez– zeharo ezberdinak dira. Dakigunez, Sozietate Pertsonalistek –eta, batez ere, Lankide-Kooperatibek– Batzar Orokorrean botua emateko eskubide osoa langileen eskuetan gelditzea ahalbideratzen dute; Kapital-Sozietateen kasuan, ordea, kapital-ekarpenen tituludunei baino ez dagokie botua emateko eskubidea.

Aipatutakoa kontutan hartuz, zera azpimarratu behar dugu: Lankide-Kooperatiben ezaugarri honen ondorioz, soldatapeko langileak kontratatzeko mugapen zehatzak ezartzen ditu legediak; mugapen horiek enpresaren jabeen pizgarrian aurkako eragina eduki dezakete, lehenengo lankide-bazkideek –edo, kasuan kasu, Kooperatiba-Elkartearen bazkide sustatzaileek– elkartearen jabetza eta lortutako etekinen partehartzea beraientzako gordetzea oztopatzen baita.

Menpeko lanak dituen kokapen sozialari dagokionez, Kapital-Sozietateen eta Sozietate Pertsonalisten arteko betiko ezberdinketa hori aldatuz doa azken urteotan, enpresa-errealitatean agertzen ari diren joeren ondorioz, lan-faktorearen gero eta integrazio handiagoaren bila doazenak. Horretarako, Sozietateen Zuzenbidetik kanpoko tresnak erabiltzen hasten dira eta, horien artean, soldatapeko langileen lansari-araupenaren egokitzapena, gero eta malgutasun handiagoz, lansari hori lanaren eraginkortasunari –bai eta enpresaren garapenari ere– gero eta lotuago egonik, betiere lan-faktorearen gero eta pizgarri eta inplikazio handiagoren bila.

---

5. Irizpide didaktikoz, “menpeko lana” espresioa zera adierazteko erabiltzen dugu: “fisikoa edo legezkoa den beste pertsonaren eraketa eta zuzendaritzaren esparruaren barruan egindako lana”, lan-harremanetan ohikoa den terminologia erabiliz. Kontzeptu honen barruan, bai “besteren konturako langileak”, bai “norbere konturako langileak” kokatzen dira.

Menpeko lanaren gero eta integrazio handiagoko joera hori, arlo ezberdinetan adierazten da:

- a) Enpresa-zuzendarien aldetik, kapitalaren titularrak gero eta gehiago saiatzen baitira zuzendariak inplikatzeko, lansari aldagarrien bidez, etekin partehar-tzeen bidez, akzioak banatuz, etab.
- b) Orokorrean, norbanako edo taldeko lanaren eraginkortasunari loturik dauden pizgarriak –lansari mugikorrek bezala ordainduta– gero eta gehiago zabaltzen dira.
- c) Gainontzeko langileen aldetik, taldeko lansariek gero eta harreman estuagoa dutelako enpresaren garapenarekin edo azkeneko hau dagoen sektorearekin.

Bilakaera hori ez da teoria mailako gogoeta hutsa, enpresariak, Herri-Ihardu-laritzak eta sindikatuek kontutan hartzen duten benetako errealitatea baizik. Sindikatuek gero eta argiago ikusten dute lansari-eskakizunak bai ekonomia osoaren bilakaerari, bai dagokion enpresa edo sektorearen garapenari lotu behar zaizkiela. Soldaten igoera, gero eta gehiago, aldagai hauei lotzen diete herri guztietako hitzarmen kolektiboek, epe motzeko enpresaren arriskuan lana inplikatzeke beste faktore bat ezarriz.

Gauza nabaria da soldatapeko lanaren lansaria, nahitaez, enpresaren epe luzeko garapenari loturik dagoela. Hala ere, aipatutako tresnen bidez ezartzen den harreman zuzen eta epe motzeko horrek bide berri bat zabaltzen du, guztiz berria eta kontutan hartzekoa dena.

### ***2.1.2. Menpeko lana eta kudeaketan parte hartzea***

Menpeko langileek enpresa-kudeaketan lortzen duten parte hartzea (J. DIVARrek “kozuzendaritza” deiturikoa) azkeneko hamarkadetan ustekabe eta, agian, frustrazio handiena sortu duen arazoetariko bat da, orain aztertzen ari garen ikuspegitik.

Alemaniko kogestio-sistemak izan zuen garapen baikorrak itxaropen handiak sortu zituen gizarte eta intelektualen giroetan. Hala ere, Europako errealitatean ez da, ez eredu horren hedapenik, ez eta horren sakontze azkarrik ere baieztatu.

Kogestio-sistema horiek zer motatako oihartzuna izango duten Europako legedian argitu gabeko arazoa da oraindik. Gai honi buruz herrien artean dauden iritzi ezberdinak oso ezagunak dira.



Bitartean, kogestio-sistemak izan duen hedapen murriz hori azaltzeko asmoz agertu diren azalpenak ugari izan dira.

Ez dugu sinplifikatu behar horren konplexu den arazo hori. Hala eta guztiz ere, Lan-Kooperatibagintzatik hurbil dauden arloetan kogestio-sistema ikertu dutenek oso ondo aztertu dute arazo horren gakoa. Ziurraski, kogestioak dituen arazoan azalpen argiena ondokoan datza: guztiz zaila da langileek –zuzenki nahiz zeharbidez– modu “erantzule” eta “eraginkor” batean enpresa-kudeaketan parte hartzea aldi berean jabetzan parte hartzen ez badute, jabetza horri dagozkion arriskuak, itxaropenak eta pizgarriak onartuz eta barneratuz.

Jakina, kudeaketaren aurrean benetako jarrera erantzulea hartzeko (eta, zehazki, lan-antolamendu eta lansari-araupena autodisziplinatzeko, iharduerak horrela eskatzen badu) langilearen lansaria –edo, bestela, etekin edo galeretan duen partehartzea– ihardueraren etekinei egon behar zaie loturik. Aldi berean, garrantzitsua da kontutan hartzea langileak jabea izatearen benetako kontzientzia izan behar duela.

Kogestio-sistemen babesle sutsuek kontutan hartu behar dituzte irizpideok, horiek azaldu baititzaizte sistema horiek dituzten mugapenak bai eta horien geroko garapenerako bideak ere.

### ***2.1.3. Menpeko lana, Kooperatiba-Elkarteen bazkidea***

Lan faktorea –edo, hobeto esanda, menpeko lana– enpresaren titular bezala kokatzeko balizko planteamenduaren aurrean, Sozietateen Zuzenbidearen erantzunak guztiz ezberdinak dira, Kapital-Sozietate, Sozietate Pertsonalista ala Kooperatiba-Elkartez –eta, bereziki, Lankide-Kooperatibez– ari garenaren arabera.

Kontutan hartu behar dugu Kooperatiba-mota guztiak Sozietate Pertsonalistatzat hartzen direla, elkartearen titulartasuna lan edo industri ekarleei –zentzu zabalean ulerturik– egozten baitiete. Baina Lankide-Kooperatibek –edo, Espainiako Zuzenbidean, Lan Elkartuzko Kooperatibek– baino ez diote egozten titularitate hori menpeko lanari, gehiengoz erabakitze gaitasuna duen taldea bezala.

1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen 99. atalaren testuaren arabera, “Jendeari ondasun nahiz zerbitzuak eskaintzeko, edozein ekintza ekonomiko edo lanbide-iharduera elkarlanean egiten duten pertsonak batik bat elkartzen dituztenak dira Lankide-Kooperatibak”. (Aurreko legean agertzen ez zen “batik bat” hitza sartzea azpimarratu behar dugu, aldaketa horrek Kooperatiba-mota honen kontzeptua Kooperatiben gaurko lege-araupenari lotzen baitio. Ik. Nafarroako 1996ko Lege-Proiektuaren 63.1 artikulua).

Bere aldetik, SCOPak (produkzio kooperatibak) arautzen dituen Frantziako Legearen arabera, “Produkziozko Lankide Kooperatiba Elkarteak maila eta lanbide-gaitasun guztietako langileek osatzen dituzte, beren lanbidean amankomunean iharduteko asmoz, zuzenki –edo/eta beraien artean izendaturiko ordezkarien bitartez– kudeatzen duten enpresa baten bidez”.

Argi dago lan-ekarpenean sustraituriko elkarte batez ari garela.

Printzipioz, legearen kontzeptua ez da argi eta garbi menpeko lanera mugatzen, baina –legedian bildutako arau osagarrien ondorioz– haren bideragarritasun praktikoa, lan-ekarpenaren mota honetan kokatzen da zehazki.

Lankide-Kooperatibek gure Zuzenbidean duten lege-kontzepzioa ulertu nahi baldin badugu, Sozietate-mota honek aginte soziala banatzeko dituen irizpide bereziak derrigorrez hartu behar ditugu kontutan. Oso adierazgarriak dira, batez ere, Batzar Orokorrean botu-eskubidea banatzeko dauden irizpideak: Euskadiko Kooperatiben Legearen 35.1. atalaren arabera –eta Estatuko Kooperatiben Legeetan agertzen diren honen antzekoenak ere– “barkide bakoitzak, botu bana” oinarritzko irizpidea izanik.

Horrek adierazten du Lankide-Kooperatibaren kontzeptzioa ez datzala bakarrik “lan-elkartearen” kontzeptuan, “berdintzailea den lan-elkartearen” kontzeptuan baizik; hau da, enpresaren langileen artean berdinki banaturiko aginte sozialean sustraiturik dagoen kontzeptuan. Ez dugu ahaztu behar, jakina, Kooperatiben legedi batzuek malgutu egin dutela irizpide hori, mugapenak dituen “botu plurala” deiturikoa onartuz.

Kooperatiba baten elkarte-agintea langileen arteko banaketari buruzko irizpideak argitzeko asmoz legezko teoriaren araberrako azterketa bat egin dezagun. Arlo honetan egin diren azterketek lan-balioaren teoriara zuzentzen gaituzte. Zalantzarik gabe, Lan-Kooperatibagintzaren oinarritzko sustrai ideologikotzat har dezakegu teoria hori.

Lan-balioaren teoriaren irizpideak onartuz, eta apur bat sinplifikatuz, Elkartearen agintea langileei –lan-ekarleak izanik– egoztean oinarri dezakegu Lan-Kooperatibagintza; eta hori, aberastasuna sortzeko benetan eragilea den produkzio-faktoretzat hartzen baita lana. Irizpideok onartzen baditugu, ondoko hiru oinarritzko irizpideotan sustraitu beharko genuke elkarte-agintearen banaketa:

1. Elkartearen jabetza langileen multzoari egozten zaio.
2. Langileen artean, “bakoitzak ekarri duen lan-ekarpenaren arabera” banatzen da jabetza.

3. Langileen gehiengo zabalak hartu behar du parte elkartearen titularitate horretan.

Azter ditzagun hiru irizpideok sortzen dituzten arazoak.

Batzar Orokorrean dagoen botua emateko eskubidearen gehiengoa langileei dagokiela onartze berak sortzen du lehenengo arazoa.

Lankide-Kooperatibak arautzeko momentuan, oinarri-irizpide hori argi eta garbi bete du Kooperatiben legediak. Hala ere, egia da oinarri-irizpide hori zalantzan ipini izan dela laguntza bidezko bazkideak (bazkide laguntzaileak) eta ihardunik gabeko bazkideak (bazkide diru-ekarleak Frantziako Kooperatibetan) legean agertu direnetik. Kontutan hartu behar dugu, 1993ko Legearen 35.4. atalaren arabera, bazkide-multzo biok botuen ehuneko 50a eskuratzea ahalbideratzen dela (beste Kooperatiba-Elkartek eskuratu dezaketen partehartzea bideratzeko dauden aukera zabalak ahaztu gabe).

Bestaldetik, Lankide-Kooperatibak ez diren beste kooperatiba-motetan –lan-bazkidearen bitartez– menpeko langileei aginte sozialaren kuota bat gordetzea ahalbideratzen die Kooperatiben Legediak. Horrela, lan-bazkide eta beste motako bazkide kooperatzaileen artean –hornitzaileak, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak– erdibanaturiko jabetzako Kooperatibak sortzen dira.

“Lan-bazkide” hauek duten botua emateko eskubidea ehuneko 50eko muga horren barruan gelditu da orain arte. Hala eta guztiz ere, legearen hitzez-hitzezko nahiz logikaren arabera azterketa egiten badugu, ehuneko hori 50ekoa baino handiago izateko aukera onartu behar dugu. Bestela, zentzugabea izango litzateke legeko araupena. Kooperatiben Legediak alde batetik lan-bazkideek –edo langile bazkideek– ehuneko 50a arteko partaidetza izan dezaketen elkarte-egiturak, eta bestaldetik ehuneko 100ekoak ere ahalbideratzen ditu. Beraz, guztiz arrazoiduna izango litzateke erdibideko egoerak ere ahalbidetzea, baita agintea bazkide erabiltzaileekin banatzen bada ere (Legearen 35.4. atalaren arabera, aginte hori laguntza bidezko eta ihardunik gabeko bazkideekin banatzen bada, ez dago arazorik erdibideko irtenbide horiek ahalbideratzeko).

Beste ikuspuntu batetik, Kapital-Sozietate hutsak direnen ondoan, lana edo industria osoki kooperatibizatzen duten elkarte-motak (Kooperatibak) ere egotea eta hauen bazkideen erantzukizuna mugatzea ahalbidetzen du Legediak. Hala eta guztiz ere, Kapital-Sozietateak eta Kooperatiben arteko erdibideko aukera sendoak oztopatu egin ditu Legediak, erantzukizun mugatuaren ukapenaren bidez. Horrela, bai Kooperatibismoaren garapena, bai eta enpresa-errealitatearen eskaerei Legediaren egokipena ere larriki oztopatzea baino ez da lortzen.

Teori mailako bigarren arazoa Kooperatiben jabetza langileen artean nola banatu behar den erabakitzeke orduan agertzen zaigu.

Irtenbide latza duen arazo baten aurrean aurkitzen gara: enpresa-ihardueran langile bakoitzak egiten duen lan-ekarpena nola neurtu.

Arazo honi emandako erantzunak horrela sailka ditzakegu:

- a) hasteko, lan-ekarpena lan-denborari lotzearen alde dagoen irizpidea dugu.

Dakigunez, Lan-Kooperatibagintzan hedatuena dagoen irizpidea dugu hau.

Horren arabera, lan-bazkide gehienak urteko lanordukopuru antzekoa betetzeko kontratatuak izan direla hartzen da kontuan. Beraz, enpresan ekarritako lana –edo, hobeto esanda, “lan-ahalegina”– antzekoa da eta, honen ondorioz, aginte sozialean –eta, bereziki, botu-eskubidean– langile guztiek duten partehartzea ere antzekoa izan behar da.

- b) bigarren irizpidearen arabera, lan-ahalegina neurtu gabe, “langile bakoitzak enpresara ekartzen duen balioa” aztertu beharko litzateke.

Langileek ekartzen duten balioa ezin da modu berdintzaile batez neurtu, zeren eta:

- langile batetik bestera zeharo ezberdina izan daiteke lanordukopurua.
- kualifikazio gabeko eta kualifikatuak –edota zuzendariak edo enpresa-sustatzaileak– diren langileek ekarritako lanak enpresa-iharduererako duen garrantzia –edo balioa– zeharo ezberdina izan daiteke.

Hauek dira, ziurraski, legedi batzuek (ik. 1974eko Espainiako Legea) “botu plurala” onartzeko bultzatu dituzten argudioak, nahiz eta botu-mota hori egile askok zalantzan jarri, oinarri-irizpide demokratikoaren aurkakoa izateagatik edo.

Arazo honi irtenbidea ematea zaila da, jakina. Hasteko, erantzun beharreko lehenengo galdera hau da:

Onar dezagun langile batzuek eta besteek enpresara ekarritako balioa zeharo ezberdina dela. Hala ere, posible al da lan-ekarpen bakoitzaren balioa neurtu eta konparatzea?<sup>6</sup>

Zehazpen handiko neurketak aparte eta lan horren “erabilpen-balioa” neurtu gabe, irizpide logikoek “aldaketa-balioaren” antzekoa den erreferentzia neurtzera garamatzate. Eta “aldaketa-balio” hori neurtu nahi badugu, langile bakoitzari Kooperatiba-Elkarte berak egotzen dizkion lansariak zehaztu beharko ditugu.

---

6. Ik. E. BALLESTERO: “Economía social y empresas cooperativas”, Madrid, 1990, 195/196.

Irizpide honen arabera, langile bakoitzaren lansariaren arabera neurtu beharko genuke bere lan-ekarpenaren balioa. Beraz, aginte sozialean langileak izan behar duen partehartzea zehazteko ere baliogarria izango litzaziguke, berdin-berdin.

Enpresa-errealitatean irizpide hau ezartzeko orduan, posible da ere bazkide bakoitzari dagokion botu-kopuruari mugak jartzea, jakina, langileen arteko ezberdintasunak handiegiak ez izateko.

Irizpide hau indarrean jarriz gero, lan-balioaren teoria Lan-Kooperatibagintzan argi eta garbi ezartzen dela esan dezakegu.

Azkenik, langileen artean, dagokien lansariaren arabera etekinak banatzeko Kooperatibetan dagoen ohiturarekin ere bat dator irizpide hori. Hala ere, irtenbide honek arazok sortzen ditu:

- Lehenengo arazoa Kooperatibaren langile-talde batzuek, aginte sozialaren kuota zehatzak ziurtatzeko asmoz, lansariak aldatzeko izan dezaketen joera da. Eta hori, jakina, langile bakoitzaren lansariaren eta aginte sozialaren banaketaren artean dagoen harreman zuzenaren ondorioz.

Hala ere, horrelako jokaerak gauzatzeko dauden aukerak guztiz murrizak dira. Langile-talde zabal baten lansariak artifizialki aldatzea –adierazgarria den modu batez gutxienez– ez da batere erraza, enpresa-kudeaketaren beharrak seriozki kaltetu gabe.

Bestaldetik, botu pluralari muga zehatzak ipiniz ere urrun liteke arrisku hau.

- Bestaldetik, sortzen zaigun bigarren oztopoa, garrantzitsuena, enpresa-errealitatean agertzen da.

Langile-multzoaren kohesio sozialean horrelako “botu plurala” ezarteak ekar ditzakeen eraginetan datza arazoa. Behe-mailako lanbide-gaitasuna duten langile-taldeen urrunketa eta pizgarri-eza bultzatzen ditza horrek. Ziurraski, eragin kaltegarri hori nabariagoa izan liteke dagoeneko ihardueran dauden Kooperatibetan sortu berriak direnetan baino.

Edonola ere, Lan-Kooperatibagintzak konpontzeke duen arazo hau bideratu nahi bada, derrigorrezkoa izango litzateke, hasteko, legediaren malgutasuna, eta geroxeago, enpresa-errealitateari adi-adi egotea.

Esandakoa kontutan hartuz, aipaturiko irizpideen arabera botu plural mugatua Kooperatibetan ezartzea Kooperatiben Legediak ahalbidetzea ez litzateke irtenbide txarra izango. Horrela, enpresa-errealitateak berak argituko liguke aipaturiko

irizpide horiek zuzen daudenentz. Bestela, argi geldituko litzaiguke irizpide horiek ezartzea ez dela beharrezkoa edo oker dagoen teori-mailako burutapen hutsa baino ez dela.

Azkenik, langileen gehiengo zabala bazkide izan behar horren irizpide orokorra, Estatu osoko Kooperatiben legediek babesten duten irizpidea da (ez da horrela gertatzen kanpoko beste legedi batzuetan). Iritzi hau irizpide mutualistan dago sustraiturik. Honen arabera, bazkideekin bideratu behar da batez ere “Kooperatiba-iharduera” –kasu honetan, menpeko lana– eta, beraz, soldatapeko langileak kontratatzeke mugapen zehatzak ezartzen dira.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar irizpide mutualistaren gehigarri gisa “bazkideak sartzeko askatasunaren” oinarri-irizpideak duen garrantzia. Oinarri-irizpide honen arabera –edo, hobeto esanda, Legean ezarri den oinarri-irizpide honen bertsioaren arabera– iraupen mugagabea duten soldatapeko langileek borondatez bazkide bihurtzeko eskubidea dute. Hala ere, bazkideak izateko benetako gogoia ez duten langileek –eta, beraz, enpresaren titular gisa beren betekizunak horren ondo gauzatuko ez lituzketenak– soldatapeko langile gisa irautea ere ahalbideratzen du irizpide horrek.

Beste kasuetan gertatzen den moduan, gai honetan ere, Kooperatiben Legedia malguago edo izan beharko luke (edo, horrela ez bada, Sozietateen Legediak). Horrela, irizpide mutualista zeharo betetzen ez duten Lankide-Kooperatibek ere, Sozietateen Legediaren estalpena izango lukete.

#### ***2.1.4. Menpeko lana, Merkatal Sozietate Pertsonalisten bazkide gisa***

Dakigunez, menpeko lana Merkatal Sozietate Pertsonalisten bazkidea izatea zabalik dagoen aukera da. Bazkideen artean botu-eskubidea banatzeko orduan Sozietate-mota hauek duten malgutasunaren ondorioa da aukera hori.

Horrexegatik, hainbat kasutan, beren iharduera elkartearen menpe gauzatzen duten eta profesionalak diren langileek osaturiko sozietateei legezko babesa emateko asmoz, sozietate pertsonalistak –eta, bereziki, sozietate kolektiboak edo zibilak– erabiltzen dira. Guztiz ezagunak dira egiturek aholkularitza- edo ikuskaritza-sozietateen kasuan, bertan bazkideek duten lanbide-mailaren ondorioz (goi-mailakoa izan ohi dena) erantzukizun mugagabeak dakarren arriskua onargarria baita.

Aitzitik, sortu berri diren Ekonomi Interesezko Elkarketek (AIE) debekatuta dute beren bazkideen gaineko zuzendaritza-aginpideak izatea. Beraz, autonomo edo burujabeak diren langileak bazkidetzeko interesgarriak dira, baina ez menpeko langileak elkartzeko.

Menpeko langileen elkarteak bideratzeko, funtsezko abantaila dute merkatal arloko Sozietate Pertsonalistek: Estatutuak egiteko duten malgutasun handia, Kooperatiben Legediaren estatusunaren aurrean.

Hala ere, aurreratu dugunez, legezko egituron arazo funtsezkoa erantzukizun mugagabea datza. Honen ondorioz, langileen elkarteek Kooperatiben edo Kapital-Sozietateen egiturak erabili behar izan dituzte. Eta hori, –esan dugunez– Kooperatiba-Elkarteek duten malgutasun-eza eta, bestaldetik, Kapital-Sozietateen oinarri-irizpideak langileen elkarte hauek duten izaera pertsonalistarekin bat ez etortzearren.

Esandakoa laburbilduz, menpeko lana jabe bihurtzen den sozietateak bideratzeko merkatal arloko Sozietate Pertsonalistek dituzten abantail funtsezkoenak ondokoak dira:

- a) Kooperatiba-Elkarteen aurrean, merkatal arloko Sozietate Pertsonalistek duten malgutasun handiago hori, Lankide-Kooperatibek duten araubide estuegi horren aurrean.
- b) Izaera pertsonalista –edo, nahiago bada, Kooperatiba-izaera– hartu duten Kapital-Sozietateen aurrean, merkatal arloko Sozietate Pertsonalistek duten izaera pertsonalista iraunkorra eta, bestaldetik, bilatzen den helburu pertsonalista hori bideratzeko egokiago izatea.

Bestaldetik, oztopo gaindigaitza izan daiteke erantzukizun mugagabea. Honen ondorioz, salbuespenak salbu, merkatal arloko Sozietate Pertsonalistok ez dira horrelako lan-elkarteak bideratzeko gai izan.

### ***2.1.5. Menpeko lana, Kapital-Sozietateen bazkidea***

Printzipioz, enpresaren jabetza eskuratu eta mantendu nahi duten diru-ekarleak bildu, elkartu edo bazkidetzea da Kapital-Sozietateek duten helburu kontzeptuala.

Dakigunez, akziokako baltzu edo sozietateek –Espainiako betiko Legedian hedatuenak izan diren Kapital-Sozietateak– akziodunei egozten diete aginte soziala. Eta egozpen hori akziodun bakoitzak duen akzio-kopuruaren arabera egiten da.

(Botu-eskubidearen banaketa Kooperatiben irizpideen arabera ere egitea ahalbidetzen duten Legediak –Frantzian gertatzen den bezala– ahaztu gabe).

Horrexegatik, sozietate-mota hauetan, kapital-bazkiderik gabe, aginte soziala menpeko lan-ekarleei egotzi nahi badiegu, akzioen titulartasuna langileei egozteko behar diren bideak bilatu eta gauzatu behar ditugu gehienetan.

Irizpide hau kontutan hartuz, Sozietatearen kontrol osoa edo partziala langileen eskuetan utzi nahi den Kapital-enpresetan, “Kooperatiba-izaera” hartu behar dutela esan dezakegu.

“Kooperatiba-izaera” hori lortzeko asmoz gehienetan erabiltzen diren baliabideak ondoko biok dira:

#### 1. LANGILEEK, BANAN-BANAN, AKZIOAK EROSTEA.

Tresna hau iraunkorra egiteko asmoz, ondoko bideok erabili ohi dira:

- Langileek erositako akzioak “sindikatzeta” edo “kontratu bidez elkartzea”. Sindikatze honen bidez, Elkartearen organoetan botu-eskubidea gauzatzeko asmoz elkartzen dira akzioak, kontratu baten bidez.
- Estatutuen bidez, langile guztien artean lorturiko botu-kopurua iraunkorra egiteko asmoz arau bereziak ezartzea.

#### 2. AKZIOEN JABETZA LANGILEGO OSOAREN ESKUETAN UZTEA.

Honen bidez, langilego osoaren jabetzapean dagoen “Diru-ezarketarako Fondo” batek enpresaren akzioak erosten ditu, Fondo horren helburu bera enpresaren akzioak erosi, mantendu eta kudeatzea izanik.

Aipatu ditugun oinarritzko baliabide biok, “banan-banango erosketeta” eta “bateango erosketeta” izendatuko ditugu. Baliabide biotan dauden aldagaiak kontutan hartuz eta zehaztuz, Kapital-Sozietateek “Kooperatiba-izaera hartzeko” erabiltzen dituzten ondoko bost baliabide funtsezkoenak zehazten ditugu:

- a) Langileen akzioduntza
- b) Akzioen sindikazioari lotzen zaion langileen akzioduntza
- c) Lan-Sozietateak
- d) “Conventional ESOPs” (Ohiko ESOPak)
- e) “Democratic ESOPs” (izaera demokratikoa edo Kooperatiba-izaera duten ESOPak)

Ikus ditzagun legezko baliabideon ezaugarri orokorrak.

#### A. LANGILEEN AKZIODUNTZA

Mende honen lehenengo erdian, Europako gizarte-mugimenduen artean “langileen akzioduntza” izenarekin ezaguna izan zen egitasmoak oihartzun handia izan zuen, honen helburua langileek beren enpresen akzioak erostea izanik.



Gizarte-mugimendu honek oihartzun handia izan zuen. Kontutan hartu behar dugu, orain dela gutxira arte, Espainiako zerga-sistemak berak, akzioen eroslea zen pertsona fisikoaren Errenta gaineko Zergan berebiziko zerga-kenkariak ezartzen zituela horrelako erosketak gertatuz gero.

Hala ere, errealitateak erakutsi duenez, horrelako eragiketen arrakasta eskasa izan da. Oso gutxitan lortu da langileen eskuetara heltzen ziren akzioen multzoek, aginte sozialaren kuota adierazgarriak eskuratzea. Are gutxiago horrelako agintea bateango modu eraginkorraz gauzatzea.

Dirudienez, mugimendu honen arrakasta eskas horren funtsezko faktoreak ondoko laurok izan ziren:

1. Sindikatuen heldutasunik-eza, horrelako eragiketen aurrean hauen ohiko jarrera geldia edo guztiz kontrakoa izanik.
2. Elkarte-eskubideak gauzatzeko momentuan adierazten zen langileen arteko irizpide sakabanaketa. Honen ondorioz, lortutako aginte-kuota guztiz gutxitua gelditzen zen.
3. Norbanakoaren erosteko erabakien bidez gauzatzen ziren eragiketok. Beraz, aginte sozialaren kuota adierazgarriak eskuratzeko behar diren borondateak biltzea guztiz zaila zen.
4. Erosleek edozein momentutan sal ditzakete erositako akzioak. Nabaria zen, beraz, legezko baliabideon iraunkortasun-eza.

Esperientzia honetan aritu ziren gizarte-indarrek atera zuten ondorioa hauxe izan zen: langileen norbanako borondatearen ondorioz egindako akzio-erosketen bidez bideratzen ziren mugimenduok ezegonkor eta ahulak suertatzen ziren.

Kontutan hartu behar dugu baita ere, langileen akzioduntza hau, berez, legezko baliabidea izan gabe, Soziologia arloko baliabidea dugula. Enpresaren langileek akzioak erosteko ahalegin bereziak egiten lortzea izan zen mugimendu honen helburua, betiere norbanako eta borondatezko erabakien bidez.

## B. AKZIOEN SINDIKAZIOAREN BIDEZKO LANGILEEN AKZIODUNTZA

Akzioak sindikatuz, langileek –norbanako eta borondatezko erabakien bidez– erositako akzioak elkartu edo sindikatu egiten dituzte –kasu honetan ere, langileen norbanako eta borondatezko erabakien bidez– Kapital-Sozietatearen Batzar Orokorrean bateango erabakiak hartzeko asmoz.

Egibide honen bidez, jakina, akziodunak diren langile-multzoaren ahalmena handitu egiten da, elkarte-organoetan –eta, bereziki, Batzar Orokorrean– horien

jarrerak batu egiten baitira. Logikoki, lortutako aginte sozialaren garrantzia, printzipioz, honen arabera egongo da:

- akzio guztien artean sindikaturiko akzioek eskuratu duten ehunekoa eta
- gainontzeko akzioen sakabanatzea

Nahiz eta oso erabilgarria izan, akzioak sindikatzeko egipide hau gauzatzeko orduan oztopo nabariak agertzen dira, “Kooperatiba-izaera” duten egitura egonkorak eratu nahi baldin baditugu. Hona hemen oztopoak:

- Akziodunak diren langileen norbanako eta borondatezko erabakien bidez sindikatu behar dira akzioak.
- Sindikatzeko erabaki hori guztiz borondatezkoa izanik, akziodunaren borondate hutsaren bidez ere kontratu horren desegitea ukatzea guztiz zaila da, Legedi gehienek arabera.

### C. LAN-SOZIJETATEAK

Akzioak erosteko baliabideok duten egonkortasuna handitzeko asmoz, merkatal usadioak –eta, batzuetan, legeak berak ere– Estatutuen bidezko baliabideak asmatu eta garatzen hasi ziren. Langileek akzioen gehiengoa lortu duten Sozietateen kasuan, Sozietatearen lan-izaera ziurtatzean datza baliabide hauen asmoa.

Egia da ere, gehiengoaren jabe ez den aginte-maila ziurtatzeko asmoz erabili ditzakegula baliabideok. Hala ere, gure artean oihartzun handiena izan duen kasua, 1986ko apirilaren 25eko Lan-Sozietate Anonimoen Legean<sup>7</sup> ezarritako “Kooperatiba-izaera” hartzeko baliabideena da.

15/1986 Lege honen 1. artikulua arabera, “Lege honek arauturiko baldintzetan... gutxienez kapital sozialaren %51a langileen eskuetan duten Sozietate Anonimoak” izango dira Lan-Sozietate Anonimoak.

Nahiz eta harrigarria izan, aipaturiko %51 hori langileen artean orekagabeko irizpideen arabera banatzea ahalbidetzen du lege honek. Honen ondorioz, Legean ezarritako arauen arabera, Sozietatearen “lan-izaera” ez da zehazki ziurtatzen.

Lan-Sozietateen lan-izaera hori ziurtatzeko asmoz, ondoko arauok ezartzen dira Lege horretan:

---

7. Oraintxe bertan 1986ko Lege hori ordezkatzeko asmoz Kongresuan dagoen Lan-Sozietateen Lege-egitasmoa ahaztu gabe.

- Akzioek izan behar duten izaera izenduna (6. artikulua).
- Langile-bazkideentzat gordeta dagoen akzio-mota berezi bat ezartzea (6. artikulua).
- Langile-bazkideentzat gordeta dauden akzio horiek saltzekotan, langileei egozten zaien lehentasunez erosteko eskubidea (8. artikulua).
- Lan-harremana desagertzen denean langileei egozten zaien eskubide bera (10. artikulua).

Horrela, akzioak esku-aldatzeko Estatutuetan jartzen diren oztopoen bidez, Sozietate-mota honen lan-izaerari egonkortasuna eman nahi zaio.

Nahiz eta Espainiako kasuan ohikoa ez izan, Kooperatiben Legedirik ez dagoen edo akats nabariak dituen Europako zenbait herritan bai ohikoa dela Lankide-Kooperatibek horrelako baliabideak erabiltzea. Horren bidez, “Kooperatiba-izaera” hartzeko asmoz, sozietatearen akzioak era berdintzaile baten bidez banatzen dira langile guztien artean. Horrela, aginte soziala banatzeko orduan “langile bakoitzak botu bana” oinarri-irizpidea betetzen dela ziurtatzen da.

Hala ere, Estatutuen bidezko “Kooperatiba-izaera” hartzeko bide hori nahasi xamarra da, bai elkarte-egituraren aldetik, bai eta legezko ziurtasun-ezaren aldetik ere. Horrela, Kapital-Sozietatearen berarizko baliabideek izan behar duten malgutasuna bera larriki oztopatzen da.

#### D. INBERTSIO-FONDOA/KAPITAL-SOZIJETATEA EGITURA BIKOITZA: E.S.O.P.ak.

Orain arte aipatu ditugun egiturek duten egonkortasun-eza behin betiko gainditzeko asmoz asmatu-rik tresna aurreratuena da Egitura Bikoitza.

Honen bidez –langile bakoitzak, banan-banan, akzioak erosi gabe– langile-multzoa da enpresaren akzioak erosi, mantendu eta kudeatzen duena. Horretarako, kasu bakoitzean libreki zehazturiko egitura eta legezko itxura dituen Inbertsio-Fondo baten bitartez sortzen da Egitura Bikoitza.

Egitura Bikoitz honek arrakasta handia izan du Britania Handian eta, batez ere, Estatu Batuetan, ESOP delako egituraren bidez (Employee Stock Ownership Plans-Langileek Kapitalaren Jabetza eskuratzeko Planak).

Enpresa asko eta askoetara hedatu diren ESOP hauek, laguntza garrantzitsua jasotzen ari dira aginte publikoen aldetik, bai eta sindikatu, gizarte- eta enpresa-mugimenduen aldetik.

ESOP batzuk eta besteak guztiz ezberdinak dira. Alde batetik, langile-multzoak duen akzio-kopuruaren arabera, gutxiengokoa, kontrolekoa ala gehiengokoa dira. Bestaldetik, Inbertsio-Fondo horretan dagoen botua emateko eskubidearen banaketa-sistemaren arabera ere:

- “Conventional ESOP” delako horien kasuan, langile bakoitzak Inbertsio-Fondora ekarritako kapitalaren arabera banatzen da botu-eskubidea.
- “Democratic ESOP”en kasuan, Kooperatiben irizpideak jarraituz, “pertsona bakoitzak, botu bana” irizpidearen arabera banatzen da botu-eskubidea.

Aipaturiko kasu biotan, malgutasun eta eraginkortasun handia duten legezko egiturak dira:

- Kapital-Sozietateak Estatutuetan duen ohiko egitura mantentzea ahalbidetzen dute.
- Inbertsio-Fondo horren barruko eraketa, legezko egitura eta langile bakoitzak bertan dituen eskubideen banaketa, kasu bakoitzean libreki zehaztea ahalbidetzen dute baita ere.<sup>8</sup>

Esan dugunez, “Conventional ESOP” horiek izaera “bikoitza” duten egiturak dira. Bertan, langile-multzoak duen Inbertsio-Fondoa –honen helburua akzioak erosi eta kudeatzea izanik– irizpide “kapitalisten” arabera arautzen da, langile bakoitzak Fondoa duen botua emateko eskubidea bertara ekarritako kapitalaren arabera zehazten baita.

Egitura honen bidez:

- Elkarte-agintea enpresaren langilego osoan datza.
- Langile horien artean, botua emateko eskubidea ekarritako kapitalaren arabera zehazten da.

Elkarte-egituraren ikuspegitik, merkatuaren aurrean Kapital-Sozietate baten bitartez agertzen da enpresa. Kapital-Sozietate horren akzioak langile multzoaren

---

8. Hurbilago, eta Lankidegintzatik kanpo, euskal Esne-Ekoizleen Kooperatibek erabilitako elkarte-egitura ere antzekoa da:

- Alde batetik, “barkide bakoitzak botu bana” irizpidearen arabera zehazturiko Esne-Ekoizleen Kooperatiba, honen helburu bakarra Sozietate Anonimo baten akzioak erosi eta kudeatzea izanik.
- Bestaldetik, enpresa-ondasunaren titularra eta merkatuaren aurrean enpresa-iharduera bideratzen duen Sozietate Anonimoa, honen ia akzio guztiak, aipaturiko Esne-Ekoizleen Kooperatibarenak izanik.

Bestaldetik, gure inguruko beste enpresak ere hasi dira horrelako egiturengatik interesa adierazten. Azkenekoen artean, Beasaingo CAF aipatu beharrekoa da.

eskuetan daude, multzo hori elkarte-egitura ezberdinen bidez eratua izanik (Inbertsio-Fondoa, Sozietate Zibila, Ondasun-komunitatea...).

“Democratic ESOPs” edo “Cooperative ESOPs” deiturikoak ere, Egitura Bikoitzak dira. Egitura hauetan Inbertsio-Fondoaren barruko araupena Kooperatiba-Elkartean “pertsona bakoitzak botu bana” berezko irizpidearen arabera zehazten da.

Aurreko kasuan bezala, merkatuaren aurrean Kapital-Sozietate baten bitartez agertzen da enpresa eta Kapital-Sozietate horren akzioak langile-multzoaren eskuetan daude, multzo horren legezko nortasuna ezberdina izanik (Inbertsio-Fondoa, Elkartea, Sozietate Zibila, Kooperatiba Elkartea...).

Laburbilduz, Kapital-Sozietateak “Kooperatiba-izaera” hartzeko asmoz sorturiko baliabideok aztertu eta gero, ondoko ondorioak atera ditzakegu:

1. Elkarte-egituraren ikuspegi huts batetik, Kooperatiba-izaera duen “Egitura Bikoitzak” abantaila funtsezkoak ditu:
  - “Langile bakoitzak botu bana” delako Kooperatiben irizpide hori ezartzea ahalbideratzen du.
  - Honen Kooperatiba-izaera egonkorra da, bertan langileek kolektiboki harturiko erabaki baten bidez baino ezin baita izaera hori ukatu edo leundu.
  - Bertako aginte sozialean langileek eskuratzen duten botu-kopurua edozein portzentaiatakoa izatea ahalbideratzen du.<sup>9</sup>
2. Ihardueraren ikuspegitik, eta Estatutuetan jarritako arauengatik, malgutasun-eza nabaria dute Lan-Sozietateek. Sozietateen Taldeak eratu, akzioen merkatura heldu eta kapitala epe luzera metatzeko ere oztopo handiak agertzen zaizkigu elkarte-mota honetan. Bestaldetik, Ihardularitzaren (Administrazioaren) aldetik dauden zaintza eta jarraipenak estuagoak dira. Azkenik, etekinak banatzeko orduan ere betebeharrak zehatzak dituzte, nahiz eta zerga-onurak eskuratzearen truke izan.
3. Zergen ikuspegitik, Espainiako Zuzenbidean aukera guztiok duten araubidea antzekoa da, nahiz eta Lan-Sozietateek zerga-onura interesgarriak izan, etekinaren %50a erreserba-fondoetan ezarri gero. (Nafarroan, Sozietateen gaineko Zergen %20a ordaindu behar dute Lan-Sozietateek, ohikoa den %35 horren ordez).

---

9. ESOPak eta Lankide-Kooperatibak konparatuz, Corey ROSEnek zera esan zuen: “The major advantage of the ESOP legal structure seems to be as a vehicle for partial worker ownership” (“The future of participative and Democratic Enterprises”, CICOPA, Paris, 1988, 84).

Ikusi dugunez, elkarre-egituraren lan-izaera edo Kooperatiba-izaerak izan behar duen egonkortasuna ziurtatzea da azterturiko aukerek duten arazo funtsezkoa, Sozietatearen jabetza akzioetan banatuta egonik. Horrexegatik, guztiz garrantzitsua da azterturiko baliabide bakoitzak egituraren egonkortasunean izan dezakeen eragina kontutan hartzea.

Horrela, zera esan dezakegu:

- Printzipioz, “Langileen Akzioduntza” bideratzen duten aukerek, nahiz eta akzioak sindikaturik izan, akats nabariak dituzte Zuzenbidearen ikuspegitik, hauen lan-izaerak duen egonkortasun-eza nabariagatik.
- Lan-Sozietateen araubideak ere, legezko teknikaren aldetik, ez du oso egokia ematen. Zergen aldetik onura nabariak izan arren, ESOP antzeko “Egitura Bikoitzek” baino egipide eta egitura aldetik oztopo eta lan-izaeran egonkortasun gutxiago dute.
- Aipatu ditugun ESOP antzeko “Egitura Bikoitzen” artean:
  - \* “Democratic ESOP” edo “Cooperative ESOP” delakoak, duten Kooperatiben helburua bideratzeko teknikoki egokiagoak dira. Gainera, malgutasun handikoak dira, bai egipide bai egitura aldetik, eta aginte soziala banatzeko “langile bakoitzak botu bana” irizpidea erabiltzea ahalbideratzen dute baita ere.
  - \* “Conventional ESOP” delakoa, bestalderik, egokia suerta daiteke, langile bakoitzak ekarririko kapitalaren arabera egotzi nahi badiegu langileei botu-eskubidea.

Azkenik, Menpeko Langileak bazkide bihurtzeko asmoz Kapital-Sozietateek duten malgutasun hori azpimarratu behar dugu, nahiz eta malgutasun hori erlatiboa izan. Kontutan hartu behar dugu Kapital-Sozietateek –gutxienez Espainiako Zuzenbidean– botu-eskubidea banatzeko duten malgutasun-eza. Malgutasun-eza honen ondorioz, oraindik ezegonkorrak diren baliabideak erabili behar dituzte Elkarreko lan- edo Kooperatiba-izaera hartzeko.

Hala ere, esandako guztia kontutan hartuz, Kapital-Sozietateek izan duten arrakasta lortzeko funtsezkoenak izan diren faktoreak eta, beraz –teori mailan– Sozietate Pertsonalisten ordean Kapital-Sozietateak erabiltzeko garrantzia izan dutenak, ondokoak direla esan dezakegu:

- \* Kapitalak duen izaera suntsigarria. Izaera honi esker, enpresara ekarririko lan-ekarpenari edo –orokorrean– ekarpen pertsonalitari Kapital-ekarpenaren zenbatekoa egokitzea ahalbideratzen da.

- \* Erantzukizun mugatua duen eta, aldi berean, malgua den Sozietate Pertsonalistarik ez egotea. Malgutasun-eza honen ondorioz, aginte sozialaren banaketa errealitatean agertzen diren egoera eta behar ezberdinetera egokitzea oso zaila da.

## **2.2. GAINONTZEKO LAN-EKARLEAK**

### **2.2.1. Kontsumitzailea eta hornitzailea**

“Menpeko” langileekin batera, bezero edo kontsumitzaileak alde batetik, eta hornitzaileak bestetik, enpresara lan-faktorearen ekarle funtsezkoenak dira.

Berriz ere esan behar dugu lan-ekarpena aipatzen dugunean, finantza-ekarpena ez den enpresarekiko edozein motatako laguntza-ekarpena adierazi nahi dugula –Zuzenbideko esanahiaren arabera– kontzeptu honen barruan mota guztietako bezeroak, hornitzaileak, aholkulariak, etab. sartuz.

Nabaria da ekarle guztiok enpresaren garapenari “laguntza” ematen diotela eta, ikuspegi honetatik, “lan-ekarleak” dira.

Dakigunez, elkartearen jabetza horrelako laguntza- edo lan-ekarleen eskuetan uzteko bereziki asmatuak dauden elkarte-egiturak egon badaude. Hauen artean, Lankide Kooperatibak ez diren gainontzeko Kooperatiba-Elkartek, Ekonomi Intereseko Elkarketak (EIE-EEIE)<sup>10</sup> (AIE-AEIE), sozietate-itxura duten enpresen elkarketak, etab.

Gainera, Kapitalak duen izaera suntsigarriaren ondorioz, posible da baita ere, helburu bera lortzeko asmoz, Kapital-Sozietateak erabiltzea. Itxuraz, aztertzen ari garen egiturok sozietate hauek duten helburu kapitalistarekin ez datoz bat. Egiaz, Kapital-Sozietateen elkarte-egitura duten Kontsumo- edo Zerbitzu-Kooperatibak egon badaude, bai eta enpresa-elkarketak, Sozietateen Taldeak, etab.

Sozietateen arteko harremanetan, enpresa hornitzaile eta bezeroak diren enpresen artean, batak bestearen akzioak erostea askotan jazotzen den gauza da. Nahiz eta erosketa hauen xedea pertsonalista –eta ez kapitalista– izan, akzioak erosiz akzioen titularrak den sozietatea kontrolatu nahi da.

---

10. EIE-EEIE hauei buruz, Kooperatiba-izaera edo ia-ia Kooperatiba-izaera duten elkarte-egiturak direla esan du doktrinak (J. DIVAR). Orain dela gutxi, SANZ JARQUEK (“Cooperación. Teoría general y régimen de las sociedades cooperativas. El nuevo derecho cooperativo”, Granada, 1994, 82) zera esan du: “Kooperatiben antza dute eta, are gehiago, Kooperatiben betiko “Bateratzeko” oinarri-irizpidean oinarritu direla uste dugu”.

### 2.2.2. Zuzendariak lan-ekarle gisa

Menpeko lana eta Kontsumitzaileek enpresaren jabe gisa dituzten arazoak aztertu eta gero, Zuzendarien legezko kokapena ere aipa dezakegu, berezkoa den lan-motaren ekarle gisa.

Arazo honek gaurkotasun handia dauka, ondoko ikuspuntuetatik.

Hasteko, argi dago enpresaren garapenean Zuzendariak beharresteko gero eta joera nabariagoa dagoela Kapital-Sozietateetan. Beharrespen hori bideratzeko, ihardueraren bilakaerarekin loturiko ordainsari aldakorrek, etekinetan parte-hartzeak, akzioak eskuratzea, etab., erabiltzen diren ohiko tresnak dira.

Bestaldetik, azken hamarkadotan “Management Buy Outs” delakoek sortu duten interesa ere hartu behar dugu kontutan. Tresna hauek –zuzendariak enpresa erosten ahalbideratzeko asmoz sorturiko erabideak direnak– arrakasta handia izan dute, esparru anglosaxoian batez ere, azkeneko hogeitun urteotan.

Historian agertzen zaigun Kapital-Sozietate handien joera nabariaren ondorioa dugu hau. Joera honen bitartez, gero eta nabarmenkiago, goi-mailako Zuzendaritza laga egiten dute Kapitalaren jabeek. Horrela, iharduerara ekartzen duten lana gutxiagotu egiten da.

Hortik aurrerantzean, gero eta joera nabariagoa sortzen da, akziodunen aldetik, langileak orokorrean –eta Zuzendariak bereziki– enpresaren bilakaeran beharresteko. Bestaldetik, Zuzendaritza arloko lan-ekarleek gero eta argiago ikusten dute jabearen betebeharrean Kapitala ordezkatzeko –nahiz eta partzialki izan– dituzten arrazoiak.

Egoera honen ondorioz, ondoko joera bikoitza sortzen da Kapital-Sozietateetan:

a) **KUDEAKETAREN ARLOAN:**

Arlo honetan, Zuzendarien aginpideak gero eta zabalagoak dira, akziodunenak murriztuz. Honen ondorioz ezagunak diren legezko baliabideak sortzen dira: Administrazio-Kontseiluetan dauden aginpideen ordezkotza, germaniarra den Egitura Bikoitzean dagoen organo-bereizketa edo Europako Bosgarren Araubidearen Proposamenean gerenteak diren eta ez diren kontseilarien artean agertzen den bereizketa.

b) **JABETASUNAREN ARLOAN:** Zuzendariak akzioak erostea ahalbideratzeko asmoz sortzen diren aipaturiko baliabide horiek.

Askotan gertatzen den moduan, Zuzendariok ez dira beren diru-ekarpen edo inbertsioari etekinak ateratzeko asmoz Sozietatearen jabetza eskuratu nahi duten



Kapital-ekarleak. Alderantziz, beren lan-ekarpenari etekinak ateratzeko asmoz horretan interesaturik dauden lan-ekarleak dira.

Kapital-Sozietate baten bitartez bideratuta dagoen enpresa baten barruan egonik, jabetza horretan parte hartu nahi badute, derrigorrez akzioak erosi behar dituzte helburu hori lortzeko.

Berriro ere, lan-ekarleak jabeak bihurtzeko pertsonalista den helburu hori lortzeko, Kapital-Sozietate bat erabiltzen da.

Ikuspegi honetatik, ez dugu ahaztu behar akziodun eragile eta geldien artean Sozietate Anonimo handietan dagoen gero eta bereizketa nabariagoa.

Dituzten botu-eskubideen benetako erabilpena gero eta murriztago izateko joera dute akziodun geldiek. Legediak, bere aldetik, gero eta aukera gehiago ematen digu, akziodun geldiak diru-ezarle huts gisa arautzeko, beren diru-ezarpenen errentagarritasuna babesteko behar diren gutxiengo-eskubideekin.

Aitzitik, enpresa handien goi-mailako Zuzendaritzan geroz eta ahalmen handiago dute akziodun eragileek. Askotan, Administrazio-Kontseiluan duten partehartzearen truke, berarizko ordainsariak hartzen dituzte. Tresna hau Sozietate Anonimoen Legearen 130. artikuluan onartuta dago, ordainsari honetaz ondokoa esanez: “Ordainsari hori etekinen partehartzea bada, etekin garbietatik baino ezin da atera, legezko erreserba eta Estatutuen erreserba bideratu eta akziodunei ehuneko 4ko dibidendua –edo Estatutuan ezarritako handiago den ehunekoanartu eta gero”.

Berriz ere, Sozietate Anonimoen araupenean ezarritako izaera pertsonalista duen bereizketa baten aurrean gaude. Bereizketa honen bidez, etekinak banatzeko orduan Kapitalaren araberako banaketa hutsean aldaketa nabariak egitea onartu egiten da, Sozietatearen administratzaileen alde.

Ez dugu ahaztu behar, alde batetik, administratzaileak ez direla derrigorrez akziodunak izan behar eta, bestaldetik, hauen betebeharra, kolegiaturiko edo bateango goi-mailako Zuzendaritza baino ez dela. Beraz, lan-ekarpen huts baten aurrean gaude.

Zer motatako arazoak sortzen ditu Sozietate Pertsonalistak eta Kooperatiba-Elkartean Zuzendarien lanak duen araupenak?

Dakigunez, soldatapeko langileei ordaintzeko edozein motatako sozietatean –bai eta Kooperatibetan ere– erabilgarriak diren ordainsari-tresna guztiak erabilgarriak dira Zuzendarien kasuan ere. Lankide-Kooperatiben kasuan, gainera, bazkide-izaera eskuratu eta aginte sozialean honen ondorioz dagokien partehartzea eskuratu dezakete Zuzendariak.

Sozietate Pertsonalisten kasuan, aginte soziala eskuratzeko Zuzendariek dituzten aukera guztiak dira erabilgarriak. Hala ere, Sozietatearen titularitatea Enpresa-Zuzendarien eskuetan uzteko asmoz eraturiko Sozietateak bideratzeko asmo zehatza duten egiturek oso guxitan hartzen dute Sozietate Pertsonalisten itxura. Berriz ere, erantzukizun mugagabearen ondorioz, Kapital-Sozietateak –edo, kasuan kasu, Kooperatibak– erabiltzera behartuta gaude horrelako enpresen sortzaileak.

### ***2.2.3. Enpresen sustatzailea lan-ekarle gisa***

Argi dago Kapital-Sozietateek “izaera kapitalista” hutseko Sozietateak izatearen legezko itxura dutela. Itxura horrek eragin zuzena izan du, bai Zuzenbidearen arloan, bai eta Soziologiaren arloan ere.

Gure enpresen legezko egituren artean Kapital-Sozietateek izan duten arrakasta nabariaren ondorioz, nahastu egin ditugu enpresari eta bazkide kapitalistaren kontzeptuak. Horrela, enpresaren jabe gehienak “kapital-ekarleak” direla uste izan dugu, soldatapeko langileak enpresaren jabetzatik at dauden “lan-ekarleak” izanik.

Enpresa-errealitatea zeharo ezberdina da. Kapital-Sozietate askotan, jabea lan-ekarle da batez ere; hori bai, kualifikaturiko lan-ekarletzat har dezakegun enpresaria. Lan-ekarle hori, enpresaren jabetza eskuratzeko asmoz, kapital-ekarle ere bihurtzera behartuta dago. Horra hor arazo kontzeptual honen jatorria.

Gehienetan, ondoko ezaugarriok dituen kualifikaturiko lan-ekarpina dugu hori:

- Hasteko, Lan-Sustatzailea.

Kontutan hartu behar dugu enpresak sustatzea erantzukizun eta zailtasun handiak dituen maila handiko lana dela. Lan-mota honek pizgarri garrantzitsuak behar ditu –bai ekonomi arlokoak, bai eta elkarte-agintearen arlokoak ere– Gizartearen ekonomi garapena iraunarazi nahi badugu.

- Bigarrenez, Zuzendaritza-arloko Lana.

Ez dugu ahaztu behar, sozietate txikien kasuan, kudeaketaren ardura –edo, gutxienez, honen ikuskaritza eta zaintza– mantendu ohi duela enpresariak.

Horrela, Kapital-Sozietateen errealitatean, titular gehienak –batez ere sozietate txikienak– lan-sustatzailea eta zuzendaritza arloko lan-ekarleak baino ez dira. Hori bai, esan dugunez, ihardueraren jabetza eskuratzeko asmoz, Kapitalak duen aipaturiko sunsigarritasun hori erabiltzera behartuta daude, merkatal arloko Sozietate Pertsonalistek ez baitute erantzukizuna mugatzeko biderik. Kooperatiba-

-Elkarteen kasuan lan-sustatzailea ordaintzeko dauden oztopoak ahaztu gabe, jakina.<sup>11</sup>

Kooperatiba-Elkarteen kasuan lan-sustatzaileari egiten zaizkion ordainketen arazoaren ondoriozko erronka garrantzitsua azpimarratu behar dugu.

Ez dugu ahaztu behar Zuzendarien lanak behar duen ordainsaria arautzeko Kapital-Sozietateek dituzten ohiko baliabide berdinak erabili ahal ditzaketela Kooperatibek ere. Ez da gauza bera gertatzen enpresak sustatzeko lanaren kasuan.

Lankide-Kooperatibek duten legezko araupenak lan-ekarpena eta “oraingo” lan-ekarpena nahastu egin ditu. Beraz, lanaren ordainsariaren araupen guztiek denbora labur batez egindako lana –gehienez, urtebete batez egindakoa– baino ez dute kontutan hartzen. Hortik datoz bada, lan-sustatzailearen ordainsaria arautzeko dauden arazoak.

Arrisku handiko lana da, batez ere, lan-sustatzailearena. Bertan, enpresa-ihardueraren etorkizunaren aldeko apustu argiaren ondorioz, lan-ahalegin handiak egiten ditu sustatzaileak. Iharduera arrakastatsua suertatzen bada baino ez dira sarituak izango ahalegin horiek, eta lortzen den arrakastaren arabera betiere.

Esan dugunez, sustatzaile hori Kapital-Sozietatearen bazkide bihurtuz eratzen den legezko egitura baten bitartez bideratzen da enpresa-errealitatean enpresa-sustatzailearentzako pizgarri-egitura hori. Horrela, geroko etekinen onuradun bihurtzen da sustatzailea. Enpresa-errealitateak erakutsi duenez, garapen ekonomikoa bultzatzeko guztiz eraginkorra izan da egitura hori.

Ez dugu ahaztu behar Kooperatibaren eta “lan-balioaren” artean dagoen lotura. Honen ondorioz, lan-faktorea erakarri eta pizteko gaitasuna Kooperatiben ezaugarri nabarientakoa izan beharko litzateke. Beraz, Kooperatiben Legediak sustatzaileen lana pizteko behar diren tresnak arautzeko beharra kontutan hartzea garrantzitsua izango litzateke. Horretarako, etekinetan behin-behineko parte-hartzea sustatzaileei egoztea edo izan daiteke bide egokia.

Ene ustez, gizartean ditugun elkarte-egituren artean Kooperatiba-Elkartek bultzatu nahi baditugu, garrantzitsua izango litzateke horrelako aurrerapausoa.

#### ***2.2.4. Akziodun eragilea lan-ekarle gisa***

Orain arteko ildoari jarraituz, eta Merkatal Zuzenbidetik ateratako lan-ekarpenaren kontzeptuaren ikuspegitik, ondoko galdera erantzuten saiatu beharko ginateke:

---

11. Batzuen iritziz famili arloko enpresek duten “Gizarte-ekonomia” izaerari buruz, ik. E. BALLESTERO: Aip., 31-32.

Elkarte-organoetan akziodunak duen partehartze eragile hori, ez al da berez lan-ekarpenaren mota bat?

Egiaz, Kapital-Sozietatearen jabeak ondoko bi jarrera hauek har ditzake:

a) Jarrera eragilea

Botu-eskubidea erantzukizunez erabiltzeko asmoz, enpresaren helburu eta beharrak ezagutu eta ulertzeko ahaleginak egiten ditu akziodunak.

b) Jarrera geldia

Ahalegin hori egin gabe, jarrera geldi huts baten aurrean aurkitzen gara. Kapitalean egindako diru-ekarpenatik ateratako etekin ekonomikoak –zuzenki ala zeharbidez– eskuratu baino ez du egiten akziodunak, askotan Batzar Orokorretara joan gabe.

Bigarren kasu hau, akziodun kapitalistarena, honen esanahi garbienean, izango litzateke. Berriz, akziodun eragileak elkartean lan-ekarpenaren mota bat ekartzen duela ezin dugu ukatu. Batzar Orokorren aurrean azaltzen diren erabaki garrantzitsuenak egokiro hartzeko behar den ahalegina egiten du akziodun honek. Beraz, enpresarentzako interesgarria den laguntza baten aurrean gaude.

Jakina, laguntzeko jarrera honetan, bereiztasun-mota asko topa ditzakegu: Batzar Orokorrean izan behar duen partehartzea prestatu baino egiten ez duen akzioduna, Administrazio-Kontseiluaren bitartez zaintza eta kudeaketan pertsonalki lan egiten duena eta, azkenik, egoera bion artean ditugun balizko aukera guztiak, enpresa pertsonalki zuzendu eta kudeatzen duen jabe txikia ere ahaztu gabe.

Bazkide-izaerak dituen alderdi pertsonalistak –nahiz eta bazkidea legezko pertsona izan– nabariak dira enpresa-errealitatean agertzen diren egoera askotan. Enpresen arteko elkarlaguntza bideratzeko sortzen diren enpresa-egiturak –gehienetan helburu pertsonalista dutenak–, sozietate filialak eta, orokorrean, Pertsona Bateko Sozietate delakoak dira izaera pertsonalista horren adibide zehatzak.

### **2.3. SOZIETATE PERTSONALISTAK ETA KOOPERATIBA-ELKARTEEN PORROT ETA BERPIZTEA**

Orain arte esandakoa kontutan hartuz, Kapital-Sozietateek gaur egun duten arrakasta argi horren arrazoiak zeintzuk diren aztertzea guztiz beharrezkoa egiten zaigu.

Ikusi dugunez, pertsona bateko sozietateak, eskumendeko sozietateak (filialak), enpresen arteko elkarlaguntzarako sozietateak –eta, orokorki, sozietate txikiak ere– helburu pertsonalistak dituzten sozietateak dira. Beraz, hauen elkarte-egitura eratzeke orduan sozietate pertsonalistak zergatik ez diren erabiltzen aztertu behar dugu.

Lehen aurreratu dugunez, arrazoi funtsezkoak ondokoak edo dira:

1. Hasteko, kapitalak duen izaera suntsigarria.

Izaera honen ondorioz, bazkide bakoitzak egiten duen ekarpen pertsonalistari kapital-ekarpenak egokituz, aginte soziala irizpide pertsonalisten arabera banatzea erraztu egiten da.

2. Bigarrenez, sozietate pertsonalistek erantzukizun mugaturik ez izatea.
3. Azkenik, Kooperatiba-Elkartea, erantzukizun mugatua duen sozietate pertsonalista bakarra, oso legedi nahasien bidez arautua izatea.

Egiaz, Kooperatiben Legedia itxia, formala eta kasuan-kasuzkoa da. Honen ondorioz, ekonomi ihardueraren arlo zehatzetara baino ezin izan da hedatu elkarte-mota hau.

Hala ere, Kapital-Sozietateak batzutan duen izaera pertsonalista hori alde batetik eta Legediaren izaera kapitalista hutsa bestetik dagoen etena zuzentzeko joera nabaria egin da azkeneko hamarkadotan.

Hona hemen joera horiek nondik doazen:

- a) Erantzukizun mugatua duen pertsona bateko enpresak, Europako doktrina eta legegileen artean gero eta arrakasta handiagoa du.

Honen ondorioz, orain arte Kapital-Sozietateen bitartez bideratu diren enpresa asko eta asko, Sozietateen Zuzenbidetik at gelditu daitezke.

- b) Ekonomi Intereseko Elkarketak<sup>12</sup> bezalako elkarte egituren bidez, enpresarteko elkarlaguntzak duen ohiko izaera pertsonalista argi eta garbi onartzen da.

Horrela, helburu pertsonalistak dituzten enpresa-iharduera hauei, pertsonalista den legezko bide hori eskeintzen zaie.<sup>13</sup>

---

12. Erderaz, AIE (Agrupación de Interés Económico) edo GIE (Groupement d'Intérêt Economique).

13. Kapital-Sozietateen Taldeek duten izaera pertsonalistari buruz, ik. E. BALLESTERO: Aip., 50/51.

- c) Legedi askotan oso izaera malgua dute Kapital-Sozietateek.

Malgutasun honen ondorioz, izaera pertsonalista –eta, batzuetan, Kooperatiba-izaera ere– duten aginte soziala eta etekinak banatzeko irizpideak ezartzea ahalbideratzen da.

- d) Espainian gertatu den bezala, Sozietate Anonimoen esparrua zeharo murriztu da legedi askotan.

Legedi hauetan, sozietate handietara –eta, batez ere, burtsa-merkatura helbide zuzena duten sozietateetara– eta, beraz, izaera kapitalista garbiena duten sozietateetara murrizten ari da Sozietate Anonimoen esparrua.

Beraz, kutsu pertsonalista nabariago duten Erantzukizun Mugatuzko Sozietateak –eta Sozietate Komanditarioak ere– berpizteko beharra sortzen da, enpresa-iharduera asko bideratzeko asmoz egokiago den legezko aukera izanik.

- e) Eskuraezinak diren Enpresaren finantza-baliabideak gero eta malguago agertzen zaizkigu. Horrela, gero eta errazago egiten da erantzukizun mugatua duten Kapital-Sozietateen kapitalaren kontzeptua alde batetik eta benetako izaera kapitalista bestetik bereiztea. Horretarako, Kooperatiben Legediak erabiltzen dituen antzeko baliabideak –eskubide sozialik gabeko diru-ekarpenak–erabiliz.
- f) Azkenik, Kooperatiba-Elkartearen legezko araupena gero eta malguago da ere. Malgutze honen bidez, orain arte beste motatako legezko egituren bidez eratzen ziren enpresa asko, Kooperatiba-Elkartearen bidez arautzeko aukera izango da ere.<sup>14</sup>

---

14. GIRON TENAK (“Derecho de Sociedades, I, aip., 101) Kooperatiba-Elkartearen arau-esparru hori malgutzeko beharra zalantzan ipintzen zuen:

“Sozietate-mota hori, edozein Kapital-enpresa bezala, irabazte- edo lukuru-xedezko iharduerak bideratzeko gai da”.

Aurrerago, “Kooperatiba”, legezko egitura bezala, eta “Kooperatibagintza” soziologi arloko mugimendua bezala ezberdindu eta gero, “Beraz, Kooperatibak eta Kooperatibagintza lotu behar direnentz eta, egin behar izatekotan, nola egitean datza arazoa” azpimarratzen zuen.

Gerorago (102) zera esaten zuen:

“Baliteke ere kooperatiben helburua etekinak lortzea izatea, enpresari diren Kooperatibistek, Kooperatibaren bidez, beren enpresarentzako irabaziaz eskuratzeko helburu izatea, Kooperatiban bertan bazkide-mota ezberdinak nahastea, etab. Horrexegatik, argi gelditzen zaigu ondoko aukera bion artean aukeratzeko beharra: sortzen den elkarte-mota hori Kooperatibagintza bideratzeko baino balio behar ez duen ala, alderantziz, helburu ezberdinok bideratzeko zabalik dagoen elkarte-mota izatea ahalbideratu behar den. Gehienetan, Kooperatiba eta Kooperatibagintzaren arteko lotura aukeratuz konpontzen da arazo hau”.

Egiaz, merkatal arloko betiko Sozietate Pertsonalistek erantzukizun mugaturik gabe jarraitzen duten bitartean, pertsona fisiko edo legezko pertsonen arteko elkarlaguntza pertsonalistan euskarria duten kasuei legezko babesa emateko erronka hori Kooperatiba-Elkartek onartu behar du.

Hala ere, argi dago oraingo Kooperatiba-Elkartek ahalegin nabariak egin beharko dituela oraingo bere esparrua zabaltzeko asmoz. Ahalegin horiek bideratzeko eremu argienak ondokoak izan daitezke:

a) Kooperatiben sustatzailearen pizgarria.

Horretarako, lehen esan dugunez, denboran zehar luzatzen diren ordainsariak bideratzeko tresnak onartu behar dira. Alde horretatik, kontutan hartu behar da enpresa sortzearekin loturik dauden kudeaketa-ahaleginak egiten direnetik enpresaren arrakasta ala porrota egiaztatzen denerate dagoen epealdia.

b) Kooperatiba-kudeaketaren arduradunen pizgarria.

Tresna hau funtsezkoa zaigu eraginkorra den eta erne irauten duen kudeaketa lortu nahi badugu, jabetza langileen artean banatzeak eduki dezakeen eragin lasaigarria konpentsatu nahian.

c) Diru-ezarpenak egiteko pizgarria.

Honen ondorioz, ezarpenaren arrakasta ala porrota ezarpena bera erabakitzeke parte hartu duten bazkideei egotzi behar diegu, horretarako, lan-ekarpenen eta etekinen artean dauden balizko etenaldien eragin kaltegarriak zuzenduz.

d) Kapital-ekarlearen pizgarria.

Kapital Sozialak duen araupena malgutu behar da, finantza-baliabideak eskuratu eta metatzeko bideak erraztuz.

e) Kooperatiben Taldeak eratzea.

Horretarako Kooperatiba batzuk besteengan duten partehartze pertsonalista bideratzeko tresnak erraztu behar dira, 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen ildo jarraituz.

f) Menpeko lanaren pizgarria (zuzendariak, langileak).

Horretarako soldatak eta etekinak ezberdintzen dituzten oztopoak gainditu behar dira, Kontularitza-arloko araupena zehaztuz. Kontutan hartu behar ditugu

baliabideak modu egokian egotzi eta bideratzeko oraingo Legedian sortzen diren oztopo larriak.

Lehen esan dugunez, erantzukizun mugatua duen legezko egitura behar duten eta izaera pertsonalista duten elkarte-motak arautzean datza oraingo behar funtsezkoenatariko bat.

Hori da, beraz, gaurko enpresa-errealitatearen ikuspegitik, lana eta kapitala diren produkzio-faktoreak legearen aldetik modu eraginkor batez bideratzeko Sozietateen Zuzenbideak orain onartu behar duen erronka garrantzitsu bat.

Ekonomi eragileek Legeditik eskuratu behar dute legezko babes hori. Bestaldetik, enpresa-errealitate eta legezko egituraren artean dagoen haustura horrek produkzio-faktoreen jokabide egokia ez oztopatzeko zerbaitegin beharko litzateke, ahal den neurrian.

Erronka hau bideratzeko, ondoko bi bideok har ditzakegu:

- a) Alde batetik, Kapital-Sozietateen araubidetik, aginte soziala egozteko bideak malgutu. Behar izatekotan, Estatutuetan zehazten diren irizpide pertsonalista argiagoen bidez, aginte horren egozpena argituz.

Horrela, “izaera pertsonalista” edo “Kooperatiba-izaera” hartzen duten Kapital-Sozietateak bideratzeko bide eraginkorrago eta egonkorragoak lortuko genituzke.

- b) Bestaldetik, Kooperatiben Legediaren arlotik, aginte soziala banatzeko irizpideak malgutu, betiere arlo pertsonalistaren barruan.



### 3. KAPITULUA

## KOOPERATIBA-ELKARTEA. OINARRIZKO EGITURA

Kapitulu honetan, gaurko Kooperatiben Zuzenbidean dauden kontzeptu-arazo handienetarikoz batzuk argitzen ahaleginduko gara, Kooperatiba-Elkartearen eremu kontzeptuala –Sozietate Pertsonalisten esparru orokorraren barru– zehazteko asmoz.

#### 3.1. KOOPERATIBA-ELKARTEAREN IDEOLOGI OINARRIAK

Langileek osaturiko enpresa-elkarteei legezko estalpena emateko helburu soziologiko nabaria izanik sortu ziren Kooperatiba-Elkartek. Elkarte-mota honetan, kontsumo- edo produkzio-iharduerak beren kabuz antolatzeke asmoz elkartzen ziren langileok, betekizun honetan enpresari kapitalista ordezkatzuz.<sup>15</sup>

Jatorrizko baldintza hauetatik abiatuz –eta hauen ideologia-ondorio nabariak ahaztu gabe– gaurko Kooperatiben Zuzenbideak duen erronka funtsezkoenatariko bat Zuzenbide eta Ideologiaren arteko mugak zehaztean datza.<sup>16</sup>

Argi dago Kooperatiben Zuzenbidean ideologiak izan duen pisu handiegi horrek Zuzenbide-adar honen teknika-eraginkortasuna murriztea ekarri duela askotan, “kasuan kasuko” izaera hutsa duten eta arrazoizko oinarri gabekoak diren arauak sortuz.

---

15. Ikus dezagun GIRON TENAren iritzia (“Derecho de Sociedades, I, aip.). Honen arabera Kooperatibagintza zehazten duten osagaiak ondokoak dira:

“... hasteko, pertsona-talde bat edo biztanle-sektore bat, haren kideen amankomuna den behar edo interes zehatza izanik. Bigarrenez, talde hori enpresa-egitura baten bidez antolatzea. Kide horiek osatzen duten taldearen behar amankomun hori asetzean datza enpresa-egitura horren helburua”.

16. Ziurraski, Kooperatiben jatorri “antikapitalistak” sortu zuen arazo honek sustrai sakonak ditu. Kooperatiben sorreraren aurrean XIX. mendeko Kapitalismoak izan zuen mesfidantzarekin edo lotuta izanik. Ikus dezagun honi buruz GIRON TENA (“Derecho de Sociedades”, T.I., aip., 97) esandakoa:

“Kapitalismoaren garapenean gertatu diren ekonomia- eta gizarte-aldakuntzak, Kooperatiben aurreko jarrera hau iraganean uzten joango dira, eta Kooperatibak edozein motatako ideologiatik, edo alderdi eta sindikatuetatik, aldenduko dira, “apolitikoak” den jarrera baten bidez ekonomia-egiturari elkartuz, betiere produkzio-egitura kapitalistatik at”.

Hortik dator –egoera honen aurreko erreakzio bezala– azkeneko hamarkadetan lege-arauden malgutzee-bidean Kooperatiben Zuzenbidearen arloan gertatu den etengabeko aurrerapena.<sup>17</sup>

Jakina, malgutzee hori doktrina-ikerketaren etengabeko garapenak sortu du. Horretarako, aurretik zeuden legeeko erakundeetan sakondu eta hauen eraginkortasuna zalantzetan ipini da, bi arloetan:

- instituzio horiek izan behar duten legeeko eraginkortasun tekniko alde batetik
- bestaldetik, gizarte-mugimendua den Kooperatibagintzak dituen helburu ideologikoen tresna bezala legeak izan behar duen eraginkortasuna ere.

Sozietateen Zuzenbidea ez da ideologiaren garbitasuna babesteko eremu egokiena; zalantza gabe, bai Kooperatiben Zuzenbideari, bai eta Kooperatibagintza berari ere, kalte nabariak sortu dizkie horrelako jarrerak. Kooperatiben Zuzenbideak, berez, ezin du Kooperatibagintzaren euskarria izan. Batzuetan, Kooperatiba-Elkarteen eratzeak gutxiagotu, ihardun direnen garapena murriztu eta sistema honen izen-galtzea dira Kooperatibak babesteko oraingo lege-araupen estuak dituen ondorio funtsezkoenak.

Zera hartu behar dugu kontutan: Kooperatiba-Elkarteak, hauen iharduera dirauen bitartean, enpresa-errealitatean konpondu behar diren egoera ezberdin askoren aurrean aurkitzen direla. Beraz, legeeko Sozietate-egitura orok enpresa-bizitzan sortzen diren arazo horiek konpontzeko behar den malgutasunaz hornitu behar ditu arautzen dituen enpresak. Irizpide hau kontutan hartuko ez bagenu, errealitatea ahaztu egingo genuke eta, beraz, defenditu nahi dugun sistema etengabe marginatua mantentzea baino ez genuke lortuko.

(Arazo hau argi eta garbi agertzen zaigu Kooperatiben Taldeetan. Taldeen kasuan, enpresa-helburu berdinak dituzten Sozietate-multzoak izanik, Kooperatiba-izaeraren balorapena Sozietate-multzoan aztertu behar da eta ez elkarte bakoitzean banan-banan. Askotan, multzoa osatzen duten zatien helburuak instrumentalak baino ez dira eta sozietate multzoa bere osotasunean aztertuz baino ez da ulertzen talde hauen funtsezko egitura).

Hala ere, Kooperatiben beharrei malgutasun handiz erantzuteko Kooperatiben Zuzenbideak duen behar hori azaldu eta gero, malgutasun horren mugak zeintzuk diren aztertu behar dugu.

---

17. Honen inguruan, ik. 1982ko Kooperatiben Euskal Legeari buruz E. BALLESTEROk (aip., 47) egin zuen gorespena, espainiar Estatuan indarrean zeuden legeen artean “liberalena eta erabilgarriena”tzat hartuz.

Egia esan, ez da erraza arazo hori argitzea. Hasteko, ondoko irizpideok hartu behar ditugu kontutan:

1. Aginte sozialaren banaketa irizpide pertsonalista hutsen bidez zehaztu ahal dezakeen eta erantzukizun mugatua duen sozietate-mota bakarra Kooperatiba-Elkartea da.
2. Kooperatiba-Elkartearen araupenaren malgutze-prozesu horrek bi bide ezberdin hauek jarrai ditzake:

a) Arlo pertsonalistaren barruko malgutzea

Kooperatiba-Elkarteei beren burua arautzeko bide berriak ahalbideratuko lizkieke irtenbide honek, betiere arlo pertsonalistaren barruan. Honen ondorioz, kapital-ekarpenek aginte sozialean partehartze proportzionalik eskuratuko ez luketela ziurtatuko genuke.

b) Arlo kapitalistaren barruko malgutzea.

Kasu honetan, kapital-ekarleei aginte soziala partzialki emateko arauak ezartzeko ahalbideratuko lieke Kooperatibei malgutze honek.

3. Zalantzarik gabe, guztiz komenigarria da Legediak, bere osotasunean ikusirik, orain arte erantzukizun mugatuko abantaila ez duten erdibideko elkarte-mota hauek arautu edo, gutxienez, onartzea.

Orain arte, pertsonalistak edo erdibideko elkarte-mota hauek, ondoko bi irtenbideen artean aukeratu behar izan dute:

a) erantzukizun mugatuko abantailari –gaurko egunean merkatuan iharduteko ia ezinbestekoa den legezko tresna– uko egitea ala

b) horrelako helburuentzako aurrikusita ez dauden beste Legedien –kooperatiba edo kapital-sozietateak– menpe gelditzea

4. Beraz, legediaren ikuspegitik, bere osotasunean ikusita, guztiz komenigarria eta onuragarria da Pertsonalistak bai bainan Kooperatibak ez diren elkarte-mota hauek, nolabaiteko legezko estalpena edukitzea.
5. Hala ere, elkarte-mota hauei eman behar diegun izena aztertzen hasteko unean agertzen zaigu arazo honen gakoa.

Egia da, nahiz eta, muga batzuen barruan, “Kooperatiba-Elkartea” hitza erabiltzea egokia eta onargarria izan, ez dugula ahaztu behar elkarte

pertsonalista eta berdintzaile bezalako kontzepzioarekin guztiz loturik daudela hitz horiek.

Horrexegatik, Kooperatiba-Elkartearen arau-esparrua zabal dadin azkenotan egin diren lege-aldaketak, aipaturiko ideologi esparruan mantentzen badira, guztiz onargarriak dira Kooperatiben Zuzenbidearen logikarentzako.

Hala ere, horrelako irizpideak –eta, batez ere, izaera berdintzailea– apurtzen direnean, “Kooperatiba-Elkartea” hitzak irautea guztiz zalantzarria da, irtenbide honek elkarte-mota honen irudiari ekar lekioken kaltea kontutan hartzen badugu.<sup>18</sup>

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar:

\* “Berdintzaileak ez diren” egitura pertsonalista hauek guztiz beharrezkoak diren legezko tresnak direla, batez ere Kooperatiben Taldeen kasuan, hauek zeharo ezberdinak diren elkarte-egiturak bideratu behar baitituzte aldi berean. Hori bai, multzo osoaren logika berdintzaileari errespetu osoa gordez.

\* Egia da horrelako egiturak legearen bidez arautzeko interesatuenak Kooperatiba-Elkarte eta Taldeak izanik, guztiz latza dela aipaturiko legezko hutsuneari eman beharreko irtenbidea Kooperatiben legeditik at etortzea, Kapital-Sozietateen Legediaren malgutzearen bidez. Hala ere, Legedi Parekatuan horrelako aldaketa ausartak egon badaude. Adibidez, Frantziako Legedian, Kooperatiba-Elkartek berak, jakina denez, Kapital-Sozietateen Legedia erabiltzen du legezko babesa lortzeko asmoz.

Horrelako egiturek eraginkorrago den legezko babesa ez duten bitartean, helburuok bideratzeko Kapital-Sozietateak “pertsonalistak” bihurtzeko dauden Estatutu bidezko baliabideak (eta, oro har, Kapital-Sozietateek “kooperatiba-izaera” hartzeko dituzten baliabide guztiak) erabili beharko dira gehienetan eta, ahal denean, Kooperatiba-Elkarteen egitura malguenak.

---

18. Are gogorrago agertzen zaigu GIRON TENA (aip., 101) ondokoa esanez:

“Espekulazioaren aurkako gizarte-aldaketarako zentzu ideologikoa du Kooperatibagintzak. Elkarte-mota hau edozein motatako enpresa kapitalista bezala lukratiboa den iharduera batean iharduteko gai da... Kooperatiba bazkideen espekulazioaren alde jartzen bada (adibidez, bazkideak enpresariak izanik, hauen enpresa-ihardueraren osagarria bezala), orduan desagertu egiten da Kooperatibaren funts soziala, nahiz eta honen itxurazko garbitasunak iraun. Gauza bera gertatzen da, bazkideetatik at, sozietate-egituraz ari bagara, honek hauekin bakarrik lan egiten ez badu, hirugarrenekin baizik, eta etekinak banatzeko asmoz espekulatzen badu”.

“Bazkide-enpresariak” espresio horretan datza, ziurraski, Nafarroako Legearen 20.2 atalean ezarritako galerazpenaren funtsa, honen arabera “inolaz ere ezingo dira legezko pertsonak bakarrik osaturiko lehen mailako Kooperatibak sortu”.

### **3.2. KOOPERATIBA-ELKARTEAK DUEN BETEKIZUN EKONOMIKOA**

Sozietateak diren gainontzeko enpresari-motak bezala, Kooperatiba-Elkartearen jatorria enpresa-ihardueraren izaera gero eta korapilotsuago izatean datza. Honen ondorioz –ekonomi sektore askotan– enpresari indibidualari gestio korapilotsuari eta gehienetan beharrezkoak diren ekarpenei berez aurre egitea ezinezkoa egiten zaio.

Enpresa-sustapena bideratzeko dagoen sustatzaile-multzo baten beharra ahalbideratzeko, guztiz ezberdinak diren sozietate-egiturak sortzen dira: Kapital-Sozietateak eta Kooperatiba-Elkartea.

Jakina denez, Kapital-Sozietateak bere elkarte-egitura bazkide bakoitzak ekarritako kapitalaren arabera eratzen duen bitartean, Kooperatiba-Elkartek “bazkide bakoitzak botu bana” irizpidearen arabera eratzen du egitura hori.

Jatorrizko irizpide honen ondoren, guztiz ezberdina izan da Kapital-Sozietateek eta Kooperatiba-Elkartek izan duten legezko garapena.

Kapital-sozietateen araupenak, enpresa-ondarea sendotzeko ahalegin handiak egin ditu, ondoko hiru helburu zehatz hauekin:

- Kapitala erakartzea, bereganatzea eta metatzea bultzatzea.
- Kapitalaren egonkortasuna ziurtatzeko asmoz, hirugarrenen aurrean ondare honek adierazten duen bermea ahalik eta sendoena egitea.
- Berme honen ondorioz, bazkideek duten ondare-erantzukizun mugatua –horren funtsezkoa den enpresa-instituzio hori– bideragarria egitea.

Kapital-Sozietateen legezko egiturak helburu hauek ahalbideratzeko izan duen eraginkortasuna nabaria izan da. Zalantzarik gabe, hori izan da kapitalista den merkatu-ekonomiaren garapenerako legezko egitura egokiena izateko Kapital-Sozietateak gaitu dituen arrazoia.

Bestaldetik, Kooperatiba-Elkartea langileen (edo nekazari edo kontsumitzaileen) behar bat bezala sortu zen. Nahiz eta hauen asmoa Kooperatiba-izaerako elkarteak eratzea izan, beste motatako elkarte-egiturak –merkatalak, zibilak edo eta “elkarte hutsak”– erabili behar izan zituzten hasieran, erantzukizun mugatua lortu nahi bazuten.

Langile-multzo hauen esperientziak argi erakutsi zuen Kooperatiben helburuak zituzten Kapital-Sozietateak erabiltzea guztiz korapilotsua zela eta, bestaldetik, sozialki ezegonkorra, Kooperatiba-itxurazko Kapital-Sozietateen

egiturek, epe ertainean, kapitalista den antolakuntza baterantz bultza baitezakete enpresa. GIRON TENAk<sup>19</sup> zioen moduan, “nabaria da Kooperatibagintzaren ekonomia eta gizarte-arloko egitura eskakizunei Elkar-te-mota hauen egokitasunik eza. Horrexegatik egiten da nabaria Elkar-te-egitura berri bat sortzeko beharra”.

XIX. mende osoan eta XX.aren lehenengo hamarkadetan, Kooperatibagintzatik hurbil zeuden lagun-multzoen ahaleginen helburu funtsezkoak ondokoak izan ziren:

- Legediak Kooperatibentzako berarizko lege-egiturak sortzea, eta
- bereziki, Kooperatiba-Elkar-te Sozietate-mota berri hori arautzea.

Bazkideen ondarezko erantzukizun mugagabea eta ezaugarri pertsonalistak zituzten lehenengo Kooperatiba-Elkar-teen bidez helburu hori lortu eta gero, oso bide ezberdinak jarraitu dituzte Kooperatiba-Elkar-teen eta Kapital-Sozietateen garapenek.

Izan ere, nahiz eta Kooperatiba-Elkar-teek bazkideentzako ondarezko erantzukizun mugatua lortu, ez dute hirugarrenen aurreko bermea sendotu, ez eta kapital-metapena ahalbideratzen duten egitura-osagaien bidez erantzukizun mugatu hori konpentsatu ere.

Hala ere, doktrinaren aurrerapenak garrantzitsuak izan dira Kooperatiba-Elkar-tearen antolakuntzan, eta baita garrantzi handikoak diren beste egitura-osagaietan ere. Azkeneko hauen artean, Administrazioaren babesetik Kooperatibek duten gero eta berjabetasun handiagoa azpimarra dezakegu, gai honek berebiziko interesa izanik azkeneko hamarkadetakoa Zuzenbide Espainiarrean.

### **3.3. KOOPERATIBA-ELKARTEAREN KONTZEPTUA**

Hasteko, Parekaturiko Zuzenbidearen ikuspegitik aztertu behar dugu Kooperatiba-Elkar-tearen kontzeptua.

Izan ere, Parekaturiko Zuzenbidean “Kooperatibak” duen zuzenbide-izaera legezko instituzio ezberdinen bidez gauzatzen da, hauen lotura faktore ideologikoetan oinarritzen delarik, juridikoetan baino gehiago.

Gai honi buruz topatzen ditugun jarrera funtsezkoak ondoko hirurok dira:

---

19. GIRON TENA: “Derecho de Sociedades”, aip., 98.

1. 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legea edo 1996ko Nafarroako Legearena. Legedi hauetan gainontzeko Elkarte-motetatik guztiz ezberdina den eta ezaugarri bereziak dituen Elkarte-mota bezala ikusten da Kooperatiba-Elkartea.<sup>20</sup>
2. Frantziakoa eta honen antzekoak diren Legediena.

Legedi hauetan, Kooperatibek ez dute berarizko elkarte-mota bat eratzen eta, alderantziz, Kapital-Sozietateen mota ezberdinak –anonimoak edo mugatuak– (baita sozietate zibila edo elkarte hutsa ere) erabiltzen dituzte, beren enpresa-iharduera bideratzeko asmoz.

3. Kooperatiba-Elkartea zehazki definitu gabe, Kooperatibak sortzeko “kooperatiba-izaera duten Kapital-Sozietateak” eratzeko –Estatutuen arau berezien bitartez– behartuta dauden Legediena.

Zein da, beraz, Kooperatiba-Elkartearen funtsezko oinarria?

Ikus dezagun honi buruz Kooperatiben Legediak adierazten duena. 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen 1. atalaren 1. azpiatala kontutan hartzen badugu, ondoko zehaztapen hau aurkitzen dugu:

“Lehen helburutzat kideen ekonomi eta gizarte-iharduerak sustatzea eta, kideen partehartze zuzenaren bidez, beren beharrianak betetzea duen enpresa garatzen duen elkarte da kooperatiba, betiere, kooperatiba-zaletasunaren oinarriak bete eta bere inguruko gizarteari kasu egiten diolarik”.

Azpiatal honen edukiaz –1982ko Kooperatiben Legearen 1. atala, horren aurrekoa dena baino askoz eduki kontzeptualagoa duena– ondoko ohar hauek eman ditzakegu:

1. Kooperatiba-Elkartea sozietatea izatea ere zalantzan ipini dezakegu, horren helburua –aipaturiko 1. azpiatalean esaten denez– ekonomia- nahiz gizarte-arlokoa izan baitaiteke. Beraz, “Kooperatiba-Elkartea” esandako horren kontzeptuaren barruan, bai “sozietateak” bai eta “elkarte hutsak” ere sar ditzakegu.
2. Enpresa-iharduera garatzea Merkatal Sozietateen mota guztien ezaugarria da.

---

20. Hortaz, SANZ JARQUEK (“Cooperación...”, aip., 83) horrela definitzen ditu Kooperatibak: “sozietate- eta enpresa-izaera duten elkarteak, tipikoak, pribatuak, autonomoak eta onura publikoa dutenak, berezko kooperatiba-izaera dutenak eta berarizko Legedi berezien bidez arautzen direnak”.

3. “Kideen ekonomia eta gizarte-iharduerak sustatzea eta... beren beharrianak betetzea” Sozietate-mota guztien ezaugarri orokorra da.<sup>21</sup>
4. “Bere inguruko gizarteari kasu egiten diolarik” esaldi hori, “Heziketa eta Kooperatiba-Sustapeneko Fondoa”, banaezina den “Derrigorrezko Erreserba-Fondo” eta ihardueran parte hartzen duten gehienekin jabetza banatu beharrezkin lotuta dago. Baieztapen hau, interesgarria izanik, ez da nahikoa zehaztapen horren oinarria izateko, Elkarte-mota guztietan antzeko irizpideak (derrigorrezko erreserbak, zergak, etab.) –nahiz eta berdinak ez izan– egon badaudelako.<sup>22</sup>

Ikusi behar dugunez, aipaturiko azpiataleko benetan adierazgarriak diren irizpideak, kideen “partehartze zuzena” eta “kooperatiba-zaletasunaren oinarriak” betebeharra azpimarratzen dituztenak dira.<sup>23</sup>

\* NAFARROAKO LEGEAREN KOOPERATIBA-ELKARTEAREN  
KONTZEPTUA

1989ko Nafarroako Kooperatiben Legearen 2. artikuluan, Estatuko Legedien betiko irizpidea –Euskadiko Autonomi Elkartean 1993ko Legeak aldatu-  
mantendu egiten zen, Kooperatiba-Elkartearen kontzeptuaren barruan  
“kooperatiben oinarri-irizpideak”<sup>24</sup> sartuz, ondoko modu honetan:

“2. Artikulua. Kontzeptu eta ezaugarriak.

Bere antolakuntza eta ihardueran Foru-Lege honi egokitzuz, beren kide eta gizartearen aldeko edozein motatako ekonomi eta gizarte-iharduera –bateango enpresa gisa– garatzen duten sozietateak dira Kooperatibak, ondoko oinarri-irizpideen arabera:

21. Hala ere, irizpide hau oso erabilia izan da Kooperatibak “zerbitzu-enpresak” bezala zehazteko. Ik. C. NAZZARO - G. PATERNOSTER: “Le società cooperative”, Milano, 1985, 5.

22. S. GOÑI (“Zuzenbidea eta enpresa”, Donostia, 1984, 119-120) 1974eko Legean eta 1978ko Araudian oinarrituriko zehaztapena ematen digu, zazpi oinarri-irizpideen arabera egituraturik.

23. S. GOÑIK (aip., 119) esan zenez, “Funtsean, irabaziriko asmoa duten beste merkatal elkarteetatik bereizturik, Kooperatibak elkarkideen arteko laguntzarako eta elkarlanerako sortzen dira”.

24. Kooperatiben zehaztapena oinarri-irizpideen zerrenda batean oinarritzeko teknika honi buruz, 1974eko Lege Orokorrek ere erabilita, GIRON TENAREN (aip., 104) iritziz “Kooperatiben oinarri-irizpideei definizio-izaera egotzen diela ematen du. Horrela, alde batetik, zehaztapenak egiteko baliogarri ez den legezko baliabide bat –oinarri-irizpideak– erabiltzen du eta, bestaldetik, zehaztapen hori bera moteldu egiten du”.

Irizpide honen aurka, VICENT CHULIAK (“Compendio Crítico de Derecho Mercantil, T. I, vol. II, Barcelona, 1991, 1019) 1987ko Lege Orokorrean oinarri-irizpideen zerrenda eta zehaztapenik ez egotea “etsitze ulertezintzat” hartzen du. Zehaztapen-mota honen alde agertzen zen J.L. DEL ARCO ere (“Kooperatiben oinarri-irizpideak Kooperatiben Lege Orokorrean”, Estudios Cooperativos, 35, 37 eta 38 zenb., Madrid, 1976, 28).



1. Kooperatibaren burujabetasuna eta demokrazi arauzko kudeaketa eta zaingoa.
2. Bazkideak sartzeko eta borondatez ateratzeko askatasuna.
3. Bazkide-kopuruaren eta kapital sozialaren aldakortasuna.
4. Bazkide guztiek duten botu-eskubidearen berdintasuna.
5. Ordaindutako kapital sozialean egindako ekarpenengatik bazkideek kobratu dezaketen interesa mugatua izatea.
6. Kooperatiben erretorno bezala atxikitako etekinak, Elkarte-ihardueran bazkide bakoitzak duen partehartzearen arabera banatzea.
7. Kooperatibagintzaren demokraziaren arauzko oinarri-irizpideetan hezitzea eta batik bat ekonomi eta lanbidezko tekniketan gaitzea.
8. Kooperatibarteko harremanetan, guztien zuduekiko zerbitzupideak hobetzeko "Baterakuntza edo Federalismoa".

Bestaldetik, 1996ko Foru-Legean testua askoz argiagoa da:

"2. Artikulua. Kontzeptu eta ezaugarriak.

Bere antolakuntza eta ihardueran *Kooperatiben Nazioarteko Elkarteak* zehazturiko oinarri-irizpideei egokitzuz, *Foru-Lege* honek ezarritakoaren arabera, beren kide eta gizartearen aldeko edozein motatako ekonomi eta gizarte-iharduera –bateango enpresa gisa– garatzen duten sozietateak dira Kooperatibak".

"Bateango enpresa" espresioaren esanahia argitzea ez da erraza; "ihardueran parte hartzen dutenak, aldi berean, bazkide izatea" bezala uler ditzakegu, agian, hitz horiek. Kooperatiba-Elkartearen kontzeptu zehatzera hurbiltzeko interesgarria izan daiteke, bai aipaturiko esaldi hori, bai eta "demokrazia-arauzko kudeaketa eta zaingoa" kontzeptua ere. Azkeneko hau Kooperatiba-Elkarteak duen izaera pertsonalista eta berdintzaileari dago lotuta, "bazkide guztiek duten botu eskubidearen berdintasunarekin" zehazturik.

Ordea, zenbait legetan aipaturiko "burujabetasuna" edo "autonomia" kontzeptua ez dago horren argi. Ikusiko dugunez, kontzeptu hori Kooperatiben Taldeak eratzeko oztopo garrantzitsua izan daiteke.

Bazkide-kopuru aldakorra Elkarte-mota guztien ezaugarria izan daiteke eta kapitalaren izaera aldakorra –interesaren mugapena bezala<sup>25</sup>– bigarren mailako faktore teknikoa baino ez da.<sup>26</sup>

“Kooperatiben erretorno gisa atxikitako etekinak, elkarte-ihardueran bazkide bakoitzak duen partehartzearen arabera banatzea” azpiatalak ere Kooperatiben izaera pertsonalista adierazten du.

Ikusi dugunez, Kooperatibak zehazteko asmoz 1989ko Nafarroako Legeak erabiltzen zuen irizpidea konplexu xamarra zen, baina 199ko oraingo Foru-Legearena baino zehatzagoa, Kooperatiba-Elkartea pertsonalista eta “berdintzailea” den Sozietate bezala definitzen ahalbideratzen diguten kontzeptuak oinarri-irizpideen zerrendan ezarriz.

\* KOOPERATIBA-ELKARTEAREN KONTZEPTUA FRANTZIAR LEGEDIAN

Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorren 1. atalak, bere aldetik, Kooperatiba-Elkarteen ondoko zehaztapena dakarkigu:

*“1. Atala. Kooperatibak jarraian azaltzen diren funtsezko helburuak dituzten Sozietateak dira:*

*1. Beren kideen onuragatik eta hauen bateango ahaleginaz, produktu edo zerbitzu zehatz batzuk duten erosteko –eta, hala balegokio, saltzeko– salneurria murriztea, kostuak handituko lituzketen kontratista edo bitartekarien lekua beregain hartuz.*

*2. Beren kideei hornitutako erosgaien eta hauek saldutako eta kontsumitzaileei zuzenduriko salgaien merkatal kalitatea hobetzea.*

*3. Eta, orokorrean, beren kideen beharrak asetu eta hauen ekonomi eta gizarte-iharduerak sustatzeko lagungarri izatea.*

*Kooperatibek giza-ihardueraren edozein adarretan gauzatu ahal izango dute beren iharduera”.*

Ikusi dugunez, Kooperatiben helburuetan oinarritzen da zehazpen hau. Zehazpen hau laburtu nahi izatekotan, 3. azpiatalean agertzen den “beren kideen...

25. Ik. J. SALABERRIA: “El régimen económico-financiero de las Cooperativas de Trabajo Asociado”, Gasteiz, 1995, 44-53.

26. Hala ere, doktrinan askotan agertzen diren kontzeptuekin bat etorritz, J. LLUIS Y NAVASEK (“Estudios Cooperativos”, 36, 37 eta 38 zenb., Madrid, 1976, 85) horrela zehazten du Kooperatiba: “Elkartek duen ekonomia-xedea bideratzen duten iharduerak bere bazkideekin egitea helburutzat duen eta, beren arau eta Estatutuak aldatu gabe, kapitala eta bazkideak aldatzeko gai den sozietate-mota”.

ekonomi eta gizarte-iharduerak sustatzeko lagungarri izatea” erabil dezakegu, iharduera horiek beren kideei ondasun edo zerbitzuak hornitzeari nahiz haiek sortutakoak saltzeari baitagozkie.

Europako zenbait Legedik duen testu hau apur bat iluna gerta daiteke, Elkartearen Zuzenbidearen barruan Kooperatiba-Elkartea kokatzeko orduan. Egia esan, Kooperatiba-Elkartearen helburua bazkideen erosgai edo salgaien salneurri edo baldintzak hobetzean datzala aipatuz, Elkarte-mota hau taiutzeko oinarrizko giltzarria ematen digu Legediak. Beste modu batez esanda, hornitzaile, bezero nahiz langileak izanik, lan-ekarle edo kooperatzaileak direnei bazkide-izaera aitortzen dien Elkarte-mota baten aurrean gaude. Ikusiko dugunez, Kooperatiba-Elkartea Sozietate Pertsonalista bezala zehaztuz, Elkarte-mota hau berarizko arau-arloan kokatzen ahalbidetzen digun lehenengoetariko lege-giltzarria dugu hau.

\* KOOPERATIBA-ELKARTEAREN KONTZEPTUA EUROPAKO  
ARAUDIAREN PROPOSAMENEAN

Europako Kooperatiben Araudiaren Proposamenaren 1. atalak irizpide zabal batez zehazten du EKEn (Europako Kooperatiba-Elkartea) izaera, ondoko moduan:

*“1. Atala. E.K.E.ren izaera.*

*1. Araudi honetan aurrikusitako mota eta baldintzen arabera, Europako Kooperatiba-Elkartea (EKE) izenaz, Europako erkidego osoan eratu ahal izango dira Kooperatiba-Elkartek.*

*2. Kapitala partehartzeetan zatituta izango duen Sozietatea izango da EKE.*

*3. Beren bazkideen beharrak asetu edota hauen ekonomi edota gizarte-iharduerak sustatzea izango du helburu funtsezkotzat EKEk.*

*4. EKEn bazkide-kopurua eta kapitala aldakorrak izango dira.*

*5. Bazkide bakoitza Izenpetu duen kapitalaren mugaraino behartuta geldituko da. Estatutuek erantzukizuna zabaldu ahal izango dute, izenpeturiko kapitalaren “multiplo” bateraino edo haiek zehazten duten bestelako zenbatekoraino. EKE eratzen den momentuan, EKEn aurrean bazkideek duten erantzukizun mugagabea ere zehaztu ahal izango da Estatutuetan.*

*6. EKEk ezingo du onartu bazkideak ez diren hirugarrenak beren ihardueraz baliatzea edo beren eragiketetan parte hartzea, Estatutuek besterik arautzen ez badute.*

*7. EKEk legezko nortasuna izango du. 5. atalaren 3. azpiatalaren arabera zehazten den helbidearen Estatuaren Erroldan egin behar den erroldatzearen egun berean bereganatuko da nortasun hori.*

*8. Legezko nortasun hori bereganatu baino lehenago eratze-bidean dagoen EKE baten izenean gauzaten badira iharduerak eta EKEk ez baditu hauen ondoriozko betebeharrak bere gain hartzen, iharduera horiek gauzatu dituzten pertsonak izango dira erantzule –honen aurkako araurik ez balego–, denak batera eta muga gabe”.*

Azpiatal hauen artean, 3 eta 6 zenbakiak dira, nahiz eta zehaztasun handirik gabe, EKE Elkarre Pertsonalistatzat –eta mutualismorako joera duena– zehazteko aukera ematen dutenak, gaiok legezko nortasuna eta bazkideek duten erantzukizun mugatua (5 eta 7 zenbakiak) argitzen dituzten zehazpen argieiz osaturik.

Orain arte aipatu ditugun lege-testuak alde batera utziz, testu horiei eta gizarte errealitateari ere dagokien Kooperatiba-Elkarrearen zehazpena eratu nahi baldin badugu, ondoko irizpideetatik abiatu beharko dugu:

#### 1. Kooperatiba-Elkarrea ez da Kapital-Sozietatea.

“Kapital-bazkideak” egoteko debeku zehatza (Nafarroako Foru Legearen 20.3. atala) edo Batzar Orokorrean hauen botua emateko eskubidearen mugapen onorioa da hau (%20 “bazkideak” 1989ko Foru-Legearen 29.3 artikuluan –eta 1/5 testu berriaren 30. artikuluan agertzen diren bazkide laguntzaileek–, %35 bazkide diru-ekarleek Frantziako Araudi Orokorren 3.bis artikuluan, %49 Bitariko Kooperatibetan eta 1/3, orokorrean, bazkide laguntzaileek Euskadiko Kooperatiben Legean).

Halaber, mugatu edo debekatu egiten da botua emateko eskubidea bazkideek ekarritako kapitalaren arabera arautzea. Euskadiko Kooperatiben Legean, 35. artikuluan zehazturiko heinezko irizpideek izaera pertsonalista dute (Bitariko Kooperatibetan izan ezik), Nafarroako Foru-Legearen 35.2 artikuluan eta Frantziako Araudi Orokorrean gertatzen den moduan.

2. Aginte soziala bazkideen artean oreka-irizpidearen arabera banatzea da Kooperatiba-Elkarrean mota guztien ezaugarria; oreka hori, “bazkide bakoitzak botu bana” irizpidez gidaturikoa izanik, “kooperatiben oinarri-irizpideen” ondorioz edo, Nafarroako 1989ko Foru-Legeak ondo adierazten zuenez, “bazkide guztiek duten botua emateko eskubidearen berdintasuna”.
3. “Industri edo lan-ekarpenen” arabera eratzen da Kooperatiba-Elkarrea, lan hori “menpeko lana”, zerbitzu, enpresa-elkarlaguntza, etab. izanik. Irizpide hori Legedi guztiek onartzen dute, Kooperatiba-Elkarrean bazkideek izan behar duten “partehartze eginkorrari” egiten zaion aipamenaren bitartez.

Gai honetan, “zerbitzuak bazkideei bakarrik –edo, gutxienez, bazkideei bereziki– ematearen” kontzeptu mutualista erabiltzen du askotan legezko doktrinak; horrela, zeharkako bidea hartzen da Kooperatiba-Elkartearen funtsa adierazteko, funts hori bazkide izaera lan-ekarleei edo kooperatzaileei egozteaz izanik.

Hortik dator GIRON TENAren<sup>27</sup> zehazpena: “Sozietate honen ezaugarri berezia, helburuan –elkartearen xedean dagoen bazkideei zerbitzuak emateko helburua– eta helburu honen ondorioan –bazkideekiko zerbitzu eta eragiketa-harreman hori elkarre-egituran ezartzea– datza”.

4. “Korporazio” izaera duen elkarre-mota dugu Kooperatiba-Elkartea. GIRON TENAri jarraituz, “bazkideen balizko aldatetak kontutan hartuz eraten da honen egitura”, “Gehiengoaren arabera aldagarriak dute Araudi edo Estatutuek –ez kontratua– izan behar dira beren funtsezko legea”, “gehiengoaren arabera eta ez ahobatez eraten da honen gobernu”, erroldatzeak duen izaera sortzailea, etab., dira “korporazio-izaera” honen oinarriak. Hori dena, erantzukizun mugatua<sup>28</sup> eta bazkide-kopuru zabala izanik, antolakuntza eta ondarezko araupen hertsia baten menpe gelditu behar baitute.

Kooperatiben gizarte-errealitatean, aipatutakoak dira, zalantza gabe, Kooperatiba-Elkarteen mota guztiak batera taituzten ahalbideratzen duten oinarrizko ezaugarriak. Ezaugarriok, bestaldekik, ondoko hiruretan labur ditzakegu:

\* Sozietate Pertsonalista, aginte soziala egozteko irizpideen arabera.

\* “Korporazio-izaera” duen Sozietatea, antolakuntza eta erantzukizun jaurpidearen arabera.

\* Joera “berdintzailea” duen Sozietatea.

### **3.4. ELKARTE HUTSA ALA SOZIETATEA**

1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen 1. atalak aipatzen duenez, Kooperatiba-Elkartearen helburua “ekonomia- edo gizarte-arlokoa” izan daiteke (ik., zentzu berean, Nafarroako Kooperatiben Foru-Legearen 2. atala). Bere aldetik, Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorren 1. atalaren Hirugarren azpiatalak Kooperatiben helburuen artean “beren kideen... ekonomia-

---

27. GIRON TENA: “Derecho de Sociedades”, T.I., aip., 104.

28. Gizarte errealitateaz ari gara. Legedien arabera, badago erantzukizun mugagabea duten Kooperatiba Elkarreak sortzeko aukera, baina errealitatean aurkitzen ez den aukera dugu hau, honen malgutasun falta dela eta.

eta gizarte-iharduerak sustatzeko lagungarri izatea” kokatzen du. Ikusi dugunez, aipaturiko hiru Legedi horiek “Kooperatiba-Sozietatea” espresioa erabiltzen dute. Hala ere, gaurko doktrinaren arabera, ekonomi arlokoak ez diren elkarte-helburuak dituzten Kooperatiba-Elkarteak izatea posible izanik, zalantzan jarri daiteke Sozietate baten aurrean baino gehiago Bazkun edo Elkarte huts baten aurrean gauden<sup>29</sup> (iritzi honen aurka, Alemaniako Kooperatiben Legearen 1. atalak ekonomi arlora mugatzen du Kooperatiben iharduera). Horren arabera, Kooperatiba-Elkartea benetako Sozietatea izan daitekeela pentsatu behar dugu baina, batzuetan, Elkarte hutsa ere izan daiteke, baieztapen hau bere esanahi kontzeptualean ulerturik.<sup>30</sup>

Hala ere, nahiz eta dagokion Legediak argi eta garbi horrela ez esan, Merkatal Sozietate orok ekonomi arlokoak ez diren helburuak ere garatzeko erabiliak izan daitezke –eta izan ohi dira–. Hala eta guztiz ere, horrelako egoerak askoz ugariago dira Kooperatiba-Elkarteen kasuan, aginte sozialaren banaketa “pertsonalista” horren ondorioz, askoz errazagoa gertatzen baitzaie kultura-, kirol- edo/eta hezkuntza-arloko ekonomi arlokoak ez diren eta “Elkarte hutsa” izaera duten helburuak bideratzea.<sup>31</sup>

Hauxe da, ziurraski, Kooperatiben helburuak izaera “soziala” izateko aukera Kooperatiba-Elkartearen kontzeptuan bertan agertarazteko legegilea bultzatu duen zioa.

Hori dena Kooperatiben kasuan etekinak banatzeko helburua dagoela kontutan hartu gabe. Ez dugu ahaztu behar, bai Kontularitza arloko etekinek bai eta ekarpen pertsonalistak lortzen dituen ordainsariek ere osatzen dutela osoko etekin hori.

### **3.5. SOZIJETATE ZIBILA ALA MERKATAL SOZIJETATEA**

Ondo dakigunez, Kooperatiba-Elkarteak merkatal enpresariak diren ala ez aztertzeo momentuan, oso iritzi ezberdinak ditugu.

---

29. SANZ JARQUERen iritiz (“Cooperación...”, aip., 81) Kooperatibak “ez dira ez Sozietate zibilak ez merkatalak, beren helburu funtsezkoa ez baita ekarrirako kapitalaren arabera bana daitezkeen etekinak lortzea”.

30. VICENT CHULIA (“Compendio crítico...”, aip.) Kooperatibaren sozietate-izaeraren aurka agertzen da erabat, “irabazteko asmo-eza”, izaera mutualista, ondarezko egitura eta bazkideen eskubideen ondorioz.

31. J. LLUIS Y NAVASen iritiz (“Estudios cooperativos”, 36, 37 eta 38 zenb., 87) Kooperatibak “beren legezko araupenaren arabera ‘sui generis’ diren erakundeak dira. Hau da, ez dira –lege-araupenaren arabera– gainontzeo elkarte-motekin nahastzen eta, beraz, ezin zaie Mutuen, Sozietate Zibilen, merkatalen eta abarren araupena egotzi, Ordezko Zuzenbidea bezala. Kooperatibagintzara zabaldu daitezkeen Zuzenbide arloko oinarri-irizpideren bat adierazten duenean baino ezin diegu erakunde hauen berarizko Legedia Kooperatibei egotzi”.

Honi buruz, Merkatal Kodearen 124. atalaren arabera “Produkzio-, mailegu-edo kontsumo-arloko Kooperatibak, mutua-izaerari arrotzak zaizkion merkatal ekintzetan aritzen direnean baino ez dira izango merkatal arlokoak eta, beraz, Kode honen arauak orduan bakarrik egotziko zaizkie”.

Irizpide honen arrazoiak guztiz argiak dira. Merkatal Zuzenbidearen funtsa “merkatu-ekonomia” izanik, eragiketak beren bazkideekin eginez merkatuan lehian zuzenki aritzen ez diren Kooperatibak, ezin ditugu Merkatal Sozietateak hartu (hala eta guztiz ere, nire ustez, mutua-izaera hutsa duten Kooperatiba hauek ere, merkatuan ari dira lehian, nahiz eta zeharkako moduan).

Irizpide honen arabera:

- a) Lankide-Kooperatibak beti izango dira merkatal arlokoak, beren produkzioa merkatura bideratzen baitute beti.
- b) Gainontzeko Kooperatiba-motak, bazkide ez diren hirugarrenekin merkatal eragiketak egiten dituztenean baino ez dira Merkatal Sozietateak izango.

Hala ere, nahiz eta, doktrina-ikuspegitik, irizpide hori guztiz logikoa izan, Legediak “Merkatal Sozietateen” kontzeptutik at utzi ohi ditu Kooperatiba-Elkartek.<sup>32</sup>

Aitzitik, Kooperatiben ihardueraren enpresa-izaerarekin bat datorren merkatal izaera azpimarratzeko joera nabaria du<sup>33</sup> Kooperatiben gaurko doktrina berrienak (M. VERGEZ, J. DIVAR).<sup>34</sup>

Merkatal helburua Kooperatiba gehienek ezaugarria izanik, helburu zibila –edo eta ekonomia-arlokoa ez den elkarte-helburu hutsa– duten Kooperatibak ere badaude. Horietaz aurrerago arduratuko gara.

Hala ere, Kooperatiba-Elkartea beraren zehazpena emateko orduan, beste Merkatal Sozietateekin erabiltzen den ohiko irizpidea guztiz baliogarria izan dakiguke. Honen arabera, merkatal itxura eta merkatal helburua ezberdinduz, Kooperatiba-Elkartea Merkatal Sozietateak har dezakegu, nahiz eta Kooperatiba-

---

32. J. DIVARen iritziz (“La metamorfosis del capital”, aip., 58) Kooperatiba “Merkatal Sozietatea da... Kapital-Sozietate (anonimoa zein mugatua) batek zehazki duen hedapen tekniko berdina”.

33. GIRON TENAREN iritziz (aip., 106) “Kooperatibaren iharduera enpresa-iharduera da, hau da, bere egitekoan enpresariaren ihardueraren ezaugarriak, bai erreferentzia bai eta ihardunbide bezala ere, hartzen ditu. Merkatuarekiko bere harremanetan, beste enpresariak bezala jokatzeko pertsona horrek”.

34. Merkatal izaeraren aurka, orduan indarrean zegoen legediaren mutua izaerako oinarri-irizpidean oinarrituz, ik. M. DE LA CAMARA (“Estudios de Derecho Mercantil”, I, 1, Madrid, 1977, 260 eta urr.).

-Elkartearen itxura merkatal izaera ez duten helburuak jorratzeko ere baliogarria izan.<sup>35</sup>

### **3.6. ZIBILAK DIREN KOOPERATIBA-ELKARTEAK**

Ba al daude helburu zibila izanik Zibilak diren Kooperatibak? Galdera honi eman beharreko erantzunak baikorra izan behar duela dirudi.

Izan ere, Kooperatiba Zibilak esanik, merkatuan zuzenki parte hartu gabe bazkideen onura ekonomikoa eskuratzeko helburua duten Kooperatibak adierazi nahi ditugu.

Funtsean helburu zibila dutela ematen duten Kooperatiba-motak ere badaude, hauen artean etxebizitzaren kooperatibak, nekazaritzakoak, bigarren mailakoak,<sup>36</sup> bateratzekoak, etab.

Ikuspegi honetatik, Kooperatiba-mota hauek guztiak dituzten oinarrizko arazoak antzekoak dira; merkatal izaera duten beste motatako iharduerentzako asmatu-lege-araupen estuegi baten menpean dauden iharduera zibilak dira.

Dakigunez, beren iharduera merkatuan zuzenki eta erantzukizun mugatuko arauen bitartez (Sozietate Anonimoak, Mugatuak edo Kooperatibak) burutzen duten elkarte-enpresariak (doktrinak –GIRON TENA– “korporazioak” izendaturikoen bitartez) arautzen ditu Sozietateen Zuzenbideak. Jaurpideok zehatz eta estuak dira, eta erakundearen antolakuntza eta ondare-egitura xehetasun handiz eta nahitaezko moduan zehazten dira, enpresarekin harremanetan sartzen diren hirugarrenei (hartzekodunak, bezeroak, langileak) funtsezko bermeak eman nahi baitzkie.

Aitzitik, gainontzeko sozietate-motak (Pertsonalistak diren Merkatal Sozietateak eta Sozietate Zibilak), erantzukizun mugatuko onurari uko eginez, arauzko malgutasun handiagoa edukitzeko gai dira. Hortik dator, Sozietate-mota hauetan, lege-arau gehienek aukerazko izaera eta Sozietatearen Estatutuen ordezkotza izaera ere izatea.

Helburu zibila duten Kooperatiba-Elkarteen arazo funtsezkoa, ondoko aukerabion artean aukeratu behar izatea da:

---

35. GIRON TENA (aip., 113) “itxurazko merkataria-aren” kontzeptua aipatzen zuen, Kooperatiben kasuan erabiltzeko asmoz.

36. SANZ JARQUE (aip., 69) “Cooperación...”, aip., 69) “Bigarren Mailako Kooperatibak ez direla benetako Kooperatibak -berjabeak diren erakundeak bezala- esan dezakegu, lehenengo mailako Kooperatiben enpresa-eginbideak hobeto burutzeko asmoz bertan bateratu diren lehenengo mailako Kooperatibak eurak baino ez izanik. Lehenengo Mailako Kooperatiben elkarte- eta enpresa-arloko hedapena baino ez dira”.



a) Kooperatiba-Elkarteen araupena, erantzukizun mugatuko erakundeentzako aurrikusita izanik, estuegi dena eta “korporazio” izaera duena.

b) Sozietate Zibilen araupen orokorra, bazkideen arteko itunen bidez konpondu ezin diren hutsune nabariak dituen, Kooperatiben ikuspegitik.

Zein dira hutsune hauek?

Hasteko, lan-bazkide edo langile-bazkideen berarizko araupena. Sozietate Zibil batean, Kooperatiben Legediaren babesik gabe, Lan-Zuzenbidearen arau orokorren pean gelditu beharko litzateke lan-egitura hori eta, beraz, bideraezina izango litzaziguke lankide-bazkideen ohiko araupena ezartzea.

Nahiz eta Sozietate Zibilak Kooperatiba-izaera duten irizpideen arabera arautu, zerga-araudien ikuspuntutik Sozietate Zibilak eta Kooperatiba-Elkarteen artean dauden ezberdintasun nabarian datza bigarren hutsunea.

Azkenik, zalantzak sor daitezke “derrigorrezko ekarpenaren” kontzeptua –Kooperatiben Legedian aurrikusita eta interes handikoa dena– ahalbideratzeko behar diren arauak Sozietate Zibil batean ezartzeko bideragarritasunaz.

Horiek denak, helburu zibila izango lukeen Kooperatiba-Elkartearen kontzeptua legez arautzeko –bertan lege-araupena borondatezkoa edo aukerazkoa izanik– egokitasuna adieraziko luke.

Hauxe da, ziurraski, Bigarren Mailako Kooperatibak eta Kooperatiba-Korporazio edo Bazkunen lege-araupenak duen malgutasuna ziurtatzeko euskal legegileari bultzatu dion arrazoa. Kontutan hartu behar dugu Kooperatiba hauen elkarte-helburua, bazkideen arteko elkarlaguntzara zuzendurik, ez dela zuzenki merkatuan aritzen.

Agertutako arazo hau, legegileak har ditzakeen honako neurri hauen bidez konponduko litzateke agian:

a) “Kooperatibak diren Sozietate Zibilak” elkarte-mota Kooperatiben Legediak onartzea

b) Sozietate-mota hori “Erantzukizun mugatuko onura gabeko Kooperatiba-Elkartek” bezala arautzea.

c) Honen ordeaz, autorregulazio- edo bereskuko arauketa-ahalmen handiena onartuko litzazieke elkarte hauei, Kooperatiben Legedia aukerazko eta

ordezko<sup>37</sup> izaeraz ezarritz. Nahi izatekotan, botu-eskubidea Batzar Orokorrean egozteko arauak nahitaezkoak izan daitezke, eraturiko Sozietate Zibilaren “Kooperatiba-izaera” ziurtatzeko asmoz.

Lege-tresna hauek baliagarriak izan daitezke, ez bakarrik Kooperatibak diren Sozietate Zibilak eratzeko asmoz, baizik eta erantzukizun mugagabeko merkatal helburua duten Kooperatiba-Elkarteen eraketa malgutzeko ere. Jakina, azkeneko hau ez da lehen aipaturiko kasua bezain garrantzitsua. Gehienetan, merkatal iharduera bat sortarazten duten ekonomigileei askoz garrantzitsuago baitzaie erantzukizun mugatuko onura eskuratzea. Hala ere, aipaturiko araupen hori oso interesgarria izan daiteke enpresen arteko elkarlaguntza bideratzeko sortzen diren erakundeen kasuan: Interes Ekonomikoko Elkarketak (Agrupazioak) merkatal arloan alde batetik eta enpresarien Zerbitzu-Kooperatibak, Bigarren Mailako Kooperatibak eta Korporazio-Kooperatibak arlo kooperatiboan bestetik.

### **3.7. KOOPERATIBA-ELKARTEAK SOZIETATE PERTSONALISTAK BEZALA**

Orain arte esandakoa kontutan hartuz, Kooperatiba-Elkarteen eta Sozietate Pertsonalisten artean dagoen harreman estuaren ondorioa ateratzen da. Hala ere, ziurtasun osoz esan dezakegu Kooperatiba-Elkartek Sozietate Pertsonalistak direla?

Tamalez, galdera honi eman beharreko erantzuna ezin daiteke guztiz ziurra izan, Sozietate Pertsonalisten kontzeptua bera ere ez baita guztiz argia. Argitasun-ezaren jatorria, merkatal arloko legelarien ohiko jarreraren datza.

Egiaz, Sozietate Pertsonalistak zehazteko orduan, Sozietate hauen izaeraz baino gehiago, Kapital-Sozietateak duten kontrako izaeraz –merkatal Legedian arautzen diren moduan– baliatu ohi dira legelariak.

Horrela, Sozietatearen izaera “pertsonalista” hori ondoko ardatz bikoitzean oinarritzen da:

- a) Erantzukizun mugagabeak, bazkideen ezaugarri pertsonalek bazkideak ez diren hirugarrenen aurrean berezko garrantzia izatea sortarazten duena.
- b) Aginte soziala, gehienetan, lan-ekarlei egozteak.

---

37. Terminologia:

“Supletorio”: Ordezkoa, ordeztaila, osagarria.

“Supletoriedad”: Ordezko-izaera, ordeztailetasuna, osagarritasuna.

Argi dago, esan dugunez, Kooperatiba-Elkartek erantzukizun mugatuko elkarteak direla, baina elkarte-mota hau “Kapital-Sozietate” gisa zehaztea oso gauza ezberdina dugu.

Alde batetik, aginte soziala lan edo industri ekarpenen arabera egozten dutenez, izaera “pertsonalista” nabaria dute Kooperatiba-Elkarreok. Bestaldetik, erantzukizun mugatuko onura izanik eta bazkideak ez diren gainontzekoen aurrean dituzten zorrez Elkartearen ondarearekin erantzuten dutenez, Kapital-Sozietateak har ditzakegu.

Kontutan hartu behar dugu, bazkide kolektiboek eskuratzen duten aginte soziala, bakoitzak ekarritako kapitalaren arabera banatzen dela behin baino gehiagotan. Hauxe da ba, Sozietate hauen izaera “pertsonalista” horren jatorria erantzukizun mugagabearen ondorio dela –eta ez aginte sozialaren egozpen-irizpideena– defenditzeko arrazoi funtsezko bat.

Ikusi dugunez, Kooperatiba-Elkartea Merkatal Sozietateen zerrendan sartzen badugu, Kapital-Sozietateak eta Sozietate Pertsonalisten arteko betiko banaketa zalantzan ipini behar dugu. Beraz, Kooperatiba-Elkartea ondo kokatzeko, zehatzagoa den terminologia erabili behar dugu, ondoko sailkapena eginez:

- a) “Korporazio” izaera duten Sozietateak, bazkideen erantzukizuna ekarritako kapitalaren arabera mugatu eta lege-araupen zehatzak dituztenak: Sozietate Anonimoak, Sozietate Mugatuak eta Kooperatiba-Elkarreok.
- b) Erantzukizun mugagabeko Sozietateak: Sozietate Kolektiboak.
- c) Bitariko izaerazko Sozietateak: Sozietate Komanditarioak.

### **3.8. IRIZPIDE MUTUALISTA**

Askotan, bai Legedi substantiboan, bai fiskalean, Kooperatiba-Elkartearen berarizko kontzepzioan irizpide mutualistak izan dezakeen funtsezko izaera aipatzen da.

Batzuetan, irizpide mutualistatzat zera adierazten da: “Kooperatiba-ihardueraren eragiketen gehiengoa bere bazkideekin egiten dutenak baino ez dira benetako Kooperatibak”.

Interpretazio honen ondorioz, irizpide mugakorra aukeratu behar dugu ondoko gaiotan:

- Lankide-Kooperatibek kontratatzen dituzten soldatapeko langileen kopurua.

– Gainontzeko Kooperatibek bazkideak ez direnekin egiten dituzten eragiketen proportzioa.

Argi dago bazkideekin egin behar diren eragiketen kopuru honek esanahi funtsezkoa duela izaera “itxia” duten Kooperatiben kasuan. Hau da, adibidez, Etxebizitza-Kooperatibetan, bertan pertsona-talde zehatz batek baino ez baitu lortzen bazkide-izaera.

Alderantziz, Kontsumo-Kooperatibak bezalako beste motako Kooperatiben kasuan, hauen bezeroek sartzeko eskubidea izanik eta bazkide-izaera hartu ala ez askatasun osoz erabakiz, baliabide honen bidez erakundearen “zabalkuntza” guztiz bermatua dagoela ere esan dezakegu.

Irizpide honen arabera, zera izango litzateke mutualismoa: “bazkide-izaera Kooperatiba-ihardueraren balizko erabiltzaile guztiei (edo langileei) zabalik egotea”.

Irizpide mutualistak izan duen –eta, Legedi batzuetan, oraindik ere badu– izugarritzko garrantzia, Kooperatiben ideologia sustraietan oinarritzen da. Egia esan, Kooperatiben Zuzenbidea, oro har, sustatzen duen oinarri ideologiko berbera da, Kooperatiben izaera “berdintzailea”<sup>38</sup> ahalik eta gehien handitzen baitu irizpide honek. Horrela, botua emateko eskubidearen egozpen berdintzaile hori, ez bakarrik bazkide guztiei, baizik eta Kooperatiba-ihardueraren laguntzaile (langileak, kontsumitzaileak nahiz hornitzaileak) guztiei ere ezagutzen zaiela ziurtatzen da.

Hala ere, gaurko mentalitatean, Kooperatiben ideologi kontzepzioaren barruan, irizpide mutualista hori legeak hertsiki ez eskatzeak guztiz onargarria ematen du.

Esandakoaren ondorioz, ez dugu ahaztu behar, mutualismo eta Kooperatibagintzaren arteko harremanak estuak direla, ikuspegi ideologikotik ikusita.

Argi dago langileen ehuneko ehuna bazkide den Lankide-Kooperatiba bat eta ehuneko hamarra baino ez den beste bat –gainontzekoak soldatapeko langileak izanik– ez direla kontzeptuen aldetik baliokideak. Hortik dator bada, mutualistak diren eta ez diren Kooperatibak ezberdintzeko beharra.

Hala eta guztiz, ezberdinketa hori egin beharra, arau substantiboari baino gehiago zerga-arauari dagokiola pentsa dezakegu.

Kooperatibagintzaren ikuspegitik menpeko langileen kontratazioak duen balorapen ezezkor hori alde batera utzirik, Kooperatiben Zuzenbideak ez ditu horrelako kasuak legezko estalpen gabe utzi behar. Beste gauza bat da zergen

---

38. Kooperatiben izaera mutualista ukatuz, ik. E. BALLESTERO: Aip., 286 eta urr.

sustapen-arauek zer motatako mutualismo-maila –eta, kasuan kasu, zein indarrez– babestu nahi duten –eta zein ez– kontutan hartu behar izatea.

Izan ere, ugari dira legearen arlo substantiboan oinarri-irizpide mutualista ezartzeko orduan malgutasun handiaz jokatzten duten Legedi substantiboak.

Teoria eta praktikaren artean dagoen alde nabariaren adibide bezala, Frantziako Produkziozko Langileen Kooperatiba-Elkarteen (SCOP) benetako egoera interes handikoa da, Kooperatibagintzaren Araudi Orokorren 3. atalak ezartzen duenaren aurka.

3. atal honen arabera *“Berarizko legeek ez badiete horretarako baimenik ematen, Kooperatibek ezingo dituzte beren zerbitzuak erabiltzeko bazkideak ez diren hirugarrenak onartu. Horrela egitekotan, Estatutuek ezartzen dituzten baldintzak bete eta Kooperatiben ihardueraz edo lanaz baliatzeko onartuak izan direnak, bazkide bezala onartu beharko dituzte”*.

Horrela, zera esan dezakegu: Mutualismoak Kooperatibagintzak duen gehieneko exigentzi maila adierazten duela. Horrexegatik, ez gatoz bat Mutualismotik at Kooperatibagintzarik ez dagoela uste duten iritziekin<sup>39</sup>, baina Mutualismoa Kooperatibagintzatik at dagoela uste dutenekin ere ez.<sup>40</sup>

Azkenik, kontutan hartu behar dugu baita ere, M.L. LLOBREGATEk azpimarratu duenez, Kooperatiba eta Mutualismoren arteko eztabaida hori, terminologia arloan –eta, zehazki, “mutualismoaren” kontzeptuan– ohikoa den argitasun- eta zehaztasun-ezatic datorrela, neurri handi batean.

### **3.9. KOOPERATIBEN BURUJABETZA ETA KOOPERATIBEN TALDEAK**

Kooperatibaren autonomia edo burujabetza sarritan izan da aipatua Kooperatiben Legedian agertu ohi den oinarri-irizpideen zerrendan. Nafarroako Kooperatiben 1989ko Foru-Legearen 2. artikulua, oinarri-irizpide horien artean

---

39. Hala ere, arrazoi osoz, zera esaten du J. LARRAÑAGAK (“Análisis de la Legislación Vasca sobre Cooperativas”, Mondragón, 1985, 27): “Mutualismoaren gehiegikeria Kooperatibaren aurka itzultzen da eta, azkenik, beren bazkideen aurka, bere burua garatzeko eta aldi berean gizarteari baliozko zerbitzuak dituen aukerak ukatuz”.

40. Hortik dator GIRON TENAK (“Derecho de Sociedades”, I, 114) Mutualitateak “Kooperatiben mota sailtzat” hartzea, hauxe gehituz:

*“... orokorki onartua da, gaur egun, Mutualitateak zentzu zabalean ulerturiko Sozietateak direla, Kooperatiben motaren sail bat izanik. Nahiz eta sail horrek izaera propioa izan, Kooperatiben helburuek dituzten ezaugarri berdinak dituen helburu bati dago loturik Mutualitateen antolakuntza-egitura, aseguruaren arloan. Hori bai, Mutualitateen kasuan aseguru-iharduera eta sozietate-kontratua hasieratik daude loturik, Kooperatiben kasuan Kooperatibaren zerbitzuen kontratugile-izaera eta bazkide-izaera horren loturik egon gabe”*.

“Kooperatibaren burujabetasuna eta kudeaketa eta kontrol demokratikoak” kokatzen ditu. 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen 1.2. atalak, zehatzagoa den idazkeraz, zera ezartzen du: “Lege honen baitan egonik, bestelako edozein erakunde publiko edo pribaturekiko autonomia eta askatasun osoa izango du”.

Enpresak dituen erabakitze eskumenak Kooperatibatik at daudenen eskuetan utzi, ordezkotzan eman edo ahaldundu egiten dira gero eta gehiagotan<sup>41</sup> –eta, zehazki, Kooperatiba-Elkarteak Sozietateen Talde baten kideak badira– eta, aldi berean, gero eta argiago agertzen zaizkigu oinarri-irizpide horiek sortzen dituzten arazoak.<sup>42</sup>

Kontutan hartu behar dugu arazo hau oso modu ezberdinean agertzen dela “Sozietateen Batasun edo Elkarketak” eta “Sozietateen Taldeen” kasuetan.<sup>41bis</sup>

Alde batetik, ez dirudi Autonomia edo Burujabetasun oinarri-irizpide hau Kooperatibak Espainiako doktrinak deituriko “Sozietateen Elkarketak edo Batasun hutsen” kide izateagatik hausten denik. Kasu hauetan, gehienetan batean jarritako iharduera edo betekizunen arloaren barruan eta elkarlaguntzarako kontratu bidezko itunetan oinarritzen dira sorturiko bateango egiturak.

Benetako arazoa “Sozietateen Taldeen” kasuan –Sozietate batek beste baten gainean Zuzendaritza-arloko eskumenak izanik– agertzen zaigu.

Kooperatiba-Elkarteak “Kooperatiben Taldeak” deituriko egituren barruan egotea gero eta gehiagotan gertatzen da. Arrasateko Taldean eta honen barruko egituren kasuan gertatu den bezala, talde horien barruan, kontratuen bidez,

---

#### 41. Terminologia:

“Transferencia/cesión de facultades”: Eskumenak esku uztea edo lagatzea.

“Delegación de facultades”: Eskumenak ordezkotzan ematea. Ahalmen-eskuordetze edo delegazioa.

“Delegado: Delegatu, ordezkari, eskuorde.

“Apoderamiento”: Ahaldundu, ahaldunduzapen, ahaldundu egitea, ahalmenak eman.

“Apoderado”: Ahaldundu, eskudundu, ahalordea.

#### 41bis. Terminologia:

“Sozietateen taldeak”: Grupos de Sociedades.

“Sozietateen Elkarketak”: Agrupaciones de Sociedades.

“Sozietateen Batasunak”: Uniones de Sociedades.

42. SANZ JARQUEk (“Cooperación...”, aip., 56/57) Kooperatibaren ezaugarrien artean “enpresa-burujabetasuna eta autogobernua” aipatzen du eta, kontzeptu hau argitzeko asmoz, burujabetasun horrek Ihardularitzarekiko (Administrazioa) harremanetan zaindu behar dela eta “gainera, elkarte-helburuaren arabera enpresa-iharduera gauzatzeko askatasun osoa izatea adierazten du baita ere, Kooperatibak -Kooperatiba bakoitza- beren bazkideekin, enpresa-ihardueraren titularrak eta arduradunak izanik”. “Kooperatiba bakoitza” hitzak “Kooperatiben Taldea” kontzeptuaren guttiz aurkakoak direla ematen du. Hala ere, egileak berak, burujabetasun kontzeptu horrek, Administrazioaren eskuhartze ezarekin parean, “bazkideen nortasuna eta erantzukizunatik kanpo, berarizko lege-nortasuna eta berarizko ondare erantzukizuna dituztela” adierazten duela ere aipatzen du aurrerago (59).

berarizko lege-nortasuna duen ala ez duen bateango egitura baten eskutan uzten dituzte zuzendaritza-ahalmenak Kooperatiba batzuk.

Zuzendaritza-ahalmenen esku-uzte hori eraginkortasunez gauzatu –eta erroldatu ere– da, bateango egiturari legezko itxura ezberdinak emanik: Sozietate Zibila, Kooperatiben Federazioa, Elkartea, Bigarren Mailako Kooperatiba, Zerbitzu-Kooperatiba, etab.

Hala ere, egitura hauen eta Burujabetasunaren oinarri-irizpidearen arteko kontraesan horrek sortzen zituen arazoak konpondu gabe gelditu izan dira.

Sozietateen Taldeen Zuzenbidean askotan gertatu ohi den bezala, eztabaida hori ere guztiz formalista izan ohi da. Zuzendaritza-ahalmenak hartzen dituen bateango egitura hori Kooperatiben irizpideen arabera eratuz gero (gehienetan horrela gertatu ohi da) ahalmenen esku-uzte horrek ez ditu zalantzan ipintzen Kooperatiben oinarri-irizpideak, hauen interpretazio formalista baizik. Sozietateen Taldeetan, Sozietatea egituratzeko oinarri-irizpideak Talde-mailan interpretatu behar dira, eta ez Sozietate bakoitzaren mailan, banan-banan.

1993ko Euskadiko Kooperatiben Legeak, Bigarren Mailako Kooperatibak arautzeko, honi buruzko funtsezko berrikuntza batzuk ezarri zituen: behe-mailako Kooperatibek bigarren mailakoei egiten dieten “ahalmenen esku-uzte” horren onarpen argi eta garbia, bai eta “talde”, “enpresen bateratze edo integrazio” “zuzendaritza bateratua”, etab.eko kontzeptuena ere.

Horrela, Lege honen 128. ataleko 1. azpiataleko bigarren eta hirugarren parrafoek zera esaten digute:

*“Goian esandako helburua garatzeko beharrezkoa izateagatik, kooperatiba horri ematen zaizkion funtsezko ahalmenak Estatutuetan zerrendatu beharko dira. Baltzu-helburuak dirauen artean indarrean jarraituko dute ahalmen horiek; bestalde, bat egindako elkarteen organoek ez dute ahalmen horien erabilera aztertze eskubiderik izango, bidezko gerta daitekeen epaitegi-babesaren kaltetan joan gabe.*

*Kooperatiba enpresariak bateratzeko denean, Estatutuetan zehaztuko da zein diren enpresa-iharduerarekin bat egiten duten arloak, zein diren taldeko zuzendaritza bateratua egiteko oinarriak eta zein, azkenik, taldearen ezaugarriak.”*

Gainera, atal honen 2. azpiatalean, zera esaten da:

*“Arlo honetan ezbairik egotekotan, baltzu-helburuarekin zuzeneko zerikusia duten ahalmen guztiak gorenko kooperatibak bere gain hartuta izango bailituen joko da, eta berak harturiko erabaki eta emandako*

*jarraibideek lehentasuna izango dute, elkaturiko erakunde bakoitzaren erabakiekiko.”*

Idazte modu honek, Kooperatiben enpresa-beharrei guztiz egokia izanik, lehen aipaturiko arazoa konpontzen digu, baldin eta aipaturiko ahalmen horiek hartzen dituen egiturak Bigarren Mailako Kooperatiba izaera (eta, jakina, Kooperatiba Korporazioarena ere, osagarritasunez) badu. Ez da horrela gertatzen talde horrek hartzen duen legezko egitura beste motakoa izan arren.

Legezko teknikaren aldetiko ikuspegi zehatz batetik, esku-uzte horren garrantziaren arabera eta ez ahalmen horiek hartzen dituen erakundearen legezko egituraren arabera egin beharko litzateke ahalmen horien esku-uztearen araupena. Erabilitako irizpidea estuegia da, bai enpresa bai eta elkarte errealtatean ere.

Hori da Zuzenbide Konparatuan Sozietateen Taldeen araupenak jarraitzen duen irizpidea<sup>43</sup> eta, ziurraski, 1993ko Legeak jarraitu behar izan zuena ere.

Hala eta guztiz ere, Lege horrek erabilitako irizpidea bidezkozat jotzeko ideologi arloko arrazoiak egon badaude. Esan dugunez, Sozietateen Taldeen legezko araupena Elkarte bakoitza arautzen duten legezko oinarri-irizpideak Talde osoari egoztean oinarritzen da. Beraz, guztiz onargarria izan daiteke, Taldearen kontzeptua onartzeko baldintza bezala, zuzendaritza-ahalmenak hartzen duen legezko egitura horrek sortzen den egituraren Kooperatiba izaera ziurtatzen duten antolakuntza eta egitura-ezaugarriak izan ditzala derrigorrez eskatzea.<sup>44</sup>

Edonola ere, euskal Legediaren aurrerapauso hori kontutan hartzekoa eta “Lege honen berrikuntzarik bereizgarrienetarikoa” da, Legearen Zioen Adierazpenak berak azaltzen zuenez.

Bigarren Mailako Kooperatibei buruzko 1993ko Legearen beste berrikuntzen artean, Kooperatiba-mota hauen izaera aldaketa dago. Lehenago “Kooperatibek osaturiko Kooperatiba hutsak” bezala arautzen baziren, beren berarizko helburu edo iharduera zehaztu gabe, oraingo Legearen 128. atalak argi eta garbi zehazten ditu kontzeptu horiek:

*“Kide diren Elkarteen eta kidetasunaren ondoren sortutako taldearen ekonomia-iharduera osatu, sustatu, koordinatu, indartu edo bateratzea dute helburu bigarren edo geroagoko mailako Kooperatibek, haien Estatuetan esaten den zabalera edo neurrian”.*

43. Beste batzuen artean, batez ere Alemaniako 1965eko Legearen (AktG) 291. eta hurr. artikulua, “Enpresa-kontratuak” arautzen dituztenak.

44. Horrexegatik, ziurraski, 1983.07.20ko Frantziako Legearen 27. artikulua azkeneko paragrafoak zera esatea: “Artisautza-arloko Kooperatiba-Elkarteen Batasun bat sortzearen helburua ezingo da izan Batasun horren kideak diren Artisautza-arloko Kooperatiba-Elkarteen Kooperatiba-izaerari kalte egitea”.



Gainera, Kooperatibak ez diren elkarteak ere Bigarren Mailako Kooperatiben bazkide izatea ahalbidetzen da. Hala ere, “azken erakunde horiek, guztira, ezin izango dute bigarren edo geroagoko mailako Kooperatibaren botu guztien erditik gorakoa bildu; hala ere Estatutuetan muga estuagoak ezar daitezke”.

Azkenik, Elkarte-mota honek duen araupen-malgutasuna azpimarratu behar da, Lege honen 133. atalak aipaturikoaren arabera zera esaten baita: “Sail honetako aurreko ataletan jasotzen ez den guztietan, Estatutuetan eta barne-jaurpideko araudian ezarritakoari lotuko zaio; eta, horien ezean, bigarren edo geroagoko mailako Kooperatibek dituzten berezitasunak kontuan harturik, lege honetan lehen mailako Kooperatibez ezarritakoari jarraituko zaio”.

Merkatuan zuzenki lehian ibiltzen ez den Sozietate baten kasuan guztiz onargarria da malgutasun hau; honen helburua, Zioen Adierazpenak esaten duenez, “lehen edo oinarrizko mailako erakundeetarako soilik pentsatutako arauak mekanikoki ezarri baino lehen bigarren mailako Kooperatiben eginkizun eta izaerari jaramon egin” izanik.

#### \* KOOPERATIBEN KORPORAZIOAK (EDO KOOPERATIBA-BAZKUNAK)

Euskadiko Kooperatiben Legearen 135. atalak horrela zehazten du Bigarren Mailako Kooperatiba-mota hau:

*“1. Enpresa-politikak taiutu, iharduera edo baliabide amankomunak kudeatu eta, batzuetan, bazkideen ihardueren estrategiazko plangintza, horien kontrola gauzatzea helburu duten enpresen elkarketak dira Kooperatiba-bazkunak, gehienbat lehenengo eta bigarren edo geroagoko mailako kooperatibez osatuko direlarik”.*

Helburu honen ondoan, Elkarte-mota honen ezaugarri nabariena Administrazio-ardura –Kontrol-kontseilu eta zuzendaritza-organoaren eskuetan– Sistema Bikoitzari lotuta egotean datza. Zuzendaritzak bere gain hartutako kudeaketaren ikuskeraren egingo du batez ere Kontrol-kontseiluak. Bestaldetik, Zuzendaritza-organo horrek “Kooperatiba-bazkunaren kudeaketa- eta zuzendaritza-ardurak bereganatuko ditu eta haren izenean ihardungo beste inoren aurrean”. Organo honen kideak Kontrol-kontseiluak izendatu eta kargutik kenduko ditu.

Errealitatean agertzen diren kasuak proposaturiko egituraren antzekoa izatean eta Kooperatiben benetako egoera aldatzen ez duen lege-aldaketa onartzeko errazago dela uste izatean datza Kooperatiben Mugimenduak proposaturiko Elkarte-mota hau arautzearen oinarria.

Europako Kooperatiba-Elkartearen Araudiaren oraingo Proposamenak –Administrazio-ardura antolatzeako Sistema Bikoitza aukeratuz gero– Kooperatiben Korporazioaren Elkarte-egitura bera aukeratzea ahalbideratzen du baita ere. Beraz,

hortan interesa duten Kooperatiba-Elkartek, eredu bata zein bestea aukeratu ahal izango dute, beren barruko antolakuntza-araupena bereziki aldatu gabe.

\* KOOPERATIBEN TALDEAK NAFARROAKO LEGEDIAN

Nafarroako Kooperatiben Foru-Legeak, espainiar legediak Bigarren Mailako Kooperatibak arautzeko betiko irizpideak onartzen ditu, bere 75. artikuluan Bigarren Mailako Kooperatiba “Kooperatiben Kooperatiba” bezala arautuz eta lehen aipaturiko Kooperatiba-Elkartearen autonomiaren oinarri-irizpidea ahaztu gabe.

\* KOOPERATIBEN BATASUNAK FRANTZIAKO LEGEDIAN

Hegoaldeko Legediek “Bigarren Mailako Kooperatibak” aipatzen dituztenean arautu nahi dituzten egiturak berak arautzeko, “Kooperatiben Batasunak” erabiltzen ditu Frantziako Legediak.

Kontutan hartu behar dugu Hegoaldeko Legedien “Kooperatiben Batasunak” berez ez direla Sozietateak eta ez dutela enpresa-helbururik, beren helburua “elkarte hutsezko helburua” izanik, “Kooperatiba-Elkartek beren zuduak babesteko eta sustatzeko”, Euskadiko Kooperatiben Legearen 143. atalaren 1. azpiatalak aipatzen duenez.

Frantziako Kooperatiben Batasunen helburuaren testua, guztiz laburra da Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorren 5. artikuluan kasuan –bertan “bateango interesen kudeaketa” baino ez du aipatzen– Espainiako Bigarren Mailako Kooperatiben betiko helburuaren parean.

Hala ere, Araudi horren 19bis. eta hurr. artikuluetan “Gizarte-Ekonomiaren Batasunak” arautzen direnean, aipaturiko helburu orokor hori “beren bazkideen bateango interesen kudeaketa eta beren ihardueren sustapena” testuarekin adierazten da.<sup>45</sup> Bigarren Mailako Kooperatiben kasuan bezala, Frantziako Kooperatiben Batasunetan ere, elkarturiko Kooperatibek botu proportzionala emateko eskubidea dute eta gehiengoz erabakitzeko gaitasuna elkarturiko Kooperatiba-Elkarteen eskuetan uzteko joera argia ere badago.

---

45. 1983.07.20ko Legearen 27 eta 28 artikuluetan arautzen diren “Artisauen Kooperatiben Batasunak” Elkarte-mota honen araupenean, zera esaten da: “Beren bazkideen artisautza-iharduerak garatu eta iharduera hauek gauzatzen, zuzenki ala zeharka, laguntzeko gai diren edonolako eragiketa eragile edo eta edonolako zerbitzua ematea izango dute helburua”.

Salerosle Gutxikarien Kooperatiba-Elkarteei buruzko 1972ko Legearen irizpidea ezberdina da, hauen Batasunek Kooperatibek dituzten helburu berdinak izango baitituzte, hauen bazkideei egin behar zaizkien horniketak, denda edo saltegiak elkartzea, finantzaketa, ekintza osagarriak gauzatzea, etab. dela eta. Helburu hauek guztiak Lege horren 1. artikuluan daude arauturik.

Azkenik, SCOPen (Produktziozko Kooperatibak) Batasunek, hauen Legearen 45. artikuluan azaltzen duenez, “hauen bateango interesak kudeatu eta hauen iharduera sustatzea” dute helburua.

\* TALDEAK SORTZEKO BALIAGARRIAK DIREN BESTE  
ELKARTE-MOTAK

Europako Kooperatiba-Elkartea (honen Proposamenak, tamalez, ez du hauen bazkideen ahalmenak EK Eren esku-uztea arautzen) edo Espainiako Estatuko Legediaren Kooperatiba-Elkarte-motak –hauen artean Bigarren Mailako Kooperatiba eta, azkenotan, “Bateratze-Kooperatibak”– ere erabilgarriak izan daitezke Kooperatiben Elkarketak edo Taldeak sortzeko.

Bateratze Kooperatiba horiek Mailegu-Kooperatiben Legea zehazteko Araudia indarrean sartzen duen Errege-Dekretuan arautzen dira, honen Hirugarren Erabaki Gehigarriaren edukiera ondokoa izanik:

*“HIRUGARRENA. 1. Apirilaren 2ko 3/1987 Legearen Azkeneko Bigarren Erabakiaren arabera, bai Mailegu-Kooperatibek, bai eta beste motakoek, Bateratze-Kooperatibak eratu ahal izango dituzte, dagokien Kooperatiben Legeak arauturiko Behe-Mailako Elkarteak –bai eta Gizarte-Ekonomiaren arlokoak edo titulartasun publikoa duten beste Elkarteak, edo eta batzuen zein besteen partaidetza duten enpresak– elkartu, koordinatu eta sustatzeko asmoz, betiere horren ondorio den bateraturiko multzoan bazkide eta botuen gehiengoa elkarturiko Kooperatiba-Elkarteen eskuetan izanik.*

*2. Bateratze-Kooperatiba hauek, Kooperatibagintzaren oinarri-irizpide eta ezaugarrien arabera arautuko dira, bai eta beren Estatutu eta dagokien estatu-mailako zein autonomi arloko Kooperatiben Legediaren arabera ere. Estatutuek, aipaturiko irizpideok Erakundearen egitura, helburu eta ihardueran duten ezarpena zehaztu eta justifikatu beharko dute. Edonola ere, elkarte-zorreatatik bazkide diren Elkarteek duten erantzukizuna mugatua izango da beti eta botu pluralak ezin izango du aipaturiko Legedian ezartzen diren mugak gainditu, ez eta kapital sozialera ekarritako ekarpenetan –izenpetu zein ordainduak– oinarritu”.*

Errege-Dekretu hau indarrean sartuz gero, enpresen arteko elkarlaguntza bideratzeko beste aukera bat dago Espainiako Kooperatiben Zuzenbidearen barruan, lehengo Zerbitzu-Kooperatibak eta Bigarren Mailako Kooperatibak ahaztu gabe (bai eta iharduera zehatzen arloan erabili behar diren Mailegu-Kooperatibak, Nekazaritza-Kooperatibak, etab.).

Hala ere, sortu berria den Elkarte-mota hau, Euskadiko Legeak arauturiko Kooperatibek baino ez duten egitura bat bideratzeko gai denik zalantzan ipin dezakegu. Kontutan hartu behar dugu Elkarte-mota hau Euskadiko Legean ez dagoela aurrikusita, eta ordezkotzaren bidezko osagarritasunezko irizpideen baliogarritasuna zalantzarria izaten dela beti (edonola ere, elkarte-mota honek duen oinarrizko antolakuntza eta Euskadiko Kooperatiben Legean Bigarren Mailako Kooperatiben kasuan aurrikusita dagoena guztiz antzekoak dira).

Azkenik, beste ikuspegi batetik, ahalmenak esku-utzi, ordezkotzan eman edo ahalduzko-kontzeptu horietatik at, Taldeen antolakuntza Elkarte batzuk beste batzuetan dituzten partehartzeen bidez bideratu daitezkeela ere kontutan hartu behar dugu. Partehartze honek –1993ko Legean zeharo malgutu dena– Kooperatibaren organoen osaketan bai baina hauen ahalmen-eremuan eragina izan gabe, Kooperatiba-Elkartearen “autonomia” edo “burujabetza” ez duela zalantzan ipintzen onartzen da.

### **3.10. KOOPERATIBA-EIKARTEEN MOTAK**

Europako Kooperatiben betiko Legediek Kooperatiba-Elkarteen oso sailkapen zehatzak ezartzen dituzte, sailkapen hauek beti bat etortzen ez diren faktoreetan oinarrituak izanik.<sup>46</sup> Horrela:

\* MAILAREN ARABERA, Lehenengo eta Bigarren edo Goragoko Mailako Kooperatibak eta Kooperatiben Korporazioak edo Bazkunak aipatzen dira.

\* BAZKIDEEKIKO IHARDUERAREN (ELKARLANA) ARABERA:

- Lankide-Kooperatibak
- Kontsumo-Kooperatibak (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kooperatibak Nafarroako Legean)
- Elkarlanean Ustiatzeko Kooperatibak (Lurra Elkarlanean Ustiatzeko Kooperatibak)
- Zerbitzu-Kooperatibak

\* KOOPERATIBAREN IHARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA, Kontsumo- edo Zerbitzu-Kooperatibak, ondoko Kooperatiba-motak arautzeko bereziki ezarritako arauen bidez arautzen dira:

- Irakaskuntza-Kooperatibak
- Nekazaritza-Kooperatibak
- Etxebizitzaren-Kooperatibak
- Finantza-Kooperatibak
- Osasun-Kooperatibak
- Ezinduk Gizarteratzeko Kooperatibak

Hau dena, erdibideko motak ahaztu gabe:

---

46. Horren inguruan SANZ JARQUEk (“Cooperación...”, aip., 67) zera esaten du: “Kooperatiben talde edo mota bakoitzaren berarizko ezaugarriak -beren izaera eta araupena zehazten eta mugatzen dutenak- Kooperatiba horiek guztiak, mota bakoitzean, gauzatzen duten enpresa-ihardueraren ondorioak dira, bai eta hauen arrazoia eta helburuak kontutan hartuz, hau da, erantzuten edo zaintzen dituzten behar edo interesen arabera.

\* Lan-bazkideak dituzten Kooperatibak

\* Nafarroako Legearen 73. artikulua arautzen zituen “Bitariko Kooperatibak”, “hauen helburua Kooperatiba-mota bi edo gehiagoren helburuak betetzea izanik” (Kooperatiba-mota hau desagertu egin da 1996ko Legean).

\* Euskadiko Kooperatiben Legearen 98.1 artikulua arabera eratu daitezkeen beste motak. Artikulu horren arabera “Dena dela, bestelako Kooperatibak ere antola daitezke, baldin eta baltzuaren iharduera eta bazkideen lege-jokabideak argi eta garbi zehazten badira”.

\* Euskadiko Kooperatiben Legearen 136. atalak “Bitariko Kooperatibak” izenez arautzen dituenak, Kooperatiba-Elkartea eta Kapital-Sozietatearen arteko erdibideko elkarte-mota dena.

Ikusi dugunez, sarrera ezberdinak dituen sailkapen hau ulertzea ez da batere erraza, batez ere Kooperatiben mundua ezagutzen ez duenarentzako.

Bere aldetik, Frantziako Legediak –oso logikoa ez den irizpide zehatzegi baten bidez– ondoko Kooperatiba-motak aurrakusten ditu:

\* LANA ELKARTU EDO BAZKIDETZEKO KOOPERATIBA-MOTAK:

– Produkziozko Langileen Kooperatibak (SCOP)

\* BEZEROAK EDO HORNITZAILEAK ELKARTZEKO KOOPERATIBA-MOTAK:

\* Kooperatiben Batasunak

\* Nekazaritza-Kooperatibak

\* Elkarrekiko Berme-Kooperatibak

\* Artisauen Kooperatibak

\* Garraio-enpresen Kooperatibak

\* Ibai-garraioaren arloko Artisauen Kooperatibak

\* Itsasoko Kooperatibak

\* Banka-Kooperatibak

\* Kontsumo-Kooperatibak

\* Gutxiak diren Merkatarien Kooperatibak

\* Eraikuntza-Kooperatibak

\* Errenta Mugatuko Etxebizitzaren Produkzio-Kooperatibak

Bai Espainiako Legedian, bai eta Frantziakoan ere dauden kooperatiba-mota guztien aurrean, funtsean bi kooperatiba-mota baino ez daudela esan dezakegu: Lankide-Kooperatibak alde batetik eta gainontzekoak bestetik.

## \* LANKIDE-KOOPERATIBAK

Legediak “Lankide-Kooperatibak” edo “Lan Elkartuzko Kooperatibak” (Frantziako Legedian, “Industri Produkziozko Langileen Kooperatibak”) izendatu ditu Kooperatiba hauek. Hauetan, pertsona fisikoek eginiko lanean datza Elkartean eginiko ekarpena.<sup>47</sup> Hauen artean, “Elkarlanean Ustiatzeko Kooperatibak” kokatu behar ditugu baita ere.

\* BEZEROAK EDO HORNITZAILEAK ELKARTZEKO KOOPERATIBA-MOTAK<sup>48</sup> (Zerbitzu-<sup>49</sup> edo Kontsumo-Kooperatibetaz, zentzu zabalean, hitz egin dezakegu baita ere).

Gainontzeko Kooperatiba-mota guztiek osatzen dute multzo hau. Askotan, Kooperatiba-mota ezberdinen artean elkarguneak agertzen dira, sailkapena ez baita batere zehatza, kasuan kasukoa baizik. Hori gertatzen da, adibidez, Kontsumo eta Zerbitzu-Kooperatiben artean, Enpresarien Zerbitzu-Kooperatibak eta Bigarren Mailako Kooperatiben artean, etab.<sup>50</sup>

Kasu zehatz bakoitzean dauden ezberdintasunak ahaztu gabe, Legean ezarri ohi den eta horren nahasia den elkarleen sailkapen honen arrazoiak ez dira guztiz argiak. Sailkapen hauen geroko berrikuntzek oraingo Kooperatiba-moten kopurua gutxiagotzen ahalbideratu beharko dute, hauen arteko askok Zerbitzu- edo Kontsumo-Kooperatiben sektore-egokitzapenak baino ez baitira.

Nabaria da horrelako gutxiagotzeak zailtasunak ere badituela, batik bat Kooperatiben lege-sailkapena eta hauen erakunde-antolakuntzaren arteko orain dagoen nahasketa. Guztiz logikoa da Kooperatibak, erakunde-helburuak lortzeko asmoz, sektoreen arabera antolatzea (Federazioak, Konfederazioak). Baina oso gauza ezberdina da sailkapen-irizpide hori lege-araupenera zabaltzea, lege-araupenean Kooperatiba-mota bakoitzean aurrakusten diren ia instituzio eta legezko baliabide guztiak bateango ikuspegitik bideratu baitaitezke.

47. E. BALLESTEROK (aip., 32) horrela zehazten ditu Kooperatiba hauek:

“Gehienbat Kooperatibaren bazkideek osaturiko lan-indar baten bidez industri ondasunak edo zerbitzuak sortzen dituzten Kooperatibek”.

Zehazpen hau 1993ko Euskadiko Legeak ezarritakoaren antzekoa da. Azkeneko honen arabera, “Jendeari ondasun nahiz zerbitzuak eskaintzeko, edozein ekintza ekonomiko edo lanbide-iharduera elkarlanean egiten duten pertsonak batik bat elkartzen dituztenak dira Lankide-Kooperatibak”.

48. Ik. J. FERNANDEZ: “Economía para cooperativas”, Barcelona, 1983, 20. eta hurr.

49. Oso adierazgarria da GIRON TENA (“Derecho de Sociedades”, I, aip., 96) egilearen azalpena. Honen arabera, bazkideek duten bateango behar bat asetzeari helburu duen enpresa bati legezko babesa ematen dio Kooperatiba-Elkarteak eta, beraz, azkeneko hau “Zerbitzu-Enpresa” da.

50. Ik. E. BALLESTEROK egiten duen Kooperatiba hauen zehazpena: Aip., 33-35.

## \* BITARIKO KOOPERATIBAK EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAN

Kooperatiba-moten artean, izena “Bitariko Kooperatibek” dutenek arreta berezia merezi dute<sup>51</sup>. Hauei buruz, 1993ko Legearen Zioen Adierazpenak zera esaten digu:

*“Euskadiko kooperatiba-arlo batzuek eskatutako arauketa berri honekin, kooperatiba-metodoarekin lotutako enpresa-antolaketarako bide berria eskaini nahi da, baina bai baliabideak bilatzeko bai ondasun eta zerbitzuak ekoiztu eta banatzeko gero eta latzagoak eta lehiakorragoak diren merkatuen erronka eta eskakizun berriei ere jaramon eginaz”.*

Euskadiko Kooperatiben Legearen 136.1. atalaren arabera, “Bitariko Kooperatiben” ezaugarri funtsezkoena “gutxiengoko kapital-bazkideak” egotea da. Ikus dezagun atal honen testu osoa:

“136. atala. Bitariko Kooperatibak.

1. Bitariko Kooperatibak gutxiengoko bazkideak dituztenak dira. Azken horiek Batzar Orokorrean izango duten botu-eskubidea, eskusiboki edo batez ere, emandako kapitalaren arabera zehaztu ahal izango da. Balore-merkatua arautzen duten legeen menpe dauden titulu- edo kontu-idazpenetan agertuko da kapitala.

2. Horrelako Kooperatibetan, Batzar Orokorrerako botu-eskubidea honako banaketa honen arabera izango da:

a) Botu guztien ehuneko berrogeita hamaika gutxienez bazkide kooperatzaileei emango zaie, Estatutuek zehaztu duten heinean.

b) Botu guztien ehuneko berrogeita bederatzia gehienez, eta hori Estatutuetan zehaztuko da, botua emateko eskubidea duten alderdien artean banatuko da, eta estatutuek hala onartzen badute, botuak merkatuan negoziatzeko modukoak izango dira.

3. Botua emateko eskubidea duten alderdien kasuan, bai titularren eskubideak eta betebeharrak, bai ekarpenen jaurpidea, Estatutuetan arautuko dira eta, ordezko gisan, akzioetako baltzuei buruzko legeetan akzioetarako ezarritakoan.

---

51. J. SALABERRIAK (aip., 142-145) Bitariko Kooperatiben defentsa argia eta azterketa zehatza egin berri ditu.

4. Bazkide-talde bietako bakoitzak urteko mozkin edo galeretan duen partehartzea, talde bietako bakoitzak 2. zenbakian esandakoarekin bat etorritz duen botu-kopuruaren arabera zehaztuko da.

Botudun alderdi baltzuen titularrei dagozkien gaindikinak, emandako kapitalaren arabera banatuko dira haien artean. Gainerako bazkideei dagozkien gaindikinak ordea, lege honetan ohiko jaurpideko Kooperatibetarako finkaturiko irizpide orokorren arabera banatuko dira haien artean.

5. Bazkide-talde bietako batek zenbait aldaketa egin nahi izanez gero, taldearen beraren eskubideak eta betebeharrak beste era batera arautzeko, dagokion taldearen gehiengoaren adostasuna eskatuko da; Batzar Orokorrean bereziki egindako bozketaren bidez edo aparteko eta horretarako biltzarra eginez lor daiteke.

6. Honelako Kooperatibak sortzen direnean, bai eratzen direlako edo bai aldatzen direlako, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiak Derrigorrezko Erreserba-Fondoaren kitapena eginez gero banatzeko dagoen aukera Estatutuen arabera baimendu dezake, aurreko 4 zenbakian azalduko irizpideak kontuan hartuz eta, baltzuaren ondasunak banatzeko, 94. atalean dauden gainerako arauetara men eginez”.

Beraz, Elkarre-mota honen ezaugarriak ondoko hauek dira:

1. Botua emateko eskubidea arautzeko duen moduagatik, ikusten denez, Kooperatiba-Elkarre eta Kapital-Elkarrearen arteko erdibideko elkarre-mota da.
2. Nahiz eta egile batzuek (Legearen Zioen Adierazpenak berak hori aipatzen du) horrela esan, Kooperatiba-mota hau ez da Komandita-Sozietatearen antzekoa. “Bitariko Kooperatiba” hauetan badaude kapitalista hutsak diren bazkideak, bai eta bazkide kooperatiboak ere, baina ez Komandita-bazkideak. Bazkide kapitalistek eta kooperatiboek kudeaketaren erantzukizunean parte hartzen dutenez, bi bazkide-mota hauek ez dute bazkide komanditarioaren antzik.
3. Bazkide kapitalista hauek ezin dute aginte sozialaren gehiengoa lortu.

Hala ere, errealitatean, bazkide kooperatzaileen botua oso banatuta badago, erraza izango da botu-eskubidearen parte funtsezkoa duen –nahiz eta formalki gehiengoa ez izan– bazkide kapitalistak Elkarre menperatzea.

4. Bi bazkide-mota hauen artean egin behar den etekinen banaketa bideratzeko irizpidea ez dago batere argi. Artikulu honen 4. azpiatalaren arabera, “talde bietako bakoitzak... duen botu-kopuruaren arabera zehaztuko da” etekinen banaketa hori.



Honen inguruan ondoko bi aukerak ditugu:

a) Bazkide-mota bakoitzari dagokion botu-kopuru hori Estatutueta zehaztea.

Aukera hau guztiz argia da elkarte-egituraren ikuspegitik eta, honen arabera, bazkide kapitalisten multzoaren botu-kopuru osoak ez luke ekarritako kapital-kopuruarekin harremanik izango.

Hala ere, irtenbide hau ez da ondo ulertu izan eta, batzuen ustez, bazkide kapitalistek kapital-ekarpen berriak egin ahal izateko beharrezkoa izango litzateke Estatutuak aldatzea –eta, beraz, bazkide kooperatzaile batzuen onespina ere– bazkide kapitalista hauen botua emateko eskubidea proporzionalki gehitzeko asmoz.

b) Legean ezarritako %49ko muga hori ahaztu gabe, bazkide kapitalistek sozietatean izango duten botu-eskubidea ekarritako kapitalaren arabera Estatutueta zehaztea.

Bai legearen asmoari gorde behar zaion begirunearen ikuspegitik, bai legeko ziurtasunaren aldetik, lehenengo aukera bestea baino egokiago dela ematen du. Bestaldetik, Estatutuak aldatzeko behar hori Kapital-Sozietateen kasuan kapitala handitzeko eskatzen diren baldintzen antzekoa da. Beraz, betebehar hori ez litzateke funtsezko oztopoa izan beharko.

5. Derrigorrez egin behar zen moduan, guztiz laburra da Sozietate-mota honen lege-araupena. Geroko araubidezko garapenak ahalbidetzeko agertu beharko diren irizpideek enpresa-errealitatek etorri beharko dute.

Bestaldetik, Kapital-Merkatura heltzeko baliabidea bezala elkarte-mota honek izan dezakeen interesaren ikuspegitik, zera esan dezakegu:

1. Zalantza gabe, Bitariko Kooperatiben akzioak –”botu-eskubidea duten alderdiak”– Baliabide Eskaezinak (Galdagaitzak) eskuratzeko erabilgarriak dira eta, dakigunez, horrelako ezaugarria funtsezkoa da Kooperatibek Kapital-Merkatuan dituzten arazoak gainditzeko.
2. Hala ere, baliabide honek botu-eskubidea izatearen ondorioz, “Kooperatiba-izaera ez duen baliabidezkat” har dezakegu, eta baliabide hau erabiltzearen ondorio zuzena Elkartearen “Kooperatiba-izaera galtzea” da, nahiz eta zatikakoa izan.
3. Hala eta guztiz ere, elkarte-mota hau interes handikoa da, batez ere, diru-ekarpenaren helburua bere ekarpenari etekinak ateratzea bakarrik ez bada eta botu-eskubidea ere eskatzen badu (gehienetan osagarria den beste ekarpen pertsonalista –know how, merkatal sareak, teknologia, etab.– egotearen ondorioz)

4. Horrelako baliabideak ezin daitezke erabil, Kooperatibek kapitala erakartzeko helburu hutsezko aukera bezala, aldibereko “Kooperatiba-izaeraren galtze” baten truke ez bada. Honen ondorioz, sakoneko arazoak konpondu gabe jarraituko luke: Kooperatiben elkarte-egitura eta galdagaitzak diren baliabideen erakarpena bata besteari nola egokitu. Kontutan hartu behar dugu –doktrinak argitu duenez– izaera galdagaitza baina botu-eskubiderik ez duten baliabideak beharrezkoak direla arazo honi eman behar zaion irtenbidea ahalbideratzeko.

Kooperatiben arazoak konpontzeko “ez horren kooperatiboak” diren irtenbideak –edo, nahi baduzue, Kooperatibagintza eta Kapital-enpresaren bitartekoak– erabiltzeko joera izan da Kooperatiben Mugimenduaren betiko arriskua.

Egiaz, legezko teknikaren ikuspegitik, guztiz beharrezkoak dira Kooperatiba eta Kapital-enpresaren arteko legezko irtenbideak, nire iritziz.

Gure Legediaren hutsune nabaria da pertsonalistak diren eta erantzukizun mugatua duten Elkarte-mota nahikorik ez egotea. Pertsonalistak diren oraingo Merkatal Sozietateak, bazkide kolektiboei erantzukizunaren mugapena ukatuz, ez dira benetan baliagarriak enpresa-iharduerak bideratzeko, salbuespenak salbu.

Hortik dator, bada, Kapital-Sozietateak eta Kooperatiba-Elkartearen artean Legediak aurrikus ditzakeen aukera ugari egotea. Euskadiko Legearen Bitariko Kooperatiba aipatu dugun bitarteko irtenbiderik-eza konpontzeko asmoz Kooperatiben Legediaren ahalegina adierazten duen “bitarteko” elkarte-mota da. Hala ere, ez da batere erraza Kooperatiben Legedia urrunago heltzea, Kooperatibek gizartearen aurrean duten irudia nahasteko arriskuan sartu gabe, “Kooperatiba” hitza erabiltzen ez duten elkarte-motak arautuz ez bada. Erantzukizun mugatua duten Sozietate Pertsonalisten araupen orokorra –edo Pertsonalista eta Kapitalisten bitartekoena– izatekotan, Sozietateen legedi orokorraren eskuetan utzi beharko litzateke (edo, bestela, esan dugunez, “Kooperatiba” hitza erabiltzen ez duten eta Pertsonalistak diren Elkarte-motak arautzeko aginpidea duen Kooperatiben Legedi baten eskuetan).

## 4. KAPITULUA

### KOOPERATIBA-ELKARTEA. ORGANO-EGITURA

#### 4.1. IRIZPIDE OROKORRAK

DALMARTELLO eta GIRON TENAren<sup>52</sup> iritziz, egitura “nahasia” edo “konplexua” duen Sozietate-mota bezala hartu behar dugu Kooperatiba-Elkartea, ondoko arrazoien ondorioz:

*“... berarizko ‘organoak’ sortu behar dira, Elkarte-iharduera bideratzeko asmoz bakoitzari bere aginpide-eremua egotziz. Organoen iharduera hori, berez, ez dago bazkide-izaerarekin loturik eta, beraz, bazkideek beraiek egitea ere ez da beharrezkoa... Bereizketa horren ondorioz, aldi berean beharrezkoa zaigu egitura “nahasia” duten Sozietate hauetan organo horiek eta hauen aginpideak koordinatu eta hierarkizatzea. Horrela, guztiz naturalki, goreneko lekua bazkide multzoari eman izan zaio, organo hau ere modu ezberdinean antolatuz”.*

Argi gelditu behar da Kooperatiba-Elkarteen antolakuntza jaurpidearen araupena, Elkarte hauek duten erantzukizun mugatuko izaeraren ondorio zuzena dela.

Izan ere, 1993a arteko euskal Legedian gertatzen zen bezala, Nafarroako Legearen 8. artikulua araberaren mugapena; Kooperatiben errealitateak, ordea, bazkideen erantzukizuna mugatzen ez duten Kooperatiba-Elkarterik ez dagoela erakusten digu.

Dakigunez, erantzukizun mugatua duten Sozietateen kasuan, askoz handiagoa da hartzekodunen arriskua, Elkartearen ondare bera alde batetik eta honen iharduera bestetik baino ez baitira hartzekodunen bermeak. Beraz, Legedi gehienek erantzukizun mugatuaren erabilpena baldintzatu egin dute; mugapen honen truke, lege ezarririk dauden organo- eta ondare-jaurpidea nahitaezkoa izaten zaie horrelako Sozietateei, hauen enpresa-ihardueran gutxiengo arau batzuk ziurtatzeko asmoz.

---

52. GIRON TENA: Aip., 302.

Hortik dator ba, legegileek, Kooperatiba-Elkarteen kasuan, konplexua den antolapen jaurpidea arautzea, “Korporazio”-izaera duena, bertan, enpresa beraren kontzeptua (“unternehmen an sich”) babesteko beharrak berarizko garrantzia hartzen baitu.<sup>53</sup>

Honen ondorioa da baita ere Kapital-Sozietateek duten “organo” kontzeptu berbera Kooperatiba-Elkarteei ere egoztea<sup>54</sup>, bai eta antzekoa den organo-antolakuntza erabiltzea ere.

Antzekotasun hau guztiz argia da “bazkideen bilkura” den Batzar Orokorren araupenean. Organo honen helburua, aginpideak, deialdia eta iharduera, Kapital-Sozietateen berezko organoen antzekoak dira.

Gauza bera gertatzen da Errektore-Batzordearen izendapen, aginpide eta iharduerarekin, Kapital-Sozietateek duten Administrazio-Kontseiluaren guztiz antzekoak baitira.

Hala ere, Kooperatiben Zuzenbideak izan duen garapenaren ondorioz, organo-antolakuntzaren antzekotasun hori ahaztu gabe, guztiz ezberdinak diren arazoak ere agertzen joan dira. Arazo hauek, Kooperatiben berarizkoak izanik, berarizko araupena ere eskatu dute.<sup>55</sup>

Garapen honen ondorioz, Legedi orokorrean ez dauden organoak arautu ditu Euskadiko Kooperatiben Legeak. Hauen artean Zaintza-Batzordea, Errekurtso-Batzordea edo Kontseilu Soziala.<sup>56</sup> Bestaldetik, Batzar Nagusi eta Errektore-

---

53. I. BARBERENAREN iritziz (aip., 106) “Kooperatiba, izaera pertsonalista hutsa duen Sozietate-mota da. Gainera, zaintza, kontrol eta kudeaketa demokratikoen oinarri-irizpidearen arabera dago arauturik. Beraz, Sozietatea eta bazkide kooperatzaileen artean dagoen autonomia -edo, nahi bada, beren artean dagoen arrotasuna edo urruntasuna- gutxienekoa da”. Ondorio hau, antza, Etxebizitzen Kooperatiben azterketatik dator, Kooperatiba-mota honen egonkortasun-erak eta elkarte-helburuaren iraupen-erak ere elkarte-egituraren sendotasuna larriki moteltzen dutelarik. Nire ustez, Kooperatiba-Elkarte berari ezin zaio arazoiketa hau egotzi.

54. Ik. SANZ JARQUE: “Cooperación ...”, aip., 527.

55. J. LLUIS Y NAVASEK (aip., 120) ondokoa esan zigun horretaz:

“...Kooperatibagintzaren berarizko ezaugarriak ondoko bi gaietan agertzen zaizkigu:

a) Kooperatibenak baino ez diren organoen zehaztapena: Kooperatiben Federazio Nazionala... eta Batzar Orokorren Prestatzeko Biltzarrak...

b) Beste elkarte-egituren antzekoak diren organoak zehazteko orduan Kooperatibenak baino ez diren arauak ezartzea. Adibidez, Batzar Orokorrean dagoen botu-kopurua eta Sozietate Anonimo baten Batzarrean dagoen botu-kopurua zehazteko arauak guztiz ezberdinak dira”.

56. Legean agertzen den “Elkarte-kontseilua” terminologia ez da egokia. “Soziala” hitzak bi zentzu guztiz ezberdinak ditu: “Bazkide” edo eta “Elkarte”. Kasu honetan, ez dugu “Elkarte” ordezkatzen duen organoa arautu nahi, alderantziz, bazkide-langileak, langileak bezala, ordezkatzen dituenak baizik. Hau argitzeko, kontutan hartu behar da baita ere, organo honek ez dituela langileak (lankide-bazkideak edo lan-bazkideak) ez diren bazkideak ordezkatzen.

Beraz, edo errealtatean erabiltzen den terminologia -“Kontseilu Soziala”- onartzen dugu edo, bestela, “Bazkide-Kontseilua” edo, agian, “Langileen Kontseilua” aukeratu beharko genuke.

-Batzordearen jaupidean Kapital-Sozietateek dituzten antzeko organoen araupenean aldaketa nabariak (agingideak, gehiengoak, etab.) sortu dira. Guztiz naturala den garapen honek, Kooperatiben Zuzenbidearen heldutasuna adierazten du. Hala ere, ez dugu ahaztu behar prozesu hau bideratu behar duen zuhurtasuna. Bestaldetik, Kapital Sozietateen araupenean agertzen diren lege aurrerapen guztiak ere kontutan hartu behar dira, hauek aztertu eta gero Kooperatiben Zuzenbidean izan dezaketen balizko interesa zehazteko asmoz.

#### **4.2. KOOPERATIBA TXIKI ETA HANDIEN ORGANO-EGITURA**

Dakigunez, Kapital-Sozietate txiki eta handiak arautzeko bi elkarte-mota ezberdinak zehaztea izan da Kapital-Sozietateen Zuzenbidearen erronka funtsezkoenatariko bat.

Gauza bera gertatu da Kapital-Sozietateen legezko egitura erabiltzen duten Kooperatiben kasuan (Frantzia adibidez edo lan-sozietateen kasuan Espainian ere). Hala ere, ez da gauza bera gertatu Kooperatiben Legedi gehienetan.<sup>57</sup>

Arazo honek Espainiako Kooperatiben Zuzenbidean Kooperatiba-Elkarte eta Kapital-Sozietateen artean egiten den banaketa argi eta garbian du jatorria. Honen ondorioz, Kooperatiben Zuzenbidea hutsetik abiatu da, Kapital-Sozietateen arloan aurretik ezarritako instituzio eta egitura bakoitza astiro berdefinituz eta barneratuz.

Kooperatiba-Elkarteek gure gizartean duten presentzia Kapital-Sozietateek dutena baino askoz murriztago da. Beraz, konplexuegi izango litzateke Kooperatiba handi eta txikientzako bi Legedi ezberdinak sortzea. Kontutan hartu behar dugu baita ere, orain dela gutxira Espainiako Legedian Sozietate Anonimoaren araupenak zuen erraztasunaren eta malgutasunaren ondorioz, bai enpresa txikia bai eta handia ere arautzeko gai zela Legedi berdina, betiere Kapital-Sozietateen esparruan.

Hala ere, esan dugunez, arazo hau ez da berdina Legedi guztietan. Frantzia, adibidez, Sozietate Anonimo zein Mugatuak Kooperatibak izan daitezke. Frantziako Kooperatibek duten legezko sistemaren ondorioz, erraza izan zaie Kooperatibei –Kapital-Sozietateen legezko garapenari loturik– aurrera jotzea eta,

---

57. Salbuespen gisa, 1974ko Lege Orokorrean zegoen Zuzendariaren araupena (eta 1993ko Legean agertzen diren arau batzuk ere). J. LLUIS Y NAVASEK (aip., 139) zera esaten zigen Kooperatibetan dagoen Zuzendariaren beharraz: “Kooperatiba handiago eta behar hau nabariago agertzen zaigu... Hortik dator Zuzendaria izateko behartuak diren eta baimena duten Kooperatiben arteko ezberdinketa”. Bestaldetik, 1993ko Legean, irizpide hau kontutan hartzen duten arau batzuk egon badaude. Hauen artean, Batzar Orokorreko deialdia (33.5), Ordezkarien Batzarra, Administrazioa Bakarra (41.1), Zaintza-Batzordea (50.1), Kontseilu Soziala (54.1), Kontuen ikuskaritza (72.1), Legelari aholkularia (73.1), etab.

zehazki, Sozietate txiki eta handien arteko araupen ezberdin hori eskuratzea. Eta hori dena, Espainiako Legedietan horrelako aurrerapenak eskatzen dituzten doktrina-ahaleginak egin behar izan gabe.

Esandakoa kontutan hartuz, eta Kooperatibagintzaren garapenaren ondorioz, gure inguruko Kooperatiben Legediek ere Kooperatiba-Elkarteen esparrura zabaldu beharko dute aipaturiko ezberdinketa hori. Kooperatiba handiek sortzen dituzten berarizko arazoak alde batetik eta, Kooperatibagintza beraren garapenaren ondorioz bestaldetik, gero eta argiagoa egingo zaigu orain dela gutxi nabarmentzen hasi den joera hori.

### **4.3. BATZAR OROKORRA**<sup>58</sup>

#### **4.3.1. Irizpide orokorrak**

Beste motatako Elkartean bezala, Kooperatiben Batzar Orokorra gorengo mailako organoa da, Kooperatibaren borondate “konstituzionala” adierazten duen bazkideen bilkura izanik.

Batzar Orokorrak duen erabakitzeke aginpidea, jakina, Legea eta Estatutuen esparruan mantendu behar da, nahiz eta Estatutuak aldatzeko aginpidea ere eduki.

Batzar Orokorraren aginpideek dituzten mugak ere aztertu behar dira. Gaurkotasun handiko gai honek, ez du deuseztatzen Batzar Orokorrak duen “gorengo mailako organo” izaera. Nahiz eta gai guztiei buruzko erabakiak ez hartu, erabaki horiek hartu behar dituzten pertsonak edo organoak izendatzea Batzar Orokorraren erabaki-esparruan gelditzen da beti.

Bestaldetik, kontutan hartu behar dugu Batzar Orokorraren deialdia eta iharduera arautzen dituzten arauak ezagunak direla eta –prozesu-egitura aldetik– Kapital-Sozietateen gorengo mailako organoen guztiz antzekoak. Beraz, horrelako kontzeptuak aztertzerakoan aldaketa garrantzitsuak ezartzea ahalbideratzen duten legezko tresnak baino ez ditugu azpimarratu behar.

Batzar Orokorraren aginpide-esparruaz eta botua emateko eskubidearen araupenaz –organo honen legezko izakera ulertzeko funtsezkoak diren gaiak– aurrerago arduratuko gara. Bertan ikusiko dugu Batzarraren osaketak duen berezko garrantzia, bazkide-mota ezberdinak egotekotan. Egiaz, erabiltzaile edo lankideak ez diren bazkideak –lan-bazkideak, laguntzaileak, ihardunik gabekoak edo erabiltzaile ez direnak (bai eta akziodunak ere bitariko Kooperatibetan)– egonez

---

58. Kooperatiben errealitatean, bai “Batzar Orokorra”, bai eta “Batzar Nagusia” ere esaten da. 1982ko Legean “Biltzar Nagusia” agertzen zen. Beraz, orain indarrean dagoen 1993ko Legean agertzen den “Batzar Orokorra” erabiltzeak egokiena ematen du.

gero, guztiz bitxia –baina gero eta ohizkoagoa– den Batzar eraketa sortzen da, oraindik konpondu gabe dauden legezko arazoak agertaraziz.

“Ordezkarien Batzarra” delako legezko tresna hori ere garrantzitsua da, Euskadiko Kooperatiben Legearen 38. atalean aurrikusita “Kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago baldin baditu edo Batzar Orokorrean bazkide guztiak egoteko behin eta berriz oztopo larriak eragiten dituzten egoerak gertatzen badira”. Legezko tresna honen bidez “Batzar Orokorra, prestatzeko biltzarretan aukeratutako bazkideen ordezkarietz osatzea jaso ahal izango da Estatutuetan”.

Kooperatiben Batzar Orokorren izakera ulertzeko, bazkideak nortzuk diren kontutan hartzea ere funtsezkoa da.

Printzipioz, Kooperatibaren bazkideak “pertsona fisiko zein juridikoak, publiko nahiz pribatuak izan daitezke”. Hala ere, bazkide “kooperatzaile” izateko, Kooperatiba-ihardueran parte hartzeko gai izatea beharrezkoa da baita ere (langilea, hornitzailea, bezeroa).

Gainera, Euskadiko Kooperatiben Legearen 19. artikuluan aurrikusitako “bazkide laguntzailearen”<sup>59</sup> bidez, Batzar Orokorrean bazkide “kooperatzaileak” ez diren beste motatako pertsona fisiko zein legezkoek ere parte hartzea ahalbidetzen da. Hala ere, “Bazkide hauek, Kooperatiba-Elkartek ez badira behintzat, ezin izango dute, guztira, botuen herena baino gehiago izan, ez Batzar Orokorrean ez eta Artezkaritza-Kontseiluan (Errektore-Batzordean) ere”.

Bazkide laguntzaile honen izakerari buruz bi iritzi ezberdin hauek ditugu:

- a) Bazkide laguntzailea Kooperatiba-ihardueran parte hartzen ez duen bazkidea da. Beraz, bere “laguntza” edo berak ekarritako ekarpena Kapital-ekarpena baino ez da.
- b) Bazkide laguntzaileak ezin du “bete-betea” Kooperatiba-ihardueran parte hartu. Hala ere, 1993ko Legearen 19.2. atalak dioenez, “Elkartearen Kooperatiba-xedea bete-betea aurrera eramaterik izan gabe ere, xede horri laguntzea nahi badute, bazkide izateko aukera izango dute, eta laguntza-bidezko bazkide deituko zaie”. Beraz, bazkide pertsonalistatzat har ditzakegu.

Egiaz, Kooperatiben errealitatean bi kasu agertzen dira. Bazkide laguntzailea guztiz erabilgarria den tresna bihurtu da legegizon eta enpresa-kudeatzaileentzako, kooperatzaileak ez diren pertsonen –muga batzuen barruan– bazkide-izaera egozte ahalbideratzen baitu eta horrek berebiziko interesa duten legezko aukera berriak agertarazten ditu.

---

59. 1993ko Legean “laguntza bidezko bazkideak” dute izena.

Zeharo ezberdina da 1996ko Foru-Legearen 29. artikuluan arautzen diren “bazkide-tuen” kasua. Artikulu horren arabera “Bidezko arrazoiren bat izan eta bazkide izaten utzi dezatenak, bazkidea hilez geroko eskubidedunak, bai eta antzeko izaera duten beste egoeretan daudenak ere” izango dira bazkide-tuak. Argi dago kontzeptu honek, lan-ekarpenik gabe, kapital-ekarpena adierazten duela, Euskadiko Kooperatiben Legearen 30. artikulua-ren ihardunik gabeko bazkide edo erabiltzaile ez direnekin gertatzen den eran.<sup>60</sup>

Argi dago Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorren 3.bis artikuluan arautzen diren “erabiltzaile ez diren” bazkideak ere bazkide kapitalistak direla.

#### 4.3.2. *Aginpideen esparrua*

1993ko Euskadiko Kooperatiben Legea indarrean sartu arte, Batzar Orokorren aginpide esparruan –organo erabakitzaile gisa– ez zegoen mugarik euskal Legedian. Honen ondorioz, bai Elkarte-arloan garrantzi handia duten gaietan (desegitea, bategitea, etab.) bai eta enpresa edo Elkarte-arloan garrantzirik ez duten gaietan ere, legez baliogarriak ziren erabakiak hartzeko gai zen Batzar Orokorra.

Hala ere, 1993ko Legearen 31.1 artikulua horrela zehazten du Batzar Orokorra: “Kooperatibako Batzar Orokorra bazkideen bilkura da eta bere aginpidekoak diren arloez eztabaidatu eta akordioak hartuko ditu”.

Atal bereko 4. azpiatalean indartu egiten da irizpide hau: “... lege honen arabera behartze-indarreko akordioak Elkarteko beste organo baten aginpidekoak ez diren arloetan bakarrik hartu ahal izango ditu Batzar Orokorrak”.

Kontutan hartzekoa da Legearen 40.1. azpiatalaren arabera “Kooperatiba kudeatzea eta ordezkatzea soil-soilik administratzaileen egitekoa izango dela”. Egozpen hau ez dagokie “ohiko kudeaketa” ekintzei bakarrik, baita “garrantzi handiko kudeaketa-ekintzei” ere. Irizpide hau 46. atalaren 3. azpiatalean egiaztatzen da, eta honen arabera ondoko erabaki hauek dagozkio Errektore-Batzordeari:

*a) Iharduera-zentru nagusi bat edo beronen zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzeko.*

*b) Kooperatibaren ihardueran murrizketa, hedapen edo berrikuntza nabarmenak eragiteko.*

*c) Kooperatibaren antolaketan garrantzi handiko aldaketak sortzeko.*

---

60. Hala ere, 1996ko Legean, bazkide-tu hauen ezaugarriak zeharo aldatu dira, botu-eskubidea galdu baitute. Bestaldetik, 30. artikuluan “bazkide laguntzaileak” arautzen dira, kooperatiben arteko itunen kasuetan erabilgarriak izanik.



*d) Beste erakunde batzuekin, Kooperatiba edo bestelakoekin, Kooperatibarentzat etengabeko eta balio handiko elkarlana ekarriko duten harremanak sortzeko edo desegiteko”.*

Bestaldetik, Batzar Orokorraren “aginpidekoak diren arlo” horiek Legearen 31. ataleko 3. azpiatalean zehazten direnak dira, ondoko bi aldagaiekin:

a) “Bigarren mailako Kooperatibak, Kooperatiba bazkunak eta antzeko erakundeak eratzea, bai eta horiek elkarri eratzikitzea eta elkarrengandik banatzea ere” Kooperatibako beste organo bati ordezkotzan emateko dagoen aukera.<sup>61</sup>

b) Batzar Orokorra eta administratzaileen arteko aginpide-esparruaren mugapena Estatutuek zehaztu behar dute, 31.3.i) atalean esandakoaren arabera. Bertan “Estatutuen arabera kooperatibaren ekonomia, antolaketa eta egitekoen egituretan oinarritzko aldaketak eragin ditzaketen beste erabaki guztiek hartzea” Batzar Orokorrari egotzen baitaia.

Ikusi dugunez, nahiz eta Legearen 31.3 azpiatalean agertzen den aginpideen zerrenda hori zabaltzea posible izan, “egiturazko oinarritzko aldaketak” kontzeptuaren barruan baino ezin da zabaldu. Kudeaketa- edo administrazio-arloko gainontzeko aginpideak administratzaileen esku gelditzen dira.

Hala ere, enpresa-errealitatean, Batzar Orokorraren aginpideen mugapen horrek ez du arautzeko aginpidean eraginik izango. Aginpide hauek Kooperatibaren Barruko Araudian agertarazteko aukera egon badago, eta Araudi hori onartzea Batzar Orokorrari dagokio, 31.3. j) azpiatalaren arabera.

Bestaldetik, aipatu dugun i) paragrafoa interpretatzea ez da batere erraza izango. Honen arabera, esan dugunez, “i) Estatutuen arabera Kooperatibaren ekonomia, antolaketa eta egitekoen egituretan oinarritzko aldaketak eragin ditzaketen beste erabaki guztiak hartzea” Batzar Orokorrari dagokio.

Zera hartu behar dugu kontutan:

1. “Ohiko kudeaketa” Errektore-Batzordeari dagokio eta, beraz, Estatutuek ezin dituzte Batzar Orokorraren aginpideak arlo honetara hedatu.
2. “Garrantzi handiko kudeaketa ekintzen” arloko erabaki batzuk, printzipioz Errektore-Batzordeari dagozkionak, Batzar Orokorrari egotzi diezaizkiokete baita ere Estatutuek.

---

61. Nahiz eta Legearen euskarazko bertsioan “eskuz aldatu” esan, erdarazkoa aztertu eta gero, benetako adierazpena “ordezkotzan eman” izatearen alde nago.

3. Estatutuen bidez Batzar Orokorrari egotzi dakizkiokeen aginpide horiek “egiturazko oinarrizko aldaketak” kontzeptuaren barruan egon behar dira. Beraz, “oinarrizko aldaketak”, “ekonomi egitura”, “antolaketa-egitura” edo “egitekoen egitura” kontzeptu hauen mugak argitzeko zaila izango litzatekeen gramatika-interpretazioa egin beharko genuke.

Honen ondorioz, kasu bakoitzaren berezko ezaugarriak aztertu behar ditugu, “egiturazko oinarrizko aldaketa” baten aurrean gaudela argitzeko, betiere Batzar Orokorrak duen erabakitzeko gaitasuna zabaltzeko asmoz.

Batzar Orokorra eta Errektore-Batzordearen aginpideen artean mugapen zehatza ezartzea egokia den ala ez jakiteko, alde batetik Kooperatiba txikiak eta bestaldetik handiak aztertu behar ditugu.

Bazkide-kopuruaren aldetik txikiak diren Kooperatiba askotan (Lan-Kooperatiba gehienak) antzekoak dira Batzar Orokorra eta Batzorde Errektorearen osaketak. Beraz, aipaturiko aginpide zehazpen horrek ez dauka berarizko interesik.

Arazo hau zeharo ezberdina da Kooperatiba handietan. Bertan guztiz onartua dago garrantzia ez duten gaiak ez direla Batzar Orokorraren aurrean aurkeztu behar.

Nahiz eta batzuen iritziz horrela izan, ez dut uste Batzar Orokorraren benetako ahalmena horrelako aginpide-mugapena egoteagatik murrizten denik. Alderantziz, organo baten benetako ahalmena, askotan, dagozkion aginpideak egikaritzeko orduan erakusten duen eraginkortasunari dago lotuta. Horrexegatik, erabaki zuzen edo eraginkorrak hartzeko gai ez den arloetat aritzeagatik okerreko erabakiak hartzen baditu Batzar Orokorrak, organo honen irudia kaltetzea baino ez du lortzen. Batzar Orokorra kudeaketa gaietaz gehiegi aritzen bada, Zuzendaritza, elkarte-organo eta bazkideen aurreko bere irudiari kalte larriak egingo dizkio.

Bestaldetik, zalantzak sortzen dira Batzar Orokorraren aginpideen mugapen hori Kooperatibak berak erabakitzen duen mugapena –Estatutueta ala Estatutueta kanpo– ala legez arauturiko mugapena izan behar den erabakitzeko orduan.

Gai honetaz dauden kultura enpresarial ezberdinetan datza benetako arazoa. Ezberdintasun honen ondorioz, aginpide-mugapen egokia zein den zehazteko orduan, Kooperatiba bakoitzak duen iritzia zeharo ezberdina da. Beraz, legez ezarritako mugapenak Kooperatiba gehienek eskakizunei erantzutea oso zaila da.

Horrexegatik, hortaz dagoen esperientzia-falta kontutan hartuz, apur bat erradikaltzat har dezakegu Euskadiko Kooperatiben Legearen irizpidea.

Apalagoa edo neurrizkoagoa da Nafarroako Kooperatiben Foru-Legearen irizpidea. Lege honen 32. artikulua Batzar Orokorra “Kooperatiba-Elkarteak duen

gorengo mailako organo aztertzaile eta erabakitzaile”tzat hartu eta gero, organo honen aginpideak zerrendatzen ditu 33. artikulua, itxuraz itxia den zerrenda baten bidez. Hala ere, 33. artikulua honen 1.d) azpiatalak “d) Estatutu edo Foru Lege honen bidez egozten zaizkion gainontzeko aginpideak” Batzar Orokorrari egozten dizkio, horrela Batzarraren aginpide-esparruaren mugapena Estatutuen eskuetan utziz.

Bere aldetik, Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorraren 7. artikulua zera esaten digu: “Kooperatiben Estatutuek... Batzar Orokorrari egotzitako aginpideak zehaztuko dituzte”, bai eta “administratzaile edo gerenteen ahalmenak” ere, Kooperatibari dagokion lege-araupenaren arauak (Sozietate Zibila, mugatua ala anonimoa) ere gorde behar direla ahaztu gabe.

### **4.3.3. Botu-eskubidea**

Kooperatiba-Elkartea duen berarizko ezaugarri funtsezkoena, Batzar Orokorrean batzarkideek duten botu-eskubidea egozteko irizpideetan datza.

Egiaz, Kooperatiba-Elkartearen gorengo organoaren botu-eskubidearen banaketa zehazteko orduan, izaera “berdintzailea” duen funtsezko irizpide baten oinarritzen da: botua “bazkide bakoitzak, botu bana” oinarri-irizpidearen arabera banatzea bazkideen artean. Nafarroako 1989ko Kooperatiben Legearen 2.4 artikuluan, testu zehatzago batez agertzen zaigun aipaturiko irizpide hori: “bazkide guztiek duten botu-eskubidearen berdintasuna”, baita Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorraren 4. artikuluan ere.

Nahiz eta oinarrizko irizpide hori Kooperatiben Legedi guztietan onartua izan, irizpidea ez da kasu guztietan betetzen, batez ere bazkide-mota ezberdinak dituzten Batzarretan dagoen botu-banaketa arautzeko orduan.

Aldi berean lan-bazkideak eta bazkide erabiltzaile edo kontsumitzaileak –edo ihardunik gabeko bazkideak edo erabiltzaile ez direnak– dituzten Kooperatibetan “bazkide bakoitzak botu bana” irizpidea alde batetik, eta Kooperatibaren bazkide-multzo bakoitzari elkarte-agintean dagokion partehartzea bestaldetik nola lotu jakitea ez da erraza.

Kontutan hartzekoa da Legediak berak bazkide-multzo hauen botu-eskubideari mugapen zehatzak ezartzen dizkiola. Horrela, Euskadiko Kooperatiben Legeak ihardunik gabeko bazkideen edo iraupen jakineko bazkideen kasuan, botuen %20ko muga ezartzen du, botu guztien heren bat laguntza bidezko bazkideen kasuan, %49a Bitariko Kooperatibetan dauden bazkide kapitalisten kasuan, etab. Aldi berean, 1989ko Nafarroako Legeak “bazkidetuak” delakoen kasuan (oraingo Legean “bazkide laguntzaileen” kasuan) ezartzen duen %20a edo Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorrak kapital-bazkideentzako ezartzen duen %35a edo %49a, etab.

Antzeko zerbait gertatzen da lan-bazkideen multzoaren botu-kopuru osoarekin, bazkide hauek gutxiengoan dauden Kooperatibetan. Euskadiko Kooperatiben Legearen 21.3 atalean zera esaten da hortaz:

“Lan-bazkideek Kooperatiban bidezketasunez eta neurri batzuen barruan parte hartzeko irizpideak finkatu beharko dira Estatutuetan”.

Orain arte, irizpide honen ondorioz, Batzar Orokorrean bazkideek izan behar duten botu-kopuru osoaren muga ehuneko baten bidez Estatutuetan zehaztea onartu egin da.

Hala ere, gai hau zehaztu gabe daukagu Kooperatiben Legedian. Edonola ere, bazkide-mota bati legez zein Estatutu edo araudi bidez ezarritako mugak indarrean jartzeko asmoz, ondoko tresnak erabili izan dira Kooperatiben errealitatean:

a) Mota horretako bazkideen onarpena mugatzea.

Bazkide bakoitzari botu bana egotziz gero, behin botu-eskubide guztirako dagoen muga helduta, ez da mota horretako bazkide gehiagorik onartzen. Horretarako, onarpena murrizteko beharrezkoak diren arauak Estatutuen bidez ezartzen dira.

b) “Bazkide bakoitzak botu bana” irizpidearen ordeztu, “Batzarkide bakoitzak botu bana” irizpidea erabiltzea.

Horrela, Batzar Orokorra burutu baino lehenago, mugaturiko bazkide-mota horren ordezkariak “prestatzeko biltzarretan” aukeratzen dira. Biltzar hauen helburua bazkide-mota baten ordezkapena legean edo Estatutuetan ezarritako mugapenari egokitzean datza.

c) Legean edo Estatutuen bidez mugaturiko bazkide-multzoari botu-eskubide zatikatua egotzea da helburua —edo, alderantziz, gainontzeko bazkideei botu plurala edo anitza egotzea—.

Hauxe da benetan arrazoizkoa ematen duen irizpidea. Horrela, bazkide-mota bakoitzari dagokion botua proportzionalki gutxituz edo gehituz, bi bazkide-multzoak legean edo Estatutuetan zehazturiko ehunekoetan kokatzen dira.

Egiaz, doktrina-arloan orain arte egon diren iritzi batzuek zalantzan ipini dituzte horrelako irtenbide teknikoak, “bazkide bakoitzak, botu bana” oinarri-irizpidea kolokan jartzeagatik edo. Hala ere, errealitatearen arrazoiak oinarri-irizpideen interpretazio itxien ginetik aurrera ateraz doaz.

Egia da legearen arabera multzo batzuen botu-kopuruak mugatua izan behar duela. Baina mugapen hori arrazoizko irizpideen bidez sartu behar da indarrean.

Horrexegatik, “bazkide bakoitzak, botu bana” oinarri-irizpide horren orde, “botu eskubidearen banaketa berdintzailea” oinarri-irizpidea erabili beharko genuke. Eta, beharbada, bazkide-mota bat baino gehiago egotekotan, oinarri-irizpide hori “mota bakoitzeko bazkideen arteko botu-eskubidearen banaketa berdintzailea” izan beharko luke.

Horrexegatik, 1989ko Nafarroako Legearen 35.2. atalak botu-eskubidea arautzen zuenean “bazkide bakoitzak botu bana izateko eskubidea izango du, bazkide-tuei buruz ezartzen diren bereizgarritasunak kontutan hartuz” adierazten zuen baita ere. “Bazkide bakoitzak, botu bana” oinarri-irizpidea bazkide-tuei egozteko orduan, multzo honi ezarritako %20ko mugapena kontutan hartu behar genuela zen esaldi honen esanahia. Kontutan hartu behar dugu bazkide-tuen kopurua %20koa baino gehiagokoa bazen eta botu-mugapen hori errespetatu nahi baguenen, ezinezkoa zen oinarri-irizpide hori zehazki gordetzea.

Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorrak ere, honen 3.bis artikuluan, erabiltzaile ez diren bazkide diru-ekarleen botu-eskubidea egozteari buruz zera esaten du:

“Duten kapitalaren ehunekoak... botu-eskubide osoaren %35a edo %49a, kasuan kasu, gainditzen badu, bakoitzari egotzitako botu-kopurua dagokion proportzioan gutxitu beharko da”.

Irizpide hau, guztiz arrazoizkoa dena, Kooperatiben errealitatean gertatzen denarekin bat dator. Ziurraski, hemendik aurrera Kooperatiben gainontzeko Legediek jarraitu behar duten bidea iragartzen du baita ere.

Kasu zehatz batzuetan legeak argi eta garbi onartzen duen botu plurala edo anitza oso arazo ezberdina da.

Hori izan da gure inguruko Legedien betiko irizpidea, Bigarren Mailako Kooperatibetan eta Kooperatiben Korporazio edo Bazkunetan. Irizpide honen arabera, “erakunde bakoitzaren botu-eskubidea, elkarlanean duen partehartzearen edo bazkide-kopuruaren araberakoa izango da” (Euskadiko Kooperatiben Legearen 131.1. atala eta, antzekoa izanik, Nafarroako Kooperatiben Legearen 35.2. artikulua).

Era berean, Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorren 9. artikuluan arabera “*Kooperatiben kide-kopuruaren arabera edo Batasunarekin egindako eragiketen kopuruaren arabera –eta ahal den modu proportzionalenean– egotzi ahal izango diete botu-kopurua Kooperatiben Batasunen estatutuek hauen kideak diren Kooperatibei*”.

Irizpide berdintzailearen apurketa honen zergatia nabaria da: bazkide diren Kooperatiben arteko ezberdintasuna. Ezberdintasun hori derrigorrez hartu behar dugu kontutan botu-eskubidea egozteko momentuan, bigarren mailako egitura hauetan parte hartzeko gogoak edo pizgarriak irautea nahi badugu.

Egiaz, horrelako tresnen sustraia eta arrazoia Sozietateen Taldeak arautzeko erabiltzen diren oinarri-irizpide orokorretan aurkitzen dira, gehienetan Sozietate bakoitza banan-banan arautzeko asmoz sortzen diren oinarri-irizpideak, Sozietate-multzo bati egotzi behar izatearen ondorioa direnak.

Zehazki, “Kooperatibaren bazkide bakoitzak, botu bana” oinarri-irizpidetik “Elkarturiko Kooperatiben multzoaren bazkide bakoitzak, botu bana” irizpidera igarotzea besterik ez da aipatu dugun “Kooperatiba bakoitzak duen bazkide-kopuruaren araberako botu-eskubidea”.

Euskadiko Kooperatiben Legea, arazo hauen ondorioz, beste aurrerapauso bat ematera ausartu da eta botu plurala edo anitza ezartzeko aukera –Kooperatiba-mota guztientzat– onartu du, ondoko baldintzetan:

“35. atala. Botu-eskubidea.

1. ...
2. ... lehen mailako Kooperatibetan, Kooperatiba, Kooperatibak kontrolatutako Elkarte eta herri-erakunde diren bazkideen botu-eskubidea, Kooperatibarekin duten iharduera-mailaren edo Kooperatiba hauen arteko harremanetan osagarriak diren eskaintzen neurriaren araberakoa izatea ohartarazi ahal izango da Estatutuetan.  
Halakorik baldin badago, Estatutuetan garbi asko zehaztu beharko da botu-eskubidea neurtzeko irizpideak zein diren.  
Kooperatiba-Elkartekoa ez den bazkide batek izan dezakeen botu-kopurua ezingo da Kooperatibako botu guztien herena baino handiagoa izan.
3. ...”.

#### **4.4. ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA**

##### **4.4.1. Errektore-Batzordea (edo Artezkaritza Kontseilua<sup>62</sup>)**

Kooperatiben euskal Legedian indarrean egon den administrazioaren betiko antolakuntzak, “Errektore-Batzordea” deituriko elkarreango organoan du oinarria.

---

62. TERMINOLOGIA: CONSEJO RECTOR/CONSEIL D’ADMINISTRATION

“Consejo Rector” edo “Conseil d’administration” erdarazko hitza nola esan beharko genuke euskaraz? Tamalez, erantzuna ez da batere erraza.

Euskadiko Kooperatiben Legearen 40.1. atalaren arabera “Kooperatiba kudeatzea eta ordezkatzea” soil-soilik Errektore-Batzordearen egitekoa izango da eta, “bestalde, legeek edo Estatutuek elkarteko beste organo baten esku berariaz uzten ez dituzten beste aginpide guztiak ere beraienak izango dira”.<sup>63</sup>

Errektore-Batzordearen oinarrizko egitura eta iharduera Kapital-Sozietateek duten ohiko organo administratzaileen antzekoa da. Hala ere, bereiztasun batzuk egon badira:

1. 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen 41.1. atalaren arabera, Errektore-Batzordearen ordezkari Administrazioa Bakarra izan ahal izango da, “Kooperatiban hamar bazkide baino gehiago ez baldin badira”. Aukera hau ez zen 1989ko Nafarroako Kooperatiben Legean agertzen, baina bai agertzen dela 1996ko Legearen 37.2 atalean.

---

Kooperatiben errealitatean, gehien entzuten diren hitzak “Kontseilu Errektorea” (batez ere, Arrasateko Taldearen inguruko Kooperatibetan) eta “Errektore-Batzordea” dira (azkeneko hau, ikastolen kasuan entzuten da gehienbat, nahiz eta ikastola batzuetan “Zuzendaritza-Batzordea” ere agertu).

Bestaldetik, indarrean egon diren araudi eta legeetan agertu diren hitzak ondokoak dira:

\* 1982ko Legean eta 161/1982 Dekretuan “Artezte-Kontseilua”

\* 1993ko Legean “Artezkaritza-Kontseilua”

\* 189/1994 Dekretuan “Artezte-Batzordea”

“Consejo de Administración” esateko ere, testu ofizialetan “Arduratzte-Batzorde”, “Arduratzte-Kontseilu” eta “Eraentza-Batzorde” erabili dira.

1976an egindako 1974ko Legearen itzulpenean (Jokin Zaitegi?) “Zuzendari-Batzordea” erabili zen.

S. GOÑIK (“Zuzenbidea eta enpresa”, Donostia, 1984) “Kontseilu Zuzendaria” esaten du.

UZEIren hiztegian (bai eta S.GOÑIren liburuetan ere) “Administrazio-Kontseilu” hitza agertzen da Kapital-Sozietateen kasuan, nahiz eta Kooperatiben “Consejo Rector” delakoa itzultzeko aukera zehatzik agertu ez.

Egiaz, ikuspegi juridikotik, indarrean dauden arauetan erabiltzen den terminologia hartu behar da kontutan. Hala ere, kasu honetan -ikusitako dugunez- zeharo ezberdinak diren aukerak ditugu aurrean: “Artezkaritza-Kontseilua” Legean eta “Artezte-Batzordea” Dekretuan.

Bestaldetik, Kooperatiben errealitatean, ikusi dugunez, “Errektore” hitza baztertzea guztiz zaila egiten zaigu. Beraz, kasu honetan, salbuespen bat egingo dugu eta indarrean dauden arauetan agertzen ez den hitza erabiliko dugu, “Errektore-Batzordea” edo “Kontseilu Errektorea” esateko.

63. 1996ko Nafarroako Legearen 37.1 artikulua antzeko edukia du, nahiz eta, honen arabera, Errektore-Batzordeak “gobernu-organo” izaera ere izan. Bere aldetik, Frantziako legediak araupen bereziak ezartzen ditu, Kooperatiba-moten arabera. Nekazaritza Kodearen 524.1 artikuluan arabera, nekazaritza-arloko Kooperatiba-Elkartek eta hauen Batasunen administrazioa, Administrazio-Batzorde edo eta -Sistema Bikoitzaren arabera- Zaintza-Batzorde eta Zuzendaritzaren bitartez ere antolatuko da. Gauza bera gertatzen da Gutxiakari diren Merkatarien Kooperatibak, Banka-Kooperatibak edo SCOPen (Produktziozko Langileen Kooperatibak) kasuan ere. Hala ere, SCOPak arautzen dituen legearen 16. artikuluan arabera:

a) SCOP hori Erantzukizun Mugatuko Sozietate gisa eratu bada, Batzar Orokorrek izendatuko ditu gerenteak.

b) SCOPak 20 bazkide baino gehiago izatekotan, Zaintza-Batzordea eratu beharko da.

Administratzaile Bakarra izateak duen balizko arriskua ahaztu gabe, Euskadiko Kooperatiben Legearen irizpideak egokia ematen du. Adibidez, bost langile-bazkide baino gehiago ez dituen Kooperatiba bati hiru kidez osaturiko Errektore-Batzordea eratzera derrigortzea ez da batere arrazoizkoa.

Beraz, Administratzaile Bakarra izateko Kooperatiba txikiek duten aukera hori, Legediaren hurrengo egokitzapenek ere hartu beharko dute kontutan.

2. Horrelako zerbait esan dezakegu Kontseilari-Ordezkarari eta Egiterapen-Batzordeei buruz ere. Biak daude aurrikusita Sozietate Anonimoen Legean baina ez Kooperatiben lege gehienetan. Hala ere, 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legeak, bai eskumen orokorrak (41.6. atala) bai eta aginpideren baten etengabeko ordezkotza (46.5. atala) aurrikusten ditu.

Nahiz eta –1982ko Legearen arabera– horrelako baliabideak onartzea guztiz zalantzarria izan, tresna hauek Estatutuen bidez arautzea onartu egin zen, Erroldaren malgutasunari esker. Ez dugu ahaztu behar horrelako tresnak garrantzitsuak direla Sozietate Anonimo handien malgutasuna eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

Esan dugunez, Kooperatiba-Elkarteen kudeaketa eta ordezkapena Errektore Batzordeari dagokio, organo honen itxurazko ezaugarriak eta Kapital-Sozietateen Administrazio-Kontseilu edo Batzordearenak gehienetan guztiz antzekoak izanik.<sup>64</sup>

Hala ere, legetan agertzen diren salbuespenak ere adierazgarriak dira.

Hauen artean, administrazioa Sistema Bikoitzaren arabera antolatzekeo Frantziako Legedian dagoen aukera (dakigunez, Sistema honen bidez, administrazioa bai Zuzendaritza bati, bai eta Zaintza-Batzorde bati ere dagokie).

Euskadiko Kooperatiben Legearen 135. artikulua bidez, aukera hori bideragarria da baita ere Kooperatiben Korporazio edo Bazkuneren kasuan. Bertan “Administrazio-ardura Kontrol-kontseilu baten eta zuzendaritza-organoren baten artean banatuko da Kooperatiba-bazkunaren Estatutuetan”.

Azkenik, Lege honen 41.1. atalean Errektore-Batzordearen ordezkari gisa aurrikusten den Administratzaile Bakarra (atal honen 2. azpiatalaren arabera, Kooperatibaren bazkide izan beharko da Administratzaile Bakar hori) azpimarratu behar dugu baita ere.

---

64. J. LLUIS Y NAVASEK (aip., 131) horrela zehazten zuen Errektore-Batzordea:

“Batzar Orokorraren menpe, Erakunde baten (kasu honetan, Kooperatiba) ihardueraz arduratu eta honen gobernu bideratzen duen (eta iharduera-arauak ezartzen dituen) pertsona-multzoa edo bateango organoa”.



Beraz, aipaturiko arau-salbuespenak izan ezik, Errektore-Batzordea eta Administrazio-Kontseiluaren antolakuntza antzekoak dira. Hala ere, itxurazko antzekotasun hori eta errealtatean gertatzen dena ez datoz bat, jarraian ikusiko dugunez.

#### \* BATZORDEKIDEEN BAZKIDE-IZAERA

Errektore-Batzordearen eta Administrazio-Kontseiluaren arteko ezberdintasunak, hasteko, organo hauen kideen izaera aztertzeko momentuan agertzen dira, Kooperatiben kasuan, gehienetan, bazkide izatea eskatzen baitaie.

Euskadiko Kooperatiben Legearen 41.2. atalak, aurreko ohitura apurtuz, “kideen laurdena bazkide ez diren artean hautatu ahal izango da, Estatutuetan berariaz galarazten ez bada behintzat”.

Aitzitik, Nafarroako Foru Legean ez da inon agertzen Kooperatibaren batzordekideek bazkide izateko duten beharra. Beraz, Espainiako Kooperatiben Lege Orokorra ordezkapenaz (osagarritasunez) indarrean sartu behar denez ohiko zalantzaren aurrean gaude. Kontutan hartu behar dugu Lege Orokorren 56. artikulua batzordekideek bazkide izan behar dutela eskatzen duela, irizpide orokor bezala.

SCOPak arautzen dituen Legearen 1. artikulua, “Lan-Kooperatiba” zehazteko orduan, bertako enpresa-iharduera langileek “zuzenki nahiz haiek eta haien artean izendaturiko ordezkoen bidez kudeatzen dutela” esaten du.

Baldintza hori ematen duena baino askoz garrantzitsuagoa da, batez ere, Lankide-Kooperatibetan eta lan-bazkideek agintean partehartze handia duten gainontzeko Kooperatiba moten kasuan.

Egiaz, horrelako Kooperatibetan, batzordekidearen bazkide-izaera hori, Batzar Orokorren ordezkapen zuzena eta leiala bideratzeko Errektore-Batzordeak izan behar duen jarreraren bermea izan daiteke.

Hala ere, bazkide-izaera hori izan beharraren alde kontutan hartzekoak diren arrazoiak egon badaude.

Hasteko, legezko teknikaren aldetik, arazoak sortzen dira legezko pertsonen batzordekide bat baino gehiago badagokie. Horrelako kasuetan, legezko pertsonen Errektore-Batzordean izan behar duten ordezkapena modu egoki batez arautu beharko litzateke.

Dakigunez, Kooperatiben lege gehienek batzordekide horiek bazkide izatea eskatzen dute. Beraz, itxura onekoak ez diren baliabide formalak derrigorrez

erabili behar dira; hauen artean, adibidez, ordezkari horiek Euskadiko Kooperatiben Legean arautzen den laguntza bidezko bazkide gisa onartzea.

Arazo hau konponduta egon liteke Espainiako Kooperatiben Lege Orokorren 62. artikularen bidez. Artikulu honen arabera “bazkidea legezko pertsona bada, honen legezko ordezkariak edo hautaketa bakoitzerako aukeratzen den eta –edozein motatako tituluz– horren parte den pertsona fisikoak ahal izango du Batzorderako hautatua izan”. Arau honek, salbuespen honen bidez, horrelako bazkide-motarekin sorturiko arazoa konpondu egiten du, ordezkotzaren<sup>65</sup> bidezko (osagarritasunezko) arau honen baliogarritasuna onartzen badugu. Ordezkotzazko (osagarritasunezko) irizpide hau onargarria izan daiteke Nafarroako Foru-Legearen kasuan, baina zalantzan ipini behar da Euskadiko Kooperatiben Legean. Batzordekideen bazkide-izaerari buruz azkeneko lege honetan agertzen diren baldintzak argiak eta garbiak izanik, ez du ematen leku handirik dagoenik ordezkotzaren bidezko interpretazio horretarako.

Bazkide ez diren batzordekideak onartzearen alde dagoen bigarren arrazoiak, Legeditik kanpo eta enpresa-errealitatera eramaten gaitu.

Arrazoi hori ulertzen hasteko, kontutan hartu behar dugu Errektore-Batzordeak dituen betebeharren artean kontrolak edo zaintzak duen garrantzia.

Gauza jakina da Kooperatiben antolakuntza-egiturari buruz –eta, zehazki, Lankide-Kooperatiben egituraz– dauden “aurkako” argudioen artean (argudio kritikoen artean), funtsezkoenetariko bat esandakoarekin guztiz lotuta dagoela. Errektore-Batzordearen kideak aldi berean gerentearen menpekoak izanik, hauen betekizunak iharduteko duten gaitasunaz zalantza nabariak sortzen dira.

Horra hor bazkide ez diren batzordekideak egotea zergatik izan daitekeen oso tresna interesgarria Batzar Orokorarentzat, Batzordearen iharduera eraginkortasunez betetzen dela eta gerentzia ere modu eraginkor batez zaindua dela ziurtatzeko asmoz baliogarria izan badaiteke.

Azkenik, irtenbide honen alde dagoen beste arrazoiak bazkideen lanbide gaitasunean datza. Batzordekideen betebeharrak arduratzeko behar den gaitasun tekniko nahikoa duten pertsonak bazkideen artean aurkitzea ez da batzuetan erraza.

Azkeneko arazo hau erraz sortu liteke bazkide kopuru txikiko Kooperatiben kasuan eta, alderantziz, enpresa-kudeaketa konplexu xamarra den Kooperatiben kasuan. Horrelako kasuak kontutan hartuz, interesgarria izan liteke aipaturiko “hirugarrenen organo-eraketa”<sup>66</sup> delako tresna hori ezartzeko aukera zabaltzea.

65. “Supletoriedad” itzultzeko, ik. lehenago esandakoa.

66. Espainieraz, “organicismo de terceros” delakoa.

Aipaturiko arrazoi guztiongatik, ziurraski, gero eta malgutasun handiagoa agertzen zaigu Kooperatiben Legedian Kooperatiba-Elkarteen batzordekideen bazkide-izaera eskatzeko orduan.

#### \* BATZORDEKIDEEN LANBIDE-GAITASUNA

Orain arte esandakoak antolakuntza-arloan Kooperatibek duten funtsezko arazo baten aurrean kokatzen gaitu: Errektore-Batzordearen lanbide-gaitasuna edo kualifikazioa.

Gauza jakina da Kooperatibetako bazkideen gizarte-jatorria, ikuspuntu ekonomikotik ikusita –eta haien batezbesteko hezkuntza-maila akademikotik ere bai– Kapital Sozietateetako bazkideek dutena baino apalagoa dela.

Aldi berean, Kooperatibetako bazkideek inplikazio handiagoa dute enpresa-ihardueran. Honen ondorioz, enpresa-ihardueraren ezaguera-maila askoz handiago da Kooperatibetako bazkideen kasuan, Kapital-Sozietate handietako bazkideen kasuan baino.

Bestaldetik, Kapital-Sozietate txikietako bazkideak, aldi berean enpresariak dira gehienetan. Bai haiek, bai eta Kapital-Sozietate handien gehiengoa duten bazkideek ere, ihardueraren oso ezaguera-maila handia dute, gai zehatzetan eta enpresaren ikuspegi orokorraren aldetik ere. Zentzu honetan, Lankide-Kooperatiba txikietako bazkideek duten ezaguera-maila, gehienetan, apalagoa da.

Hala eta guztiz ere, enpresa-errealitatean, arazo hau guztiz leunduta agertzen zaigu. Gehienetan, Kooperatiben gerenteeek iharduteko ahalmen zabalak dituzte eta Errektore-Batzordeek kontrol- edo zaintza-arlotik kanpo ez aritzeko joera dute.

Horrela, gehienetan, Errektore-Batzordeak ez dira zuzenki sartzen enpresa-kudeaketan –Sozietate Anonimo handietan gertatzen den moduan–, kudeaketaren arloko oinarriko betekizunak Zuzendaritzarako gordez.

Errektore-Batzordearen eta honen batzordekideen izaera berezi honetan datza, ziurraski, Kooperatiben Legediak betidanik izan duen batzordekideen erantzukizun araupen bereziaren jatorria. Araupen hau, dakigunez, Kapital-Sozietateen administratzaileen erantzukizuna arautzen dutenak baino askoz leunagoa izan da.

Oraingo Euskadiko Kooperatiben Legearen 47.1 artikulua araberak, Kooperatiben administratzaileen kasuan, “behar bezain ondo” kontzeptua “zorrotasun handiagoz edo txikiagoz neurtzeko, lansaririk jasotzen ote duten edo ez izan beharko da kontuan”.

Bestaldetik, egia da baita aipaturiko lanbide-gaitasunaren maila hori apalagoa izanik, gerentearen iharduera kontrolatu edo zaintzeko benetako gaitasuna ere

apalagoa dela. Argi dago Kooperatibetako bazkideen lanbide-gaitasuna eta hezkuntza-maila funtsezkoak direla Kooperatibagintzaren etorkizunerako. Maila honen arabera, Kooperatibaren organoak –bai Batzar Orokorra, bai eta Errektore-Batzordea ere– gai izango dira baita ere hauen betebeharrak behar den moduan gauzatzeko.

Azkeneko hamarkadetan, arazo hau lege-arloan kokatzeko joera berpiztu egin da. Batzuen iritziz, Administrazioa antolatzeko Sistema Bikoitza Kooperatiba-Elkartetara ere zabaldu behar da. Lehen esan dugunez, eredu hori indarrean dago –gure inguruan– bai Frantziako Zuzenbidean –borondatezko aukera gisa– bai eta Euskadiko Kooperatiben Legearen 135. atalean arautzen den “Kooperatiben Bazkuna edo Korporazioan” ere.

Aldi berean, zuzendari eta gerenteek duten aginpide-esparrua zabaltasunez arautzeko joerak igertzen dira, bai eta Kontseilari-Ordezkarri edo Egiterapen Batzordeen bidezko ordezko-tresnak gero eta gehiago erabiltzeko ere.

#### **4.4.2. Sistema Bakuna eta Sistema Bikoitza**

Dakigunez, Sozietateen administrazioa antolatzeko orduan, administrazio-betekizunak argi eta garbi bi organo ezberdinetan bereiztea da Sistema Bikoitzaren asmoa:

- Zuzendaritza, kudeaketa eta ordezkapenerako organoa
- Kudeaketaren kontrola, zaintza, aholkularitza eta barruko ordezkapenerako organoa, azkeneko hau lehena izendatu eta kargutik kentzeko gai izanik.

Sistema Bikoitza, jatorriz alemaniarra, gero eta arrakasta handiago izaten ari da Zuzenbide Parekatuan. Honen ondorioz, Sistema Bikoitza gero eta gehiago Sistema Bakunaren lehengo lekua hartzen ari da, bai Sistema Bakunaren “Conseil d’Administration” betiko bertsio frantziarra, bai eta “Board of Directors” bertsio anglosaxoniarra.

Kapital-Sozietateetan gertatzen den moduan, Kooperatiban organo-egitura zehatz baten oinarriak ezartzeko dagoen bideragarritasuna aztertzeko unean, ondoko gaiok hartu behar ditugu kontuan:

- a) Enpresaren helburu eta politikak zehazteko momentuan kontutan hartu behar diren interesen zehazpena (bazkideak, langileak, bezeroak, hartzekodunak, gizartea oro har, etab.), eta
- b) Enpresan dauden interesek izan behar duten erabakitzeke –eta beren arteko harremanak bideratzeko– gaitasuna zehazteko erabiltzen den

elkarte-egituraren zehazpena, ahal den enpresa-eraginkortasun handiena ere ahalbidetuz.<sup>67</sup>

Kooperatiba “Sozietatetzat” hartzea onartzen badugu, derrigorrez onartu behar dugu baita ere bertan “elkarte-organoak” egotea. Bestaldetik, “organoen” kontzeptuari buruz zibil eta merkatal arloko doktrinak aztertu dituen funtsezko irizpideak onartu behar ditugu baita ere. Hauxe izan da Kooperatiben doktrina juridikoaren ahobateko irizpidea.<sup>68</sup>

Jakina, bazkide-kopurua handia denean, enpresaren ekonomi jabetza alde batetik eta Zuzendaritza eta Administrazioa bestetik bereizteko beharrari buruz merkatal arloko doktrinak izan duen betiko irizpidea<sup>69</sup>, Kooperatiba-Elkarteen kasuan –edo, gutxienez, Kooperatiba askoren kasuan– baliogarria da baita ere.

Egiaz, “pertsonek bateko enpresa baten jabea ez da produkzio-baliabideen jabe bakarrik, enpresa-ondarearen kudeatzaile bakarra eta honi loturik dauden arriskuen erantzule bakarra ere bada, bere burua enpresarekin berarekin erabat identifikatuz. Elkarte-egiturek, ordea, batasun hori hautsi egiten dute”<sup>70</sup>.

Nabaria da arrazoi horiek guztiz baliogarriak direla Kooperatiba-Elkarteen kasuan, bertan bazkideek, Kapital-Sozietateetan bezala, ez baitute “legezko enpresari-izaera hutsa”.

Jakina denez, legezko pertsona orok organoen bidez bideratu behar du bere iharduera “bere borondatea sortu, azaldu eta gauzatzeko, bai eta elkarte-helburua lortzeko behar diren hirugarrenetik ekintzak gauzatu eta negozioak ituntzeko ere”.

Kooperatiben doktrinak aho batez onartzen du baita ere, bai elkarte-organoaren kontzeptuek bai eta Kooperatiba-Elkarteen organoen oinarritzko egiturek ere, Europako Legedi gehienetan, Merkatal Sozietateen berezko kontzeptuetan dituztela beren sustrai hurbilak.

Horrela, Kooperatiba-Elkartean Batzar Orokorra alde batetik eta administratzaileak bestetik eratzeke modu hori, Espainiako Sozietate Anonimoak duen betiko egituratik dator, guztiz antzekoak diren irizpideen arabera.

---

67. Ik. G. ESTEBAN VELASCO: “El poder de decisión en las Sociedades anónimas. Derecho europeo y reforma del derecho español”, Madrid, 1982, 35.

68. Ik. J. LLUIS Y NAVAS: “Derecho de cooperativas”, I, Barcelona, 1972, 549 eta hurr.

69. Beste batzuen artean, GARRIGUES-URIA: “Comentario a la Ley de Sociedades Anónimas”, 1953, II, 9.

70. J.L. IGLESIAS PRADA: “Administración y delegación de facultades en la sociedad anónima”, Madrid, 1971, 41.

(Alde horretatik, argi dago –lehen esan dugunez– Kooperatiben Zuzenbidean elkarte-organoen araupenaren arloan egon den garapena adi-adi ibili dela Sozietateen Zuzenbidearen arloan gertatu den aldibereko garapenaren aurrean).<sup>71</sup>

Gauza bera gertatzen da Europako Zuzenbide Parekatuan. Horrela, Alemaniako Kooperatiba-Elkartearen antolakuntza “Sozietate Anonimoak duenaren antzekoa da”, Batzar Orokorra, Zuzendariak eta Zaintza-Batzordearekin. Orokorki, gauza bera gertatzen da Kooperatiba-Elkartea berarizko elkarte-egitura baten bidez arautzen den Legedietan. Zer esanik ez –Frantzia gertatzen denez– Kooperatiba-Elkartek derrigorrez Sozietate Zibilak, Anonimoak edo Erantzukizun Mugatukoak bezala antolatu behar diren Legedietan.<sup>72</sup>

Kapital-Sozietateen kasuan gertatu den bezalaxe<sup>73</sup>, Kooperatiben betiko antolakuntza “jabetza-arriskua” loturan oinarritu da (edo, nahiago bada, “jabetza-ahalmena”). Honen ondorioz, enpresaren erabakitzeko ahalmena Kooperatiba-iharduera gauzatzen dutenei egozten zaie. Horrela, erabaki egokiak hartzea ziurtatu nahi da, merkatuaren bidez gizartearen behar ekonomikoak asetzeko helburuaz.<sup>74</sup>

Ondoko garapena, Sozietate Anonimoen kasuan gertatutakoaren parekoa, jarraian dauden eredu ezberdinen arabera gauzatu da:

- a) Kooperatiba-Elkarteei Sistema Bikoitza derrigorrez ezarri dieten Legedien eredu.
- b) Kooperatibei Sistema Bakuna zein Bikoitza ezartzeko aukera ematen dieten Legedien eredu, Europako Kooperatiba-Elkartearen Araudiaren Proposamenean gertatzen den moduan.
- d) Kooperatibentzako sistema biak –baina Kooperatiba handientzako edo Kooperatiba-mota zehatz batzuentzako derrigorrez Sistema Bikoitza ezartzera behartuz– arautzen dituzten Legedien eredu.
- e) Sistema Bakuna baino arautzen ez duten Legedien eredu, nahiz eta lehen aipaturiko “aginpideen ordezkotzarako” Kapital-Sozietateek dituzten antzeko tresnak arautu.
- f) Espainiako Legedian gertatzen den moduan, Sistema Bakuna baino arautzen ez duten Legedien eredu, “aginpideen ordezkotzarako” delako tresna horiek ere aurrikusi gabe.

71. F. VICENT CHULIA: “El derecho de los órganos sociales desde la perspectiva de la legislación cooperativa”, RDM, 1979, 153-154 zenb., 488.

72. F. SOLA CAÑIZARES: “Tratado de Derecho Comercial Comparado”, Barcelona, 1963, III, 486-488.

73. G. ESTEBAN VELASCO: “El poder de decisión ...”, aip., 35.

74. Ik. J.L. IGLESIAS PRADA: Aip., 39/40.

Ikusi behar dugunez, bost eredu hauen arabera Zuzenbide Parekatuak izan duen garapenak Sistema Bikoitza –Kooperatiben Zuzenbidearen arloan ere– gero eta hedatu eta onartuagoa dagoela erakusten digu.

#### ***4.4.3. Kooperatiben Legediaren gaurko jarrera***

Lehen esan dugunez, indarrean dagoen Legedian Kooperatibaren iharduera –legezko pertsona izanik– honen organoen eskuetan gelditzen da.

Euskadiko Kooperatiben Legean agertzen den organo-egiturak ondoko organoak aurrikusten ditu zehazki:

- \* Batzar Orokorra
- \* Administratzaileak (Administratzaile Bakarra ala Errektore-Batzordea)
- \* Zaintza-Batzordea (“ez da derrigorrezkoa izango Kooperatibak ehun bazkide baino gutxiago baditu”).
- \* Elkarteko-Kontseilua edo Kontseilu Soziala (aukerakoa)
- \* Errekurtso-Batzordea (aukerakoa)

Administrazioaren antolakuntzaz, Espainiako Kooperatiben Zuzenbidea Sistema Bakunaren barruan (honen barne bai Sistema Frantziarra delakoa, bai eta anglosaxoniarraren Board System kokatzen direla) kokatu da orain arte.

Egiaz, Errektore-Batzordea izan da, orain arte, administrazio-organoa.<sup>75</sup> Nafarroako Kooperatiben Foru-Legearen 37. artikuluan agertzen denez, bertan “Kooperatiba-Elkartearen gobernu, kudeaketa eta ordezkapenerako organotzat” hartzen da Errektore-Batzordea. Betekizun hauek “administratzaileei” –orokorki hartuta– dagozkie Euskadiko Kooperatiben Legearen 40. artikulua arabera. Dakigunez, administratzaile hauek gehienetan Errektore-Batzorde gisa eratzten dira, nahiz eta “hamar bazkide baino gehiago ez badaude, administratzaile bakarra izatea oharteman ahal izango da Estatutuetan”, lehen esan dugun bezala.

Egiterapen-Batzorde edo Kontseilari-Ordezkarien bidez Errektore-Batzordeen aginpideen ordezkotza-sistema ez aipatzea gure Kooperatiben Legediaren betiko ezaugarria izan da. Salbuespenez, sistema hori argi eta garbi aurrikusi zen 1978ko Kooperatiben Araudian, nahiz eta ondoko arau eta legeetan desagertu.

---

75. Ik. F. VICENT CHULIA: “El derecho de los órganos sociales desde la perspectiva de la legislación cooperativa”, RDM, 153-154 zenb., Madrid, 1979, 484.

Legean horrelako tresnak ez agertzearen ondorioz, gure Kooperatiba-Elkartek, ez bakarrik Sistema Bakunaren barruan, Sistema Bakun “huts” batean kokatu behar genituen, administrazio-betekizuna Errektore-Batzordeari zuzenki eta soilik egotziz.<sup>76</sup>

Jakina, nahiz eta “ordezkotza” delako hori ez erabili, gerente edo zuzendariei “ahalmen edo eskumen orokorrak” emanez, exekutiboek antzeko betekizunak betetzea lortu da.

Bestaldetik, nahiz eta legean aurrikusita ez egon, enpresa-errealitatean agertzen ziren Kontseilari- edo Egiterapen-Batzordeei emandako ordezkotzaren kasuak egon bazeuden, agiri publikoan agertarazten ziren eta, batzuetan, errolatuak ere baziren.

Bestaldetik, nahiz eta Kontseilari-Ordezkarari edo Egiterapen-Batzordean utzitako ahalmen-ordezkatza hori arraroa izan, egia da baita ere Sozietate Anonimoen kasuan tresna hauek erabiltzera bultzatu duten ekonomia- eta antolakuntza-arrazoi asko Kooperatiba-Elkartean agertzen direla.

Kooperatiba-Elkartek, gehienetan, enpresa txikiak eta bazkide-kopuru urrikoak izatean datza, ziurraski, orain arteko ezberdintasun honen zergatia.

Ez dugu ahaztu behar, esan dugunez, zuzendariei kudeaketarako gero eta ahalmen handiagoa emate hori –bai eta Sistema Bikoitzaren arrakasta bera ere– Sozietate Anonimo handi gehienetan gertatzen den gauza dela, baina Sozietate Anonimo txikietan edo Erantzukizun Mugatuko Sozietateetan askoz arraroagoa dela.<sup>77</sup>

Orain arte gertatu dena zera izan da: Kooperatiba gehien benetako beharrak kontutan hartuz, enpresa txikientzako asmatu Legedia izan dela Kooperatiben Legedia. Beraz, Kooperatiben Legediaren esparru estuari egokitzea ala Kapital-Sozietateetan bihurtzearen artean aukeratu behar izan dute derrigorrez Kooperatiba handiek.

---

76. Eta hori, nahiz eta, orain arte esan dugunez, F. VICENT CHULIAK (“El derecho de los órganos...”, aip., 487) esandakoa egia hutsa izan:

“Kooperatiben mugimenduaren garapenean -eta, honen ondorioz, Kooperatiben Legediarenean ere- egon diren doktrina- eta errealitate-arloko bereiztasunak onartu behar dira, Merkatal Sozietate eta, bereziki, Sozietate Anonimoaren ezaugarrien aurrean. Hala ere, enpresa handien eta bazkide-kopuru handiko Sozietateen antolakuntzarako beharrezkoak diren arau eta oinarri-irizpideak Sozietate Anonimoaren araupenean finkatu dira. Neurri handi batean, era edo prozedura ezberdinak erabiliz, herri guztietan erabili da esperientzia hori Kooperatiba arautzeko orduan”.

77. F. VICENT CHULIAK (“Compendio crítico de Derecho Mercantil”, I, 1, Barcelona, 1991, 567) esan duen bezala, “Sozietate Anonimo handiaren kasua aurrikusten duen elkarte-egitura arautzen du sistema germaniarrak (Alemanian 2.000 Sozietate Anonimo baino ez daude), Frantziako eredu Sozietate Anonimo txiki eta ertainentzako sortua eta erabilgarria izan den bitartean”.



Horrexegatik da ulergarria orain arteko Kooperatiben Zuzenbidean ahalmen-ordezkatza aipatu ez izana eta, bestaldetik, administrazio-organoaren izaera bakuna eta Sistema Bikoitzaren onarpen-eza ere guztiz onartuak izatea.

Egoera honen aurrean, Euskadiko Kooperatiben Legeak aldaketa garrantzitsuak ezarri zituen Administrazioa antolatzeko aukeretan. Aukera hauen artean, ondokoak azpimarra ditzakegu:

- a) Hamar bazkide baino gehiago ez badira, Administrazioaile Bakarra izateko lehen aipatu dugun aukera (41.1. atala)
- b) Egiterapen-Batzorde bat edo Kontseilari-Ordezkarri bat edo gehiago izendatzeko agertzen den aukera argia eta garbia (46.5. atala)
- c) “Kooperatiben Korporazio edo Bazkunak” delakoentzat zehazki aurrikusten den Sistema Bikoitza (135. atala).

Aldi berean, “ahalduntzeko” aukera mantendu egiten du lege honek, bere 41.6. atalean:

“6. Artezkaritza-Kontseiluak (Errektore-Batzordeak) zuzendari-gerente bati edo batzuei eskumen orokorrak eman ahal izango dizkie, eta berauen gaitasunak aginpideak ematen dituen idatzian ageri direnak izango dira, hain zuzen Kooperatibaren ohiko trafikoari buruzkoak soilik. Bai izendapena eta baita eskumenak ematea ere Kooperatiben Erroldan jaso beharko dira. Artezkaritza-Kontseiluak, bestalde, edozein pertsonaren esku utzi ahal izango ditu eskumen bereziak”.

Bestaldetik, zein da lehen aipatu dugun “ahalmen-eskuordetze” horrek Kooperatiben enpresa-errealitatean duen erabilgarritasuna? Nire ustez, Kapital-Sozietateen ohiko arrazoietan sustraiturik, ez da erraza erabilgarritasun hori argitzea.

Argi dago horrelako tresnek kudeaketa-ahalmenak kontzentratu edo biltzea erraztu egiten dutela.

Doktrinaren arabera, ahalmen-bilketa honen bidez, bazkideen ordezkarien aurrean Zuzendariek behar duten autonomia ahalbideratzen da.

Hala ere, bazkide batzuek Administrazio-Kontseiluan dituzten ordezkarietara ahalmen bereziak emateko asmoz erabiltzen dira askotan horrelako tresnak. Horrela, gehiengoa duten bazkideek kudeaketa-ahalmenak biltzen dituzte gutxiengoko bazkideen aurrean, azkeneko hauek Administrazio-Kontseiluan duten partehartzea mantenduz baina Zuzendaritza-arloko erabakietan zuzenki parte hartu gabe.

Kooperatiben Elkarteetan botu-eskubideak duen oreka kontutan hartuz, ahalmenak biltzeko azkeneko betekizun horrek Kooperatibetan izan dezakeen interesa ikustea ez da erraza. Egia da, bestaldetik, kudeatzaileak behar duen autonomi maila edozein motatako Sozietate handi orotan agertzen den beharra dela, hauen legezko egitura bata zein bestea izanik ere.

(Kontutan hartu behar dugu Euskadiko Kooperatiben Legeak Zaintza-Batzordea delako organoa arautzen duela. Kontuz ibili behar dugu organo honek duen izenarekin. Organo honen ezarpenak –aurreko Kooperatiben Legedi batzuetan egon bazegoen– ez dauka zerikusirik Sistema Bikoitzarekin, Batzorde honek ez baitu administratzaileak izendatzeko ahalmenik).

#### ***4.4.4. Erreformaren oinarriek Kooperatiben Zuzenbidean duten baliogarritasuna***

##### **A. OINARRIZKO ARAZOAK**

Ikusi dugunez, Sozietateen administrazioari buruzko arazo horiek ez dira agertzen mota guztietako Kooperatiba-Elkarteetan, “Kooperatiba Handiak” delakoetan baino. “Kooperatiba Handiak” esanez, ez bakarrik ikuspegi kuantitatiboa, irizpide kualitatiboak ere kontutan hartu behar dira (elkarte-helburua, Kooperatiba-mota...) enpresa-kudeaketan dagoen konplexutasuna edo zehaztasun beharra argitzeko asmoz.

Hasteko, azpimarratzekoa da handiak edo konplexu xamarrak diren Kooperatiba-Elkarteetan, zuzendariaren eta Errektore-Batzordearen arteko harremanek Sozietate Anonimo handietan agertzen diren antzeko arazoak dituzte:

- a) Zuzendaritzaren aldetik, gero eta kudeaketa-ahalmen handiagoa eskuratzea.
- b) Zuzendaritza-taldearen lidergoa indartzeko beharra.
- c) Enpresa handi baten kudeaketak eskatzen dituen teknika aldetiko eskaerei erantzuteko Errektore-Batzordeak duen gaitasun-eza.
- d) Zuzendaritzaren kudeaketa zaindu edo kontrolatzeko betebeharra eraginkorki gauzatzeko Errektore-Batzordeak duen zailtasuna.

Bestaldetik, ekonomi eta lege-arloko aditu gehienek iritziz, Kooperatiba-Elkarteek duten arazo nabari eta garrantzitsuenetariko bat beren Errektore-Batzordeek –Kapital-Sozietateen Administrazio-Kontseiluekin parekatuak– duten lanbide-gaitasun eskasa da.

Kooperatiben doktrinak behin eta berriro esan duenez, “Elkartearen gobernuak, Sozietate-mota guztietan garrantzitsua izanik, berebiziko garrantzia du

Kooperatibagintzan, gobernu-organo eraginkorrak lortzeak duen zailtasunagatik, Kooperatiba askoren porrotaren gakoa izanik”.

Horrela bada, teknikaren konplexutasun-maila berdinarean aurrean, Zuzendaritzaren aurrean bazkideen ordeko-organoak (Errektore-Batzordeak) dituen ahalmenen mugapenak Kapital-Sozietateetan baino zehatzagoak izan daitezke Kooperatiben Zuzenbidean; hori dena, antolakuntza-egituraren eraginkortasuna kontutan hartuz, legezko egitura bata zein bestearen arrakasta ahalbidetzeko faktore funtsezkoa izanik.

Kooperatiben arloan kudeaketa eta zaintza betekizunek izan beharko luketen bereiztasun zehatza aipatu dute egile batzuek. RAIMBAULTen<sup>78</sup> iritziz “argi dago Zuzendariek merkatu-ekonomiari egin behar diotela aurre eta, beraz, gainontzeko enpresen Zuzendariek dituzten arazo berdinei... Administratzaileen betekizunak osagarriak dira, ezberdinak, politikak aurrikustea, erabakien gauzatzea kontrolatu edo zaintzea, etab. Alde batetik, Kooperatzaileekin dituzten harremanak ziurtatu behar dituzte eta, aldi berean, arlo sozial eta ekonomikoetan, ordezkapena eman dieten bazkideen aurrean kontuak eman behar dituzte”.

Organo hauen artean egon beharko litzatekeen betekizun-arloko bereiztasun berdina DERRICKek aipatzen du –Erresuma Batuko Kooperatiben Zuzenbideari buruz– alde batetik, aukeratutako Kontseilu edo Batzordea, politika orokorraren erantzulea eta, bestaldetik, ohizko kudeaketaren erantzule diren profesionalak argi eta garbi bereiztuz.<sup>79</sup>

Honi buruz zera hartu behar dugu kontutan:

a) Errektore-Batzordeen kideek duten lanbide-gaitasun murriztagoaren ondorioz:

– alde batetik, kudeaketa-aginpideak gauzatzeko duten gaitasuna ere murriztago dela.

– bestaldetik, Zuzendaritza behar ez duen gaietan sartzen bada, Zuzendaritzaren jarrera honen aurrean bere burua babesteko Errektore-Batzordeak duen gaitasuna ere –bai kudeaketa-arloan, bai eta ere zaintza-edo kontrol-arloan– murriztagoa dela.

Horrela, Kooperatiba askotan Errektore-Batzordeak duen gaitasun-ezagatik onartu behar ez dituen kudeaketa-betekizunak hartzen dituen bitartean,

---

78. RAIMBAULT (Frantziako Kooperatibagintzaren Nazio-Konfederakuntza eta Nekazaritza-Kredituaren Idazkari Orokorra): “Un débat: l’entreprise coopérative aujourd’hui”: Rev. des ét. coop., 197 zenb., 1979, 17/18.

79. DERRICK: “L’avenir du développement coopératif en Grande-Bretagne”, Rev. des ét. coop., 197 zenb., 1979, 45.

beste Kooperatibetan zaintza- edo kontrol-arloan dagozkion funtsezko betebeharrak ere ez ditu gauzaten.

b) Beraz, beharrezkoa da, alde batetik, kudeaketa-eraginkortasuna eta, bestaldetik, zaintza- edo kontrol-betekizunaren garapen eraginkorra ere ziurtatzea. Bi helburu hauek lortzeko asmoz, aipaturiko Kooperatiba handietan Sistema Bikoitza sartzea, nahiz eta borondatezko edo aukerazko moduan izan, interesgarria izan daiteke.<sup>80</sup>

Azkenik, Sozietate Anonimoetan Sistema Bikoitza ezartzearen alde sortu diren funtsezko arrazoiak baliogarriak izan daitezke baita ere Kooperatiba-Elkarte handietan:

1. Ohiko kudeaketa Zuzendaritzaren eskuetan utzi beharra.

Errektore-Batzordeek duten ohiko lanbide-gaitasuna kontutan hartuz, arrazoi hau are baliogarriagoa izan daiteke Kooperatiba-Elkarte batzuetan.

2. Berjabe den organo baten bidez kudeaketaren kontrol edo zaintzaren eraginkortasuna ziurtatzeko beharra.

Arrazoi honek berarizko indarra du Kooperatiben Zuzenbidean, bertan –ekonomi arloko kudeaketa gaien ondoan– enpresak duen Kooperatiba-izaera ere babestu behar baitute bazkideek. Beraz, arlo honetan ere zaintzaren eraginkortasuna funtsezkoa da.

3. Sozietate Anonimoak dituen handitasuna eta konplexutasuna –Sistema Bikoitzaren ezarpenarekin zuzenki loturik daudenak– agertzen dira baita ere:

a) Kooperatiba-mota batzuen kasuan: Bigarren mailakoak, Kooperatiben Korporazioak edo Bazkunak, etab.

---

80. Kontutan hartu behar da baita ere zein den Sistema Bikoitzari doktrinak leporatu dion arazo funtsezkoenetarikoa bat: botu-eskubideen ordezkotza orokorraren bidez, eta honen bitartez “Vorstandek” (Zuzendaritzak) lortzen duen Batzar Orokorraren menpekotasunaren ondorioz, “Aufsichtsrath” (Zaintza-organoa) duen zaintza edo kontrol-betekizun hori ahultzea. (F. VICENT CHULIA: “Compendio crítico...”, aip., I, I, 569). Argi dago horrelako tresnak bideragaitzak direla gaurko Kooperatiben Zuzenbidean.

VICENT CHULIAk berak, ahalmenen ordezkotza nahikoa ez izatea eta Kooperatiba Handietan Sistema Bikoitza ezartzeko beharra aipatuz, ondokoa esaten digu:

“Ez dugu nahastu behar ahalmenen ordezkotza eta Sistema Germaniarra edo Bikoitzean dagoen betekizunen (eta erantzukizunen) bereizketa (Zaintza-Batzordea/Zuzendaritza). Ahalmenen ordezkotzan, ordezkotza ematen duen organoak gordetzen du ahalmena eta, honekin, printzipioz, ordezkaturiko ahalmenak gauzatearen erantzukizuna. Beraz, nahikoa ez den elkarte-antolakuntzaren maila baten aurrean gaude, Kooperatiba Haundietan gutxienez. Aldibereko ordezkapen aginpideak dituzten bi organoen aurrean -ordezkotza eta ordezkaria- aurkituko dira hirugarrenak. Barru-aldeetik, aldibereko betekizun horiek nahaste bera sor dezakete. Bestaldetik, Errektore-Batzordearen kideak, nahiz eta beren betekizunak ordezkotzan eman, ez dira dituzten erantzukizunetatik aske gelditzen”.

b) Kuantitatiboki handiak diren Kooperatiba-Elkartean, lege bidez ezarri daitezkeen betebeharren arabera zehazturik.

## B. KOOPERATIBEN ZUZENBIDE PAREKATUA

Kooperatiben Parekaturiko Legedian Sistema Bikoitza aurkitzea ez da hain arraroa. Argi eta garbi aurrikusten da Alemania eta Austriako Kooperatiben Legeetan, bai eta Portugaleko 1980ko Kooperatiben Kodean –Kooperatiba-Elkarte guztietan derrigorrez aurrikusita– eta, azkenik, Frantziako Legedian, borondatezko edo aukerazko moduan nekazaritza-arloko Kooperatibetan eta –gainontzeko Kooperatiba-motetan– Sozietate Anonimoaren itxura hartzen duten Kooperatibetan.

Sistema Bikoitz hori borondatezko edo aukerazko moduan aurrikusten da Aurrezki- eta Kreditu-Kooperatiben kasuan Belgikako Legedian.

Jakina, Sozietate Anonimoentzako Sistema Bikoitza aurrikusita duten eta, aldi berean, Kooperatibek berarizko legezko egitura ez duten Legedi guztietan, azkeneko hauek Sistema Bikoitza erabiltzen dute.

Azkenik, Europako Kooperatiba-Elkartearen Araudia bideratzeko Proposamenean ere, borondatezko edo aukerazko moduan, Sistema Bikoitza agertzen da (30. eta hurr. artikuluetan).

Laburbilduz, Sozietate Anonimoaren arloan gertatzen den moduan, Kooperatiba-Elkartean ere Sistema Bikoitz hori gero eta arrakasta handiagoa izaten ari dela ematen du.

## C. DOKTRINAREN JARRERA

Kooperatiben doktrina berria eta, zehazki, VICENT CHULIA –arazo hau astiro aztertu duen egile bakarra ziurraski– Sistema Bikoitza Kooperatiben Zuzenbidean onartzearen alde agertu da, argi eta garbi.<sup>81</sup>

Egile honen iritziz, “Kooperatiben Legedia egikaritzeko agertzen diren kasu ezberdinek, Sozietate Anonimoan baino aniztasun handiagoa adierazten dute... Legedi honek Zaintza-Batzordea/Zuzendaritza eredu hori arautu beharko luke “Kooperatiba Handien” kasuan”.<sup>82</sup>

Aurrerago, Espainiako Kooperatiben Legedian Sistema Bikoitza ez onartzeaz damutu egiten da egile hori:

---

81. Ik. egile honen iritziaz lehen aipaturiko artikuluan (RDM), 495 eta hurr.

82. Ik. aipaturiko artikulua hori (RDM), 500.

“Zuzenbide Positibora errealitatean bizirik dagoena ekartzen duten instituzio horiek gure Zuzenbidera ere ekartzeko aukera galdu egin da: ‘administratzaile’ eta ‘zuzendarien’ artean dagoen gero eta bereiztasun handiagoa”.

Iritzi berekoa da J.M. SUSO.<sup>83</sup> Egile honek, 1982ko Kooperatiben Euskal Legea aztertu eta gero, zera uste du:

“... larriena administrazioarako sistema germaniarrera hurbiltzeko aukera behin betirako galtzea izan da. Eredu horrek, duen errealismo eta eraginkortasunagatik, gero eta zaletu gehiago ditu, bai parekatutako Legedi eta doktrinan, bai eta Europako Erkidego arloan ere. Gure mugen barruan sistema hori ezartzea ere laister etorriko da, Sozietateentzako prestatu diren lege-aurreegitasmoetan onartuta baitago”.

#### D. LEGEGINTZA-POLITIKAREN ARLOKO ARRAZOIAK

Sistema Bikoitza ezarri eta ahalmenen ordezkotza erabiltzearen alde dauden arrazoen ondoan, honen aurkako arrazoiak ere badaudela gauza nabaria da. Kooperatibek duten pertsona-izaera alde batetik eta, bestaldetik, organo erabakitzaileen eta bazkide kooperatzaileen artean Kooperatibetan egon behar den hurbiltasun handiagoa dira, batez ere, aurkako arrazoi hauek.

Honen ondorioz, horrelako tresnak borondatezko edo aukerazko bidez ezartzea komenigarria da, ahalmenen ordezkotzarekin egin den moduan. Hori izan da baita ere, bai Frantziako Legediaren, bai Sistema Bikoitza ezartzeko orduan Europako Kooperatiben Araudiaren Proposamenaren irizpidearen, bai eta Euskadiko Kooperatiben Legean Kooperatiben Korporazio edo Bazkunen kasua; Kooperatiben Korporazio edo Bazkunen kasu honetan, Kooperatiba-mota honen helburu bera, Sistema Bakuna erabiltzen duen Bigarren edo geroagoko Mailako Kooperatiba baten bidez garatu baitaiteke, aukeran.

Bestaldetik, kontutan hartu behar da baita ere Kooperatiben Zuzenbidean, antolakuntza-kulturaren aniztasuna legedi malguen bidez ahalbidetzea garrantzitsua dela. Kooperatiba-Elkarteen kasuan, besteetan baino garrantzitsuagoa da hori, merkatuan duen presentzia urriaren ondorioz askoz zailagoa baitaia aukeraturiko antolakuntza-ereduak kanpoko beste Kooperatibekin parekatzea.

---

83. J.M. SUSO: “Perfil de los órganos sociales de la cooperativa en la Ley Vasca de 11 de febrero de 1982”, Euskadiko Kooperatiben Bosgarren Ihardunaldiak, Donostia (1986), 34. eta “Funcionamiento orgánico de las cooperativas”, Deustuko Unibertsitatearen Lankidetzazko Ikaskuntzen Urtekaria (1987), 58.

## E. ONDORIOAK

Esan dugunez, argi dago, nahiz eta Elkartearen jabetzan guztiz ezberdinak izan, Kooperatiba-Elkarateek eta Kapital-Sozietateek gero eta kapitalen kontzentrazio handiagoa eta kudeaketaren teknifikazio eta zailtasun handiagoaren eraginei buruz antzeko baldintzak dituztela.

Kooperatiba-Elkarateetan, bestaldetik, Errektore-Batzordearen eraginkortasunaren arazoak larriagotu egiten dira, Batzar Orokorrean dagoen botu-eskubidearen sakabanaketa askoz handiagoa dela kontutan hartzen badugu. Honen ondorioz, Errektore-Batzordearen osaketa askoz heterogenoagoa da, EISENBERGek “Sakabanatutako kapitala duen Sozietate Anonimoa” izendatu zuenaren parekoa.<sup>84</sup>

Bestaldetik, esan dugunez, Kooperatiben Zuzenbidean Sistema Bikoitza ezartzeko balizko aukera aztertzeke orduan, Sistema hori Kooperatiba txikietan derrigorrez ezartzea zalantzan jarri dute, bai Kooperatiben Legediak, bai eta doktrinak ere.

Kontutan hartu behar dugu Sistema Bikoitza, printzipioz, “Sozietate handientzako” aurrikusita dagoen sistema dela.

Beraz, Sistema hori ezartzeko orduan zuhurtasunez jokatu behar badugu, Kooperatiba txiki eta ertainen araupena ez da aldatu behar, aipatu dugun aukerazko izaerarekin ez bada.

Beraz, orain arte esandakoa laburbilduz, Sozietate Anonimoaren kasuan gertatzen den bezala, administraziorako Sistema Dualista Kooperatiben Zuzenbidean ere ezartzeko dauden arrazoi funtsezkoenak ondoko hirurak izan daitezke:

- a) Enpresa-kudeaketaren eraginkortasunaren aldetik, kudeaketaren arduraduna den organoaren autonomia ziurtatzen dela.
- b) Kudeaketaren kontrol edo zaintza eraginkor eta berjabea ziurtatzeko Sistema honek duen erabilgarritasuna.
- c) Kooperatibaren organoen aginpide eta erantzukizunen zehaztapen argiago eta egokiago bat ezartzeko beharra.

Bai enpresa eta antolakuntza aldetik, bai elkarte-egitura aldetik ere, Sistema Bikoitza ezartzeko eman diren arrazoiak Kooperatiba-Elkarte Handietan dira baliogarriak.

---

84. Ik. J.C. PAZ-ARES RODRIGUEZ-en artikulua “Reflexiones sobre la distribución de poderes en la moderna Sociedad Anónima. (Teoría crítica de M.A. Eisenberg)”, RDM, 146 zenb., Madrid (1977), bereziki “Bildutako kapitala duen Sozietate Anonimoa” eta “Sakabanatutako kapitala duen Sozietate Anonimoaren” artean egiten duen bereizketa, artikulua honen 572. orrialdean azaldutakoa.

Bestaldetik, berarizko arrazoiak daude Kooperatiben kasuan: Errektore-Batzordeen lanbide-gaitasuna edo Lankide-Kooperatiben bazkideek duten bazkide--langilearen izaera bikoitza. Hauek izan daitezke Kooperatibagintzaren arloan Sistema Bikoitza ezartzeko berarizko interesa sor dezaketen arrazoiak.

Dakigunez, Lankide-Kooperatiben kasuan, Administrazioaren erantzukizuna aldi berean menpeko langileak diren pertsoneri dagokie. Izaera bikoitz horrek eragin baikor eta ezkorrak ditu. Eragin ezkor hauen artean ondokoak aipa ditzakegu:

- a) Batzuetan, Errektore-Batzordean dagoen erabakitze gaitasuna norberaren interesak babesteko erabiltzen da, erabaki okerrak hartuz.
- b) Beste batzutan, Zuzendaritzaren jarrera ez da izan beharko litzatekeen bezain gogorra, Batzar Orokorra eta Errektore-Batzordearen bidez langileek duten ahalmenaren beldurrez.
- d) Azkenik, beste batzutan, Errektore-Batzordearen kontrol edo zaintzaren betebeharra ez da izan beharko litzatekeen bezain zehatza. Batzordekideak aldi berean langileak izanik, lan-arloan Zuzendaritzak duen ahalmenak beldurra sortu baitezake Batzordean.

Alde horretatik, Zuzendaritza-organoa eta Zaintza-Batzordearen betebeharrak eta erantzukizunaren zehaztapen argia guztiz interesgarria izango litzateke eraginkor eta erantzule den kudeaketa ziurtatzeko.

Beraz, Kooperatibaren kudeaketa eta honen zaintzaren eraginkortasunaren helburuz, Administrazioarako Sistema Bikoitza ezartzearen aldeko arrazoiak egon badaude, borondatezko edo aukerazko moduan, eta gutxienez Kooperatiba handietan.

Alde batetik Kooperatibaren ezaugarriak hartu behar ditugu kontutan, eta bestaldetik, bereziki, enpresa txikiak eta handiak bideratu behar dituela Kooperatiba-Elkartek. Beraz, Sistema Bikoitza ezartzen bada, derrigorrez Kooperatiba-Elkarte guztietan ez ezartzea guztiz komenigarria da. Kooperatiba-Elkarteen araupen orokorraren arabera Sistema Bakuna edo Sistema Bikoitza aukeratzea Kooperatiba bakoitzaren erabakiaren bidez zehaztea izango litzateke egokiena, Frantziako Legedian edo Europako Kooperatiben Araudiaren Proposamenean gertatzen den moduan.

#### **4.5. ZAINITZA-ORGANOAK**

Kontu-Ikuskaritzarako Legearen ondorioz (kanpoko ikuskari edo auditoren betebeharrak arautzen zituena), Kontu-Artekarien (barruko ikuskariak) araupena



zalantzan gelditu zen. Sozietate Anonimoetan gertatu zen bezala, Legedia aldatu arte, barruko eta kanpoko ikuskaritzarako betebeharrak bikoiztu egin behar ziren, Kooperatiba askoren kasuan.

Barruko Kontu-Artekariak indarrean jarraitzen dute Nafarroako Kooperatiben Legearen 40. artikulua araberan.

Aitzitik, Erkidego Autonomoan, 1993ko Kooperatiben Legearen bidez, barruko Kontu-Artekarien ordean, alde batetik kanpoko Kontu-Ikuskaritza arautu egin zen eta, bestaldetik, Zaintza-Batzordea.

Lehen esan dugunez, –nahiz eta duen izenetik eta Legearen Zioen Adierazpenetik ere ondorio hori ateratzea erraza izan– Zaintza-Batzorde hori ez da Sistema Bikoitzean dagoen “Zaintza-Batzorde” bera. Alderantziz, 1993ko Legean agertzen den Zaintza-Batzordeak ez du Zuzendaritza izendatzeko ahalmenik. Beraz, bere betekizunak –eta, orokorki, organo honen antolakuntza– eta Sistema Bikoitzaren organoaren arteko loturak urri dira.

SANZ JARQUERen iritziz, eta Legearen Zioen Adierazpenaren arabera, “organo administratzailearen eta langileen batzarren arteko lokarria” izatea da Zaintza-Batzordearen betekizuna, lehenagoko barruko Kontu-Ikuskarien betebeharrak gehituz.

Zaintza-Batzordeak, Kontularitza aldetiko zaintza-betebeharren ondoan, beste motatako betekizunak ere baditu, batez ere Kooperatibaren organoek Legea eta Estatutuaren arauak betetzen dituztela ziurtatzeko asmoz zehazturikoak (ik. 53. atala).

Zaintza-Batzordea ehun bazkide edo gehiago duten Kooperatibetan da derrigorrezkoa.

1993ko Legea indarrean sartu zenetik igaro den denbora gutxia kontutan hartuz, goizegi da organo berri honen ezarpenaren eraginkortasuna eta baliogarritasuna aztertzeke.

#### **4.6. GOI-MAILAKO ZUZENDARITZA**

1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen 41. atalaren 6. azpiatalaren arabera:

“6. Artezkaritza-Kontseiluak (Errektore-Batzordeak) zuzendari-gerente bati edo batzuei eskumen orokorrak eman ahal izango dizkie, eta beraien gaitasunak aginpideak ematen dituen idatzian ageri direnak izango dira, hain zuzen Kooperatibaren ohiko trafikoari buruzkoak soilik. Bai

izendapena eta baita eskumenak ematea ere Kooperatiben Erroldan jaso beharko dira”.

Goi-mailako Zuzendaritza “Eskudun Orokor” bat edo batzuen bidez eratu daiteke, baita Zuzendari, zuzendari-gerente edo gerenteen bidez ere. Ez dugu ahaztu behar Kontseilari-Ordezkarari edo Egiterapen-Batzordearen bidez ere goi-mailako Zuzendaritza eratzeke dagoen aukera eta, jakina, ezta Errektore-Batzordeak Kooperatiba bere kabuz kudeatzeko duen aukera ere.

Beraz, arlo honetan orain dauden aukerak Sozietate Anonimoek dituzten berberak dira.

Nafarroako Kooperatiben Legearen 39. artikulua “Zuzendaria” arautzen du. Zuzendari honek “dagokion kontratuan agertzen diren eskubide eta betebeharrak izango ditu, bai eta Errektore-Batzordeak erabakitzen dituen betekizunak” (Bigarren Mailako Kooperatibetan posible da baita ere “Zuzendari edo Gerenteen Batzordea” eratzea).

Frantziako Legediak “gerente” hitza aipatzen du gehienetan. Gerentearen izendapena eta administrazio-organoekin bere harremanak zehazteko asmoz, SCOPak arautzen dituen Legearen 15. eta hurr. artikuluetan ezartzen da gai hauen araupen zehatza.

## 5. KAPITULUA

### EKONOMI JAURPIDEA

#### 5.1. EKONOMI JAURPIDEA ETA ETEKINA

Gutziz ezberdina da Merkatal Sozietateetan eta Kooperatiba-Elkarteetan dagoen etekinaren kontzeptua. Dakigunez, Kooperatiben “Merkatal Sozietate” balizko izaera ere –bai eta Sozietate-izaera ere– zalantzan ipini da askotan “irabazteko asmo-ezagatik”.<sup>85</sup>

Kontzeptuen aldetiko berariazko arazo hau garrantzitsua da Kooperatiben Ekonomi Jaurpidean, bertan dagoen etekinaren kontzeptua dela eta.

“Banatutako etekintzat”<sup>86</sup> bazkideak enpresatik ateratzen dituen baliabideak ulertzen badugu, orduan –zentzu zabalean– bai itzulketak/erretornoak<sup>87</sup>, bai kapitalaren interesak, bai eta bazkide eta Kooperatibaren artean egindako eragiketen salneurria ere, “banatutako etekina” direla esan dezakegu.<sup>88</sup>

Irizpide honen arabera, Kooperatiba-Elkarteetan “elkarte-etekina” eta “Kontularitza-etekina” bat ez datozela esan dezakegu. Bazkideak eskuratzen dituen hileroko lan-aurrerakinak edo eragiketen salneurria etekin-mota bat baino ez omen dira. Gauza bera gertatzen da Frantziako Zuzenbidean, Parekatutako Zuzenbidean eta doktrina irizpide batzuen arabera Kapitalaren interesekin.

Gure inguruko Sozietate gehienak Kapital-Sozietateak izanik, gure kontularitza-sistemak ere Kapital-Sozietateak aztertu eta zehazteko helburuz daude asmatuak.

---

85. GIRON TENAk (“Derecho de Sociedades”, I, aip. 96) irizpide hauen oinarria ondo baino hobeto azaltzen digu:

“Enpresa honen berariazko helburua ez da etekinak eskuratzea, beren kideek duten beharri erantzuna ematea baizik. Zerbitzu-enpresa omen da. Irabazi edo aurreztu eta gero banatzen duena ez da bateango enpresa bera. Beren kideak dira aurreztu edo irabazten dutenak, bakoitzaren ekonomi eragiketen arabera eta, honekin lotuta, Kooperatibarekin egindako kontratuen arabera”.

86. Itzulketak edo erretornoaren kontzeptuak eta honek duen etekin izaeraz, ik. L.M. LLOBREGAT (“Mutualidad y empresas cooperativas”, aip., Barcelona, 1991, 429. eta hurr.).

87. Ik. AMADEO BASSI: “Dividendi e ristorni nelle Società Cooperative”, Quaderni di Giurisprudenza Commerciale, Ed. Giuffrè, 1979.

88. Ik. E. BALLESTERO: Aip., 103. Ik. ere GIRON TENAk (aip.) Sozietate Kolektiboei buruz egin zuen azterketa, bazkide kolektiboen lanaren ordainsaria eta etekinen banaketa lotuz, horretarako bazkideen ekonomi egoera eta lansariaren beharra kontutan hartuz.

Beraz, gainontzeko elkarte-egiturak –Kooperatiba-Elkarteak edo Pertsona Sozietateak– haientzat bereziki asmatuak ez dagoen Kontularitza-sistema baten aurrean aurkitzen dira. Egoera honen ondorioz kontzeptu-arazo batzuk sortzen dira. Hauen artean, Kontularitza-etekinaren kontzeptua edo, beste modu batez esanda, etekin hori zehazten duten sarrera eta gastuen kontzeptuen arazoa azpimarratu behar dugu orain.

Arazo funtsezkoa bazkideekin egiten diren eragiketetan eta hauetatik datozen sarrera eta gastuen kontabilizazioan datza.

Egia da Kapital-Sozietate batzuetan ere agertzen dela arazo hau, bazkideek ihardueran parte hartzen badute. Hala ere, arazo hori Sozietate Pertsonalista guztiekin eta, bereziki, Kooperatiba-Elkartekin loturik dago, hauen ezaugarri nabarmenatarikoa bazkide-izaera lan edo industri ekarleei egoztea baita.<sup>89</sup>

Argi dago Kooperatibaren sarrera eta gastuen kopuru handi bat bazkideekin egiten dituen eragiketarik datorrela. Baieztapen hau, printzipioz, ez da zalantzan ipintzen. Eragiketa hauen salneurria gastu bezala ala etekinen banaketa bezala kontabilizatzeak, berez, ez du funtsezkoa izan beharrik, betiere jarraitutako irizpidea kontutan hartzen badugu Kapital-Sozietateekin egin behar diren parekaturiko azterketak egiteko orduan.

Hala ere, eragiketa hauen salneurria guztiz berjabeak ez diren alde bien arteko –Kooperatiba-Elkarteak eta honen bazkideak– akordioen ondorioa izanik, sarrera eta gastuen Kontularitza aldetiko balorapena itxurazko zerbait izan daiteke bakarrik. Honen ondorioz, nabaria da gastu eta etekinen banaketaren artean saldoak aukeran banatzeko Kooperatibak duen erraztasuna.<sup>90</sup>

Jakina, aukera hori –zergen aldetik ondorio nabariak dituen– askoz errazagoa da Kooperatiba txikietan edo erakunde-egitura erraza dutenetan, eta askoz ere errazagoa da zerbitzu- edo kontsumo-Kooperatibetan, Lankide-Kooperatibetan baino. Hala ere, Kooperatiba asko eta askotan aukera hori benetako errealitatea da.

Egoera honen ondorioz, eta aipaturiko arriskua zaintzeko asmoz, berezko arauak ezarri ditu Legediak. Hauen artean, bazkideekin egiten diren eragiketen salneurriak merkatuaren arabera ezarri edo kontabilizatu beharra. Horrela, 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legearen 66.2 artikulua arabera “gaindikin garbiak zehazterakoan honako hauek hartuko dira dirusail kengarritzat: a) Kooperatibaren

---

89. Honi buruz GIRON TENAK (“Derecho de Sociedades”, I, aip., 96), Kooperatiba-bazkideen beharrak asetzeko helburua duen Elkartetzat hartu eta gero, zalantzan ipintzen du, ikusi dugunez, Kooperatibaren helburua etekinak eskuratzea denik.

90. E. BALLESTEROren aburuz (aip., 103) jokatzeko modu hori “ez da... trikimailu bat”, “guztiz legezkoa den etekinak kontabilizatzeko modu bat, Kooperatibak duen berarizko izaeraren ondorioa dena” baizik.

kudeaketarako emandako ondasunen diru kopurua, balorazioa merkatu-prezioetatik gora egin ez bada, eta bazkide langileen eta lan-bazkideen lan-aurrerakinen diru-kopurua, dagokion ihardueran bere eskualdean ordaindu ohi den mailatik gorakoa ez izanik” (zentzu berean, Nafarroako Kooperatiben Legearen 49.1.d) artikulua eta zerga-arloko arauak ere).<sup>91</sup>

Hala ere, nabaria da merkatuaren arabera balorazio hori zehaztea guztiz zaila dela. Zailtasun honen ondorioz guztiz erraza da, horretarako prest dauden Kooperatiben kasuan, lana edo emandako ondasunen diru-kopuru hori aldatzea, etekinen kopurua nabarmenki murrizteko edo deuseztatzeko asmoz.

Jakina, itzulketa edo erretornoaren bidez beren etekinen zati garrantzitsu bat bazkideen artean banatzen duten Kooperatiba-Elkartek, ondoko jarrera biok har ditzakete:

- a) Bazkideekin egiten dituzten eragiketen salneurriak murriztu eta, beraz, etekina handitzea.
- b) Eragiketa horien truke beren bazkideek eskuratzen dituzten sarrerak –eta, hauen ondorioz, elkartearen gastuak ere– gehitu, eta, beraz, etekina murriztea.

Eragiketa hauen salneurriaren gainean bazkideen nahiak duen eragin nabariaren ondorioz, hortik ateratzen den etekinen kopurua guztiz artifiziala da. Etekinen kopuru hori, azkenik, bazkideen berarizko borondatearen bidez zehazten da, beren Elkartearekin egiten dituzten eragiketen salneurrien bidez adierazitakoa.

Kontutan hartu behar dugu baita ere elkarte-fondoak, zergak, etab. jasan behar dituztela Kontularitzatik ateratzen diren etekinek. Beraz, guztiz arrazoizkoa ematen du etekinak gutxiagotzeko dagoen joerak, bazkideekin egiten diren eragiketen salneurria aldatuz.<sup>92</sup>

Benetako arazoa ez da, nire iritziz, Kooperatibetan benetako etekinik ez egotea, batzuetan esan den bezala. Gertatzen dena zera da: bai Kontularitzatik ateratzen den etekina, eta bai bazkide eta Elkartearen artean egindako eragiketen bidez ateratzen den etekina, biak direla benetako etekina.<sup>93</sup> Egia esan, etekina dagoen ala ez dagoen aztertu baino hobeto izango litzateke etekina egon badagoela

---

91. Ik. J. SALABERRIA: “El régimen económico-financiero de las Cooperativas de Trabajo Asociado”, Gasteiz, 1995, 83/84.

92. Iritzi berekoa da I. BARBERENA: “Sociedades cooperativas, anónimas laborales y agrarias de transformación”, Pamplona, 1992, 109.

93. Iritzi honen aurka, I. BARBERENAREN aburuz (aip., 103), itzulketa edo erretornoa eta aurreratutako salneurria, eragiketen salneurriaren zati bat izanik, ez dira benetako etekina. Iritzi berekoa zen VERRUCOLI: “La società cooperativa”, Milano, 1958, 75.

onartzea, nahiz eta kuantifikatzeko zaila izan. Zailtasun horren jatorria, zalantzarik gabe, aurreraturiko salneurri eta itzulketen artean baliabideak eskualdatzeko dagoen erraztasunean datza.

Teoria hutsean, eragiketen bidez eta etekinen banaketaren bidez bazkideek eskuratzen dituzten sarrerek –bai Kontularitza-arloan, bai eta zergen aldetik ere– antzeko araupena izatea guztiz arrazoizkoa izango litzateke. Irizpide honen arabera, etekintzat hartu beharko liriateke kontzeptu biok Kontularitza-arloan. Zergen aldetik ere, edo etekintzat edo bestela, Legedi askotan gertatzen den moduan, gastutzat hartu beharko genituzke kontzeptu biok.

Hala ere, irizpide hori enpresen errealitatean ezartzea ez da batere erraza. Kontutan hartu behar dugu, Kapital-enpresetan erabiltzen diren kontzeptuetatik oso urrun dagoen kontzeptu bat erabiltzeak arazoak sor ditzakeela enpresa-kudeaketan, kudeaketaren eraginkortasuna jarraitu eta zaintzea oztopatzen baitu.

Aitzitik, Kooperatiba-Elkarteetan –eta, zentzu zabalean, Sozietate Pertsonalista orotan– etekinari buruz aipatu dugun “elkarte-arloko kontzeptu” horren ondorioz, enpresa-errealitatean eragin handikoak diren arazoak agertarazten zaizkigu:

\* Hasteko, derrigorrezko fondoetara bideratzen diren diru-kopuruak zehazteko Kooperatiben Legediak ezartzen duen irizpidea.<sup>94</sup>

Dakigunez, bai Derrigorrezko Erreserba-Fondoa, bai eta Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa ere, Kontularitzatik sortzen den etekinen kopuruaren arabera zehazten dira (Elkarteen gaineko Zerga ahaztu gabe, jakina).

Honen ondorioz, Kontularitzatik sortzen diren etekinetatik, guztiz mugatua den diru-kopurua baino ez du eskuratzen bazkideak. Horrela, enpresa-kudeaketaren eraginkortasuna larriki oztopatzen da. Kontularitzaren arabera etekinak banatzeko dauden oztopoen ondorioz, garbia da eragiketen salneurrien bidez “etekinak” eskuratzeko bazkideen artean sortzen den pizgarria.

\* Bigarren arazoa hauxe da: Sozietate Pertsonalistetan –eta, bereziki, Kooperatibetan– Legezko Pertsonen Errenta gaineko Zergak duen baliogarritasuna.

---

94. Ikusiko dugunez, irizpide honen arabera, guztiz arrazoizkoa izango litzateke baita ere derrigorrezko fondoak zehazteko orduan, esandako guztia kontutan hartzea. Horrela, derrigorrezko fondoetara bideratu behar den diru kopurua zehazteko orduan, bai eragiketen salneurriaren kopurua, bai eta etekinen kopurua ere hartu beharko litzateke kontuan. Hori da, ziurraski, lehengo Valentziako Kooperatiben Legearen 58.3 artikulua ezarritako arauaren zergatia, Hezkuntza eta Sustapen-Fondoa bazkideekin egindako eragiketen ehuneko baten bidez zehazten ahalbideratzen duena. Ik. I. BARBERENA: aip., 110.

Dakigunez, Kontularitzaren arabera etekin-ekin oso hurbil dagoen etekin-kontzeptuan oinarritzen da zerga hori. Beraz, Sozietate Pertsonalisten kasuan, Kontularitzaren arabera etekinaren bidez zehazten da Sozietateen gaineko Zerga, eragiketen bidez sortzen den “etekin” kontutan hartu gabe. Eta kontutan hartu gabe, jakina, etekin-mota bata eta besteen artean baliabideak aldatzeko erabakiak bazkideek beraien hartzen dituztela, inolako oztoporik gabe.

Errealitatean egiaztatutako egoera honen ondorioz, Zerga-Legediek bi motatako jarrera ezberdinak hartu dituzte:

\* Lehenengo jarrera, Sozietateen Zuzenbidearen ikuspegitik arrazoizkoena da. Jarrera honen arabera, Sozietateen gaineko Zerga Kooperatiba-Elkarteen kasuan erabilgaitza dela onartu da.

Honen ondorioz, “zerga-gardentasuna” (“transparencia fiscal”), edo zerga-salbuespenak (“exenciones fiscales”) –edo, gutxienez, banatutako etekinen salbuespena– guztiz hedatuak izan dira Sozietateen gaineko Zergan Europako Legedi askotan.

\* Bigarren jarrera, Kapital-Sozietateek duten zerga-araupenaren antzeko sistema Kooperatiba-Elkartean ezartzea da, nahiz eta araupen hori egokitze beharrezkoak diren neurri batzuk hartu.

Irtenbide honek sortzen duen arazo funtsezkoena hau da: irtenbide hau Kontularitzaren arabera eta elkarte-egituraren arabera etekinen artean dagoen ezberdinketa artifizial horretan sustraiturik egotea. Beraz, derrigorrezko fondoetara bideratu behar diren baliabide horiek sortzen duten lehen aipaturiko arazo hori larriki handitzen da. Honen ondorioz, eragiketengatik gastuen handitzea –eta, beraz, Kooperatiben kudeaketaren eraginkortasunaren murrizpena– bultzatzen du zergen legediak.

Kontutan hartu behar dugu baita, gastu eta etekinen kontzeptuak zehazteko orduan, Europako legedien artean ezberdintasun nabariak daudela. Espainiako legedian, dakigunez, kapitalak eskuratzen duen ordainsaria gastua da eta itzulketak edo erretornoak etekinaren banaketaren ondorioa.<sup>95</sup> Aitzitik, Europako legedi askotan –eta, zehazki, Europako Kooperatiba-Elkarteen Araudiaren Proposamenen– bazkideekin egindako eragiketen truke eskuratzen den gutzia (aurre-rakinak eta itzulketak edo erretornoak Lankide-Kooperatiben kasuan) gastuak dira, bai Kontularitzaren arabera, bai eta zergen aldetik ere eta, alderantziz, Kapitalaren ordainsaria banaturiko etekintzat hartzen da.

---

95. Ik. C. NAZZARO - G. PATERNOSTER: “Le società cooperative”, Milano, 1985, 10-11. Bertan argi gelditzen da erretorno edo itzulketaren kontzeptua eta etekinen kontzeptuaren artean Italiako legedian dagoen ezberdinketa nabaria.

Argi dago azkeneko irtenbide hau ere ez dela guztiz argia, Kooperatiba-Elkartetan besteen kapitalaren gainontzeko baliabideen antzekoa baita Kapital Soziala. Beraz, kontzeptu-mailan agertzen zaigun arazoak konpondu gabe jarraitzen du.

Esandakoa kontutan hartuz, ez bakarrik eragiketen bidez Kontularitzan agertzen diren gastuak, baita banatutako etekinak ere, eragiketen benetako salneurri osoa baino ez dira (horrexegatik erabiltzen dira “aurrerakinak” eta “itzulketak” hitzak). Beraz, guztiz arrazoizkoa litzateke –kontzeptuen aldetik– Legezko Pertsonen Errenta gaineko Zergan Kooperatiba-Elkarateek salbuespen osoa edo exenzioa eskuratzea.

Hala ere, gaurko egoera kontutan hartuz, nahiz eta Kontularitzatik ateratako kontzeptuen egokipena arrazoizkoa izan, oraingo araupenaren ondorioz sortzen diren arazoak onartu beharko dituzte Kooperatibek. Ez dugu ahaztu behar errealitatean sortzen diren arazo gehienak Kooperatiba eta bazkideen arteko eragiketen salneurrietan –edo lan-aurrerakinetan– egin ditzakegun egokipenen bidez konpondu ditzakegula.

## **5.2. ETEKINAK ZEHAZTU ETA BANATZEA**

Ikusi dugunez, legearen ikuspegitik, etekin gordinetatik bazkideekin egindako eragiketen salneurria (“lan-aurrerakinak” Lankide-Kooperatibetan) eta Kapitallean egindako ekarpenen interesak kendu eta gero ateratzen da Kooperatibaren etekin garbia.

Horrela esaten da argi eta garbi Euskal Erkidego Autonomoko Kooperatiben 4/93 Legearen 66. artikuluan:

“66. atala.- Gaindikin garbiak zehaztea

1. Gaindikin garbiak zein diren zehazteko, merkataritzako baltzuetarako ezarritako arau eta irizpideak hartuko dira kontuan.

2. Dena dela, gaindikin garbiak zehazterakoan honako hauek hartuko dira dirusail kengarritzat:

a) Kooperatibaren kudeaketarako emandako ondasunen diru-kopurua, balorazioa merkatu-prezioetatik gora egin ez bada, eta bazkide langileen eta lan-bazkideen lan-aurrerakinen diru-kopurua, dagokion ihardueran bere eskualdean ordaindu ohi den mailatik gorakoa izan gabe.

b) Baltzu-kapitalari egindako ekarpenengatik, partehartze bereziengatik eta baltzu-kapitalarekin batu ez diren laguntza eta finantzaketengatik zordunduriko korrituak”.



Irizpide hauen antzekoak dira Estatuko Kooperatiben gainontzeko Legedietan agertzen direnak (ik. Nafarroako Kooperatiben Foru-Legearen 49. artikulua eta Kooperatiben 3/87 Lege Orokorraren 83. artikulua). Hala ere, Parekaturiko Zuzenbidea ikusiz gero, argi dago irizpide hau ez dela Kooperatiben Zuzenbidean baliogarria den bakarra.

Lehen aurreratu dugunez, Kontularitzaren arabera gastutzat hartu behar dugunari buruzko irizpideak zeharo ezberdinak dira Kooperatiben Parekaturiko legedietan. Herri askotan (Europako gehienetan) Kapitallean egindako ekarpenen interesak edo salneurriak ez dira gastu kengarritzat hartzen.

Horrela gertatzen da argi eta garbi Alemaniako Kooperatiben Legearen 19. eta 21. artikuluetan, bertan Kapitalaren ordainsaria, gastua izan gabe, etekinen ohiko helburua dena. Honez gainera, baita Belgikako Merkatal Kodearen 141.3. eta 146 bis. artikuluetan, Frantziako Kooperatibagintzaren Araudi Orokorraren 14. eta 16. artikuluetan eta Produkzio-Kooperatibak arautzen dituen 1978ko Legearen 33.4. artikuluan, Greziako Kooperatiben Legearen 9. artikuluan edo Portugaleko Kooperatiben Kodearen 71. artikuluan ere.

Gainera, kontutan hartu behar dugu Legedi askotan Kooperatibak ez diren gainontzeko Sozietateentzako ezarritako irizpideak onartzen direla besterik gabe.

Gauza bera gertatzen da baita ere Europako Kooperatiba-Elkartearen Estatutuaren Araudiaren oraingo Proposamenarekin. Honen 52. artikuluan, ondokoa ezartzen da:

*“52. artikulua. Etekin erabilgarrien banaketa.*

*1. Legezko erreserba kendu eta gero gelditzen diren etekin erabilgarriak –itzulketa edo erretornoak, kasuan kasu, kendu eta aurreko ekitaldien gaindikinak gehitu eta gero– banagarriak diren etekinak osatuko dituzte.*

*2. Ekitaldiaren kontuei buruz erabaki behar duen Batzar Orokorrak, Estatutuak zehazturiko ordena eta proportzioan, ondoko helburuetara bideratu ahal izango ditu etekinak:*

*– gaindikin berri bat sortzera.*

*– ohiko ala ezohikoak diren borondatezko erreserbetara.*

*– ordaindutako Kapital berekiak eta hauen antzekoak diren kapitalak ordainsaritzera, eskudiruz nahiz partehartzeak egotziz.*

*3. Estatutuen bidez, edozein motatako banaketa uxatu ahal izango da baita ere”.*

Nabaria da, artikulu honen arabera, Kapitalaren ordainsaria ezin daitekeela ekitaldiaren gastutzat hartu. Zalantzan jar daiteke, Kooperatiben Legedi batzuetan gertatzen den bezala, itzulketak edo erretornoak gastutzat hartu behar diren edo ez (kontutan hartu behar dugu “erabilgarriak” diren etekinetatik kengarria den baina “banagarriak” diren etekinen aurreko kontzeptua dela).

Gastutzat har daitezkeen kontzeptuen araupen ezberdin hau –eta, honen ondorioz, Kontularitzaren arabeko etekina bera ere– guztiz bitxia egiten zaio Kooperatiben Zuzenbidea ondo ezagutzen ez duenari. Hala ere, araupen hau ez da horren bitxia Kooperatiben Zuzenbidean konpondu gabe dagoen aipaturiko kontzeptu-arazo horrekin –etekinaren kontzeptu berarena– zuzenki loturik dagoen arazoa dela kontutan hartzen badugu.

Ikusi dugunez, lege ikuspegitik, Kooperatibaren etekin gordinetatik –beste kontzeptuen artean– “lan-aurrerakinak” edo bazkideekin egindako eragiketen salneurria kendu eta gero, Kooperatibaren etekin garbia ateratzen da.

Etekin garbi honetatik, Sozietateen Errenta gaineko Zerga kendu eta gero, derrigorrezko fondoak zenbatu eta kentzen dira:

- Heziketa eta Kooperatiba-Sustapeneko Fondoak (gehienetan Etekin Garbien %10)
- Derrigorrezko Erreserba-Fondoak (gehienetan Etekin Garbien %20)

Bai derrigorrezko bi fondo hauek duten garrantziak, bai eta Derrigorrezko Erreserba-Fondoak duen izaera banaezinak ere, Kooperatibagintza babestu eta bultzatzea dute helburua.

Hala ere, horrelako babespen-neurriak seriooki berraztertu eta zalantzan ipini behar ditu Kooperatiben Zuzenbideak, epe luzera, Kooperatiben sustatzaileen pizgarria murriztuz, Kooperatibagintzak hazteko dituen aukerak seriooki gutxiagotzen baitituzte.

Lehen aipatu dugunez, bai Sozietateen gaineko Zerga, bai eta Derrigorrezko Fondoak ere Kontularitzatik ateratzen den itxurazko etekinaren arabera zehazten dira. Honen ondorioz, hileroko lan-aurrerakin edo eragiketen salneurrien bidez, Kooperatibaren baliabideak bazkideen eskuetara bideratzeko joera arriskutsua sortzen da. Horrela, Kooperatiba-Elkarrekin duten abantaila funtsezkoenatariko bat desagiten da: lan- edo industri-ekarleak berari dagozkion gastu finakoak murriztea onartzeko duen joera baikorra, etekinetan parte hartzeko duen itxaropenaren truke.

Guztiz garrantzitsua den arazoa da hau eta enpresa-gastuen kudeaketan oso kontutan hartu behar dena.

Erreserbei buruz, zehaztaper batzuk egin behar dira. Hasteko, gure inguruko Legedien DEF (Derrigorrezko Erreserba Fondoa) delakoa, ez da benetako “legezko erreserba-fondoa”, legearen aginduz fondo honetara egiten diren ekarpenen ondoan, Estatutuen arauen edo Batzar Orokorren erabakiz egiten diren beste ekarpenak ere hartzen baititu fondo honek.

Kooperatiben enpresa-errealitatean, erreserba hauetara egin diren ekarpenak oso tresna garrantzitsua izan dira Kooperatiben Kapitalak duen izaera aldagarria leuntzeko.

DEF delako horren berarizko ezaugarria “Kitapenaren momentuan ere” banaezina izatea da. Kitapenaren ondoriozko Elkartearen ondasunen banaketaren momentuan, Fondo honi dagozkion ondasunak “Euskal Elkarte Autonomoko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren eskutan jarriko dira”. Arau honetan dagoen salbuespen bakarra Bigarren edo Geroagoko Mailako Kooperatibena da, Euskal Elkarte Autonomoko Kooperatiben Legearen 94. artikulua 2.d) atalaren arabera. Irizpide hau zeharo malgutzen zen Nafarroako Kooperatiben 1989ko Foru-Legean, nahiz eta 1996ko Legeak ohikoa den irizpidea berriro onartu.

Erdibideko irizpidea Frantziako SCOPak (Produkzio-Kooperatibak) arautzen dituen Legearen 20. artikulua da, berebiziko interesa duena:

“SCOP bat kitatzeko orduan, pasiboa ordaindu, Elkartearen partehartze banagarriak ordaindu eta, kasuan kasu, atzeraturiko itzulkinak banatuz gero gelditzen den aktibo garbia, Estatutuen arauaz edo bazkideen Batzarraren erabakiz, ondoko helburuetara bideratu beharko da: SCOP bat edo batzuetara, SCOPen batasunetara edo SCOPen federazioetara, herri-erakunde batera, edo irabazteko asmorik ez duen interes orokorra, Kooperatiben arlokoa zein lanbidezko interesa duen ekintza zein erakunde batera.

Gelditzen den aktibo garbi hori ezingo da banatu, ez zuzenki, ez eta zeharbidez ere, bazkide, langile edo hauen eskubidedunen artean”.

### **5.3. KAPITAL-JAURPIDEA**

Kapital Sozialak duen berebiziko garrantzia ez da, jakina, Kooperatiba-Elkartearen berarizko ezaugarria. Honek duen finantz edo ondare-alderdian bereziki, elkarte-mota guztietan agertzen den baliabide garrantzitsua da.

Garrantzi hori ez da desagertzen Kooperatiba-Elkarteak Kapital-Sozietateak ez izateagatik. Hori bai, honen ondorioz Kapitalaren ezaugarriak zeharo ezberdinak dira Kooperatiben kasuan.

Kontutan hartu behar dugu elkarte-egitura bakoitzean Kapital Sozialak duen kokapena eta garrantzia Elkarte edo Sozietateak berezkoa den legezko nortasuna izatearekin guztiz loturik dagoela.

Legezko nortasun horren ondorioz, enpresaren ondarea eta hirugarrenen aurrean honek duen bermea neurtu, zehaztu eta baloratzen ahalbideratzen duten legezko baliabide guztiek berebiziko garrantzia hartzen dute.

Doktrina eta lege aldetik azkeneko urteetako garapenaren ondorioz, Kapital-Sozialak duen “oinarrizko egiturari” buruzko ondorio interesgarriak atera ditzakegu, ondoan laburbilduko ditugunak.

Argi dago –doktrina berrienak argi eta garbi esan duenez– Kapital Sozietateetan dagoen “Kapital Soziala” eta Kooperatiba-Elkarteetan dagoen izen bereko fondoaren artean oinarrizko ezberdintasun nabariak daudela. Nahiz eta terminologia bera erabili, bien izaera zeharo ezberdina da.

Elkarte edo Sozietate bakoitzaren elkarte-egituran duen betebeharra kontutan hartuz, Kooperatiben kapitalak ez du Kapital-Sozietateetan duen “antolakuntza-betekizuna”. Ez ditu diru-ekarleen eskubide sozialak –eta, batez ere, botu-eskubidea– zehazten eta, azkenik, Elkarteetan tresna-izaera baino ez du, Sozietateak irauteko berez derrigorrezkoa ez dena.

Beste ikuspegi batetik, Kapital Sozialak “zor-izaera” du Kooperatiba-Elkarteetan, nahiz eta epe luzekoa izan.<sup>96</sup> Gainera, ez ditu Kapital-Sozietateen Kapital Sozialak dituen berme-mailaren ezaugarriak.

Azkenik, Kooperatiba-Elkarteen Kapital Sozialak dituen egonkortasun-ezaren ezaugarriak ez dira agertzen Kapital-Sozietateetan. Egonkortasun-ezaren ondorioz, arazo larriak sortzen dira epe luzeko Kapital-metapenaren ekonomi betekizunaren aldetik. Ez dugu ahaztu behar bazkideak, Kooperatiba utziz gero, ekarritako Kapitala berreskuratzeko duen eskubidea.

Kapital Soziala ez da –kontzeptu-mailan– Kooperatiba sortu eta irauteko beharrezkoa. Egiaz, Kooperatibaren bilakaeraren ondorioz, barruko egitura eta antolakuntza aldatu gabe Kapitala desagertzea ohikoa da.

Zuzenbide Parekatuan, Kooperatiben Legedi batzuek Kapital Sozialik ez duten Kooperatiba-Elkarteak egotea onartu egiten dute. Gauza bera gertatzen da beste motatako Sozietate Pertsonalistak arautzen dituzten Legediekin. Batzuetan, argi eta garbi aurrikusten da Kapital-ezaren egoera hori, Ekonomi Intereseko

---

96. J. SALABERRIAk esan duenez (aip., 31) “Kooperatiban Kapital Sozialak duen izaera aldakorak –momentu zehatz baten bazkideei itzultzeko beharrezkin– honen zor izaera oinarritzen du”.

Elkarketak (AIE) arautzen dituen 21/1991 Legea, apirilak 19koaren 8. atalaren 3. azpiatalean adibidez (bertan “Kapital Soziala balego...” hitzak erabiltzen baitira). Horrelako Sozietateetan argi gelditzen da Kapital Sozialaren betekizuna, antolakuntza-arlokoa izan gabe, finantza-arloko betekizun hutsa izatea guztiz posible dela.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar Kooperatiben Kapital Sozialak duen oso epe luzeko diru-ekarpenaren izaera, ez eta arrisku handiko diru-ekarpenaren izaera ere. Honen ondorioz, Kapital-Sozietateen Kapital Sozialak ahalbideratzen dituen antzeko ekonomi betekizunak ahalbideratzen ditu Kooperatiben Kapital Sozialak ere.

Horrexegatik da onargarria finantza-baliabide hau Kapital Sozial bezala kontabilizatzea. Horrexegatik ere, Kooperatiben Legedi eta doktrina luzez aritzen da baliabide-mota honetaz, Kooperatiben Ekonomi Jaurpidearen barruan. Legean bertan, Kapitalaren araupena luzea da eta, gainera, legearen hasieran arautu ohi da (baliteke ere, Kapital-Sozietateetan Kapital Sozialak duen araupenak eragina izatea horretan).

Argi dago, bestaldetik, Kooperatiben Kapital Sozialak orain duen araupena ez dela nahikoa gaurko Kooperatiben beharrak asetzeko. Batez ere, finantz-baliabi-deak eskuratzeko asmoz, kapital-merkatura heltzeko asmoa duten Kooperatiben kasuan.

Arazoa ez da bakarrik Kooperatiben Kapital Sozialak Kapital-Sozietateen ohiko akzioek eta partehartzeek dituzten ezaugarriak ez izatea –ezinbestekoa da hori–. Kooperatiben Kapitalaren araupena, gainera, konplexua da eta, zergatik ez esan, baita “zaharkitua” ere.<sup>97</sup>

Elkarte-organoen egituran Kapital-Sozietateen akzio eta partehartzeek duten eragin zuzen eta funtsezkoa ez da izan oztopoa tituluok Kapital-Merkatuaren eskakizunetara egokitzeko. Helburu hori lortzeko, beharizan, interes eta baliabide ezberdinetako diru-ekarleentzako egokiak ziren finantza-baliabideak sortu ziren. Azkeneko hamarkadetan, gainera, Kapital-Sozietateen betiko oinarri-irizpideen aurkakoak diren baliabideak ere sortu dira. Hauen artean, botu gabeko akzioak, epegabeko zorra, etab.

Aitzitik, Kooperatiba-Elkarteez ez dute beren finantza-baliabideak erakargarriak bihurtzea lortu, ez eta beren bazkideentzat ere. Azkeneko hau egiaztatu nahi badugu, legedian araturiko legezko baliabideek izan duten porrota kontutan hartzea baino ez da behar. Hauen artean, “borondatezko ekarpenak”, bazkidetu edo laguntza bidezko bazkideen ekarpenak, etab.

---

97. Finantza-arloan 1993ko Euskal Elkarte Autonomoko Kooperatiben Legearen ahaleginak aztertzeko, ik. lege honen Zioen Adierazpena eta J. SALABERRIA: Aip., 19. eta hurr.

Hala ere, ekonomi errealtatean benetako eraginkortasun eta indar ekonomikoa duten Kooperatibak egon badaude (finantza-arlokoak, bazkide asko duten Nekazari-Kooperatibak, guztiz ahaltsuak diren Kontsumo-Kooperatibak, nazioarte-mailan hedaturiko industri arloko Koooperatibak, etab.). Kasu hauetan, aberastasuna sortu eta kudeatzeko gai dira Kooperatiba hauek eta, beraz, kanpoko diru ezarleei modu egokian ordaintzeko gai ere izan behar dute. Hala ere, orain arte ez dira kanpoko kapital hori erakartzeko gai izan, salbuespenak salbu.

Ikusi dugunez, Kooperatiba-Elkartek duten oinarrizko egitura –bertan eskubide sozialak ez baitagozkio Kapitalari– ez litzateke horretarako funtsezko oztopoa izan beharko, kontzeptu-mailan gutxienez. Egia da, bestalde, teknika aldetik –bai eta irudiaren aldetik ere– oztopo garrantzitsua izan badela.

Hala ere, aberastasuna sortzen den enpresetan kanpoko Kapitala erakartzeko gaitasuna ere egon badago. Kapital hori bera aberastasuna sortzeko betekizunean laguntza emateko helburuz erabiliz gero, bi alderdientzako (Kooperatiba eta diru-ekarlea) interesgarria eta arrazoiduna den moduan ordainsaritu ahal izango da Kapitala.

Aberastasuna sortzen duten Kooperatibek aberastasuna sortze horretan –eta, azken finean, Kooperatiben garapenean– kanpoko Kapitalaren partehartzea ahalbideratzen duten baliabide teknikoak derrigorrez aztertu eta bideratzen hasi behar dute.

Bide horretatik aurreratzea, sortzen diren arazo teknikoak konpontzeko behar diren azterketa teknikoak eginez, Kooperatiben legezko araupenak –eta Kooperatibagintzak berak ere– gaur egun duen erronka funtsezkoenatariko bat da.

\* 1993KO EUSKAL ELKARTE AUTONOMOKO KOOPERATIBEN  
LEGEAREN KAPITALIZATUTAKO PARTEHARTZE BEREZIAK<sup>98</sup>

“Kapitalizatutako partehartze bereziak” delako baliabidea Euskal Elkarte Autonomoko Kooperatiben 4/93 Legearen 64. atalean ezartzea oso aurrerapauso handia izan daiteke, Kooperatibak Kapital-Merkatura heltzeko asmoz erabilgarria den finantza-baliabide bat zehazteko, beste motatako Sozietateek erabili ohi duten baliabideekin lehian.<sup>99</sup>

“Galdagaitza” den Kapitala eskuratzeko Kooperatiba-Elkartek dituzten berarizko zailtasunak guztiz argiak dira, Kapital-ekarpena eta botu-eskubidearen artean dagoen lotura-eza kontutan hartuz.

98. 1996ko Nafarroako lege-proiektuaren 4.10.d atalean, kontzeptu hau onartuz, argi gelditzen da testugileek ez dutela honen esanahia ulertu.

99. Ik. J. SALABERRIA: Aip., 21.

Arazo hau, dakigunez, Kooperatiben legezko egiturarekin zuzenki loturik dago. Egoera honen ondorioz, finantza-baliabideak eskuratzeko Kooperatibek dituzten tresnak berrindartzeko behar diren lege aldaketak eskatu ditu doktrinak, behin eta berriro.

Legearen ikuspegitik, “galdagarriak” diren ekarpenek ez dute berezko araupenik behar. Beste motatako Elkarteetan ohikoak diren finantza-baliabide hauek, erabilgarriak dira Kooperatibentzat ere, finantza-merkatuan eskuragarriak diren kontratu bidezko tresnen bitartez (maileguak, bonu edo zor-agiriak, eta interes finko, aldagarri edo partehartzekoak direnak ere, etab.).

Lege-araupenak behar duen berrindartze hori, “galdagaitzak” diren ekarpenak eskuratzeko asmoz Kooperatibek dituzten aukerak argitzeko beharrean kokatu behar dugu. Ez dugu ahaztu behar, esan dugunez, ekarpen “galdagaitz” horiek direla epe luzeko kapital-metapena ahalbideratzen dutenak. Horrela, finantza-arloan Kooperatibek duten berezko arazoak gainditzea ahalbideratu nahi da.

Benetako oztopoa, Kooperatiben betiko Kapital Sozialak dituen ondoko arazoetan datza:

a) Kapital hori ez da merkatuan diru-ekarpenak eskuratzeko baliogarria. Finantza-merkatuan ohikoak ez diren irizpideen bidez zehazturiko baliabidea da<sup>100</sup> eta bazkide eta Kooperatibaren artean dauden konfidantzako harremanetan sustraitzen da.<sup>101</sup>

b) Kooperatiba uzten duenetik 5 urteko epean, ekarpenak berreskuratzeko eskubidea du bazkideak. Kapitalaren egonkortasuna, beraz, Kapital-Sozietateen “Kapital sozial finkoa edo aldagaitza” delakoak duena baino askoz murriztagoa da. Horrexegatik “aldakorra edo aldagarria den Kapital Sozialtzat” hartzen da.

Kooperatibaren kitapena heldu arte galdaezinak diren eta merkatu-irizpideen arabera zehazturik dauden finantza-baliabideak agertaraztea beharrezkoa zen. Ez bakarrik finantza-baliabideak eskuratzeko Kooperatibek duten gaitasuna berrindartzeko, hauen finantza-egonkortasuna sendotzeko ere bai, Kooperatiben ohiko kapital soziala baino askoz egonkorragoak diren –eta, Kapital-Sozietateen “kapital finko edo aldagaitzaren” antzekoak diren– finantza-tresnak ezarriz.

Hortik dator, ba, legegileek “Kapitalizaturiko partehartze (partaidetza) bereziak” ezartzearen arrazoia. Ikus dezagun ba, honen araupena Lege berriaren 64.1. atalean:

---

100. Irizpide horiek zehazteko, ik. J. SALABERRIA: Aip., 29 eta hurr. eta, Kapitalaren ordainsariaz, bereziki 47. orr.

101. Zehazki, benetako arazoak, ohiko ekarpenek duten zehaztopen-eza alde batetik eta, bestetik, berreskuratzeko epea titularraren egoera pertsonalari lotuta egotea dira.

“1. Partaidetza berezizat hartuko dira bazkideek edo beste edonork egindako ondare-ekarpenak, baina gutxienez bost urte pasa arte berriro eskuratzen ez badituzte eta, maileguen lehenasunen hurrenkeran, hartzekodun guztien ondoren jartzen badituzte. Partaidetza horien mugaeguna Kooperatibaren kitapena erabaki baino lehenagokoa ez bada, eta hartzekodunek lehenago jasotzeko baimena ematen ez badie, baltzu-kapitalizat hartzeko aukera izango da”.

Azpirarratu dugun azkeneko zati honek argi eta garbi arautzen ditu “kapitalizaturiko partaidetza bereziak”. Esan dugunez, finantza-baliabide honen helburua Kooperatibak Kapital-Merkatura –Kapital-Sozietateen akzioak eta parte-hartzeekiko lehiakorrak diren baldintzetan– heltzen ahalbideratzea da.

Jakina, helburu horretarako baliogarria izanik beren jabeen botu-eskubiderik ez egoztean datza, zehazki, baliabide honen interesa.

Botu-eskubidea egozten duten jaulkipenak erabiltzea interesgarria suertatu daiteke –kasu zehatz batzuetan– Kooperatibentzako. Hala ere, nabaria da horrelako jokaerak ekartzen duen “Kooperatiba-izaera”ren galtzea edo “deskooperatibizazioa”, izaera kapitalista argia duten kontzeptuak ezarriz eta Kooperatibaren pertsona-izaera baldintzatuz.

Hor datza, zehazki, “Kapitalizatutako partehartze berezi” hauen interesa: Kapital-Merkatura heltzea eta, aldi berean, Kooperatibaren legezko izaeraren errespetu osoa ahalbideratzea.

Bestaldetik, beharrezkoak omen diren bi aukerak ahalbideratzen ditu tresna honek: epegabea zorra alde batetik eta oso epe luzekoa bestaldetik.

Ez dugu ahaztu behar Kapital-Merkatua ez dela “Balore-burtsa” bakarrik. Eskualdatze indibidualen merkatua da, batez ere, Kapital-Merkatua. Eta hori da tresna berriok jarraitu behar duten bidea, batez ere, zuhur jokatzuz, bazkideek oraingo ekarpenak apurka-apurka tresna berri hauen bidez ordezkatzuz, berreskuratzeko epea eta interesak finkatzuz eta eskualdagarriak diren baliabideak sortuz.

Edonola ere, horrelako finantza-baliabideak ezartzea ez da erraza izango. Beharrezkoa izango da zuhurtasunez jokatzeko eta behar diren ahalegin tekniko eta gestiozkoak egitea. Honen bidez, bai Kooperatibarentzako, bai eta diru ezarlearentzako ere baliogarriak diren irizpideen arabera zehaztu beharko dira baliabide hauen kontratu-ezaugarriak, kapitalaren ordainsariari dagokion guztia batez ere. Beharrezkoa izango da baita ere Kapital-Merkatuan baliabide hauen ezarpenaren planifikazioa, ohikoak ez diren finantza-baliabideak onartzea zaila egiten baitzaio merkatu horri.



Horrelako tresnak ez dira euskal Legedian bakarrik agertu. Antzeko baliabideak beste Legedi batzuetan ere agertu dira, eta ez bakarrik Kooperatibei zuzendutakoak, baita Kapitalistak ez diren edozein motatako erakundeei (herri-enpresak, Aurrezki-Kutxak, Elkartek eta Fundazioak) eta baliabide iraunkorrak behar dituzten enpresari kapitalistei ere (azken hauek Sozietatean duten agintea murriztu edo galdu nahi ez badute).

Adibidez, Aurrezki-Kutxen “partehartze-kuotak”, “botugabeko akzioak”, “partehartze-tituluak” Frantziako Legedian (Kooperatibei eta herri-enpresei argi eta garbi zuzendurik), etab.

Horrelako baliabideak –eta, zehazki, aipaturiko “partaidetza edo partehartze bereziek”– Kooperatibagintzarentzat izan dezaketen garrantzia nabaria da. Hauen erabilpen orokorra egiteko gai bagara, Kooperatibagintza bultzatzeko funtsezko tresna bat izango dugu. Horrela, Kooperatibagintzak lan-faktorea ihardueran inplikatzeko dituen berezko abantailen ondoan, orain arte Kapital-Sozietateek baino izan ez duten enpresa-garapenerako tresna berri bat izango dute.

Erronka hori bideratzeko ahalegin guztiak egin behar ditugu. Baliabide hauek dituzten berezko abantailetatik at, hauen bultzapenak Kooperatibagintzaren sendotze argia –enpresa-sistema eta gizarte-mugimendu bezala– ekarriko du, kontzeptu-mailaren aldetik. Beraz, Kooperatibagintzaren etorkizuna ziurtasun handiagoz bideratzeko aukera berri baten aurrean gaude.

#### \* 1996KO NAFARROAKO FORU-LEGEA

Azkenik, aipaturiko ildoari jarraituz, eta finantza-baliabideen mota berrien ezarpena argitu eta errazteko asmoz, Nafarroako Sozialisten Taldeak, CDNek eta EAK aurkezturiko enmendakin baten bitartez, ondoko testua agertuko da Nafarroako Kooperatiben 1996ko Lege Berrian:

#### “46 BIS ARTIKULUA. BEREZKO BALIABIDEAK

Bat. Merkatal eta Kooperatiben legedian aurrikusitako berezko baliabideen ondoan, artikulua honetan aurrikusitakoak ere hartuko dira Kooperatibaren berezko baliabidetzat.

Bi. Berezko Baliabide Aldakortzat hartuko dira:

- a) Lege honen beste artikulua batzuetan kapital sozial gisa araututakoa.
- b) Nahiz eta kitapena heldu arte galdagaitza izan, behin 5 urte igarota gutxienez –hartzekodunen baimenik gabe– itzulgarria den betirako menpeko zorra.

c) 30 urteko edo luzeagoko den epeko menpeko finantzazioa, betiere kontabilizazioaren egunetik itzultzeko egunerarte gutxienez 10 urte badaude tartean.

Aurreko b) eta c) azpiataleen kasuan, “Berezko Baliabide Aldakorrak” espresioa erabili beharko da, Balantzean kontabilizatu ahal izateko.

Hiru. Kapital Sozial Aldaezintzat, edonolako betirako den menpeko zorra, betiere hartzaile den Kooperatibaren kitapena arte ez bada galdagarria eta aurretik itzulezina bada, hartzekodunen baimen agerikoa zein tazitza ez bada.

Lau. “Beste motako Berezko Baliabidetzat” aurreko zenbakietan azaldutakoetatik kanpoko edozein motatako betirako den menpeko zorra, betiere Kooperatibaren kitapena arte ez bada galdagarria.

Bost. Artikulu honetan ezarritakoari dagokionez, “menpeko” ekarpenetat, ohiko hartzekodunen atzetik –kredituen lehentasunari dagokionez– kokatzen diren guztiak hartuko dira.

Sei. Kooperatibek hartzen dituzten finantza-arloko diru-ezarpen iraunkor guztien ordainsaria –mugiezina, aldagarria zein partehartzekoa– gastu kengarritzat hartuko da beti etekinen kopurua zehazteko orduan”.

Testu honen ondorioak nabariak dira eta aurrerapauso handi bat adierazten dute finantza-arloko Kooperatiben Legedian. Testu honen bitartez:

\* Berezko Baliabideen kontzeptua argitu egiten da, bertan orain arte zalantzetan zeuden finantza-baliabide berri gehienak bertan onartuz.

\* Kooperatibetan ohikoa den Kapital Aldakorraren kontzeptua oinarritzat harturik, Kooperatiben betiko kapitala ez diren beste motatako finantza-baliabideak “Berezko Baliabideak” kontzeptuan ezarrit.

\* Finantza-arloan Kooperatibak eta Kapital-Sozietateen artean dagoen tartea murriztu nahian, Kapital Aldagaitzaren kontzeptua ezartzen du, horretarako finantza-ikuspegitik Kapital-Sozietateen akzioen eta partehartzeen finantza-ezaugarriak kontutan hartuz.

\* Finantza-arloko kontzeptu guztiok ezartzeko orduan, oso jarrera errealistarekin jokatzeko ari da Nafarroako legea, teori mailako kontzeptuetatik haratago joan eta baliabide guztion esparrua zabalduz enpresa-munduan lortu behar den bere ezarpena errazteko asmoz.

Nafarroako lege berri hau ezartzen ari den kontzeptu berri hauek, esan dugunez, aurrerapauso nabaria izan behar dute Euskal Herri osoko Kooperatiben Zuzenbidean.

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

ISBN 84-86967-74-0



9 788486 967741